

**a u r k i b i d e a**

<i>Zenbaki honetan</i> .....	3
<b>Ikastolatik Eskola Publikora</b>	
ELKAR LANEAN: Ikastoletako irakaskuntzaren garapena eta egoera .....	61
JAKIN: EIKE eta Euskal Eskola Publikoa .....	64
EAJren erantzuna .....	70
EEren erantzuna .....	73
HBren erantzuna .....	82
PSE-PSOren erantzuna .....	90
GIPUZKOAKO IKASTOLEN ELKARTEAREN erantzuna .....	96
IRAKASLE-ELKARTEAREN erantzuna .....	105
<b>Orain eta Hemen</b>	
JAKIN profanatu, edo Gorritiko gauza ikaragarriak — Gaixo apaizak eta ex-seminaristak — «El callejón sin salida de la euskaldunización» — Pesimismoa negoziaketari buruz — Unibertsitatea eta euskara. 1983ko Maiatza Parisen: «Mai 68 á l'envers» — Torturak berriz ere — «... Y el globo se pinchó» — Zentsurarik gabeko pantailak — La Voz: Espainiatik Euskadira — Joseba Intxausti: 25 urte JAKINen. ....	139
<b>Gaiak</b>	
URRUTIA, A.M.: Euskara eta Administrazioa .....	155
MONREAL, G.: Ohar bat euskara, L.R.U. eta euskal legislazioaz .....	186
ELHUYAR KULTUR ELKARTEA: Elhuyar anaiak .....	190
ARANALDE, J.M.: Bertsolari haundi deklaratu .....	193
<b>Liburuak</b>	
KORTAZAR, J.: «Hamaseigarrenean aidanez» .....	195
IDAZKARITZA: Jaso ditugu .....	200
IDAZKARITZA: Liburu-zerrendak osatzen .....	202

© **JAKIN**

JAKINeko idazlanetaz  
inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria.

**JAKIN**

aldizkari irekia da eta  
ez dator nahitaez  
idazleen eritziekin bat.

**Zuzendaritza:**

joan mari torreal dai  
l. a. bilbao (kazetaria)

**Idazkaritza eta administrazioa:**

Ategorrieta hiribidea, 23 1. esk.  
Donostia – 13. Tel. (943) 27 17 13

**1983rako prezioak:**

barruan	kanpoan
ale arrunta 500 pta.	600 pta. (25 FF)
ale bikoitza 700 pta.	800 pta (45 FF)
ale extra 1.000 pta.	1.200 pta. (70 FF)
harpidetza 1.500 pta.	1.700 pta. (95 FF)

## ZENBAKI HONETAN

---

*JAKIN*en bigarren aldiko 28. zenbakia duzu eskutan, aurtengo hiru-garrena hain zuzen, honen aurrekoa (Euskararen borroka) bikoitza izan zen eta.

Zenbaki honetan ere garrantzi eta gaurkotasun beteko gai nagusia dakargu: Ikastola. Ikastolaren arazoa lehen ere behin baino gehiagotan erabili du *JAKIN*ek: Gure Ikastola (*Jakin* sorta, 6, 1972) eta oraintsua-goko Elebitasunaren auzia ikastoletan (*Jakin*, 19/20, 1981) gogoratu nahi ditugu hemen.

Gaurkoan, bi modutara hurbiltzen gaitzaizkio arazoari. Lehen partean, Ikastoletako irakaskuntzaren garapenaz eta egoeraz ari gara, non ikastola aztertzen bait da ikasleen, irakasleen, emaitza akademikoen eta instituzionaltzearen aldetik. Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak, Bizkaiko Ikastolen Elkarteak, Arrasateko Hezibide Elkarteak, Arabako Foru-Diputazioko Euskarako Zerbitzuak prestatu zuten txosten hau, iazko irailaren 30ean eta urriaren 1 eta 2an Sitges-en emateko, «Hizkuntza Hezkuntz Sistemari» gaiari buruzko mintegiaren barruan hain zuzen.

Gai nagusi honen bigarren partean, historia ez baino etorkizunaz ari gara, ikastolaren eta hezkuntz sistemaren geroaz Euskal Herrian. Une erabakior batetan aurkitzen da ikastola gaur. Instituzionaltze-prozesuaren unerik garrantzitsuenean, agian. Ikastola noiz eta nola bilaka Eskola Publiko? Eritziak eritzi, hor dugu Eusko Legebiltzarrean Eusko Jaurilaritzak buruturiko Lege-Projektua (EIKE). Lege-Projektu honen baliagarritasunaz, Euskal Eskola Publikoaz eztabaida ugari dagoenez bazterretan, indar politikoei eta ikastolaren martxan partaide nagusi diren Federazioei eta Irakasle-Elkarteei eskatu dizkiegu eritziak. Azken hauen erantzunei buruz zera esan behar dugu: Federazioetan, Gipuzko-

akoak eman du erantzuna; eta Irakasle-Elkarteak erantzun bat ez baino bi eman ditu, jarrera desberdinen lekuko. Milesker erantzun digu-ten guztiei, aldizkariaren eta irakurleen izenean.

**Orain eta Hemen** saila inoizkorik beteena datorkigu. Zenbakiko gai sakonen aringarri gisa, bada hor gai batetik bestera iruzkinik franko.

Gai nagusiak ez ditu gai sakonak oro agortzen. **Gaiak** sailean argitaratzen dugu Euskara eta Administrazioa; arazoaren interesak ez du azpimarratu beharrik. «Euskeraren erabilpena arauzkotzeko oinarrizko legea»ren alderdi bat aztertzen du A.M. Urrutiak. Lege honek zergatik ez ote du izan kritika, azterketa eta estudio gehiagorik euskaldunon alde-  
tik? Aipatu artikulu honen ondoan, sail berean, Euskal Herriko Unibersitateko Errektorearen eritzia ere hor dugu, LRU ezaguna dela eta. Eta azkenik, beti sail berean, Elhuyar Elkarteak Elhuyar anaiez egina; eta J.M. Aranaldek Uztapidez egina. Har bitez aldizkariaren goratarre be-  
zata hiru haiei.

**Liburuak** sailean A. Lertxundiren nobela sarituaren irakurketa ba-  
tzuk eskaintzen dizkigu J. Kortazarrek, liburua atera berri-berritan ida-  
tziriko urgentziazko kronika honetan (83.01.25). Horrez gain, azkenaldi  
honetan jaso ditugun liburu eta liburukien zerrenda ematen dugu bate-  
tik; eta bestetik, aurreko zenbakian 1982ko liburu-zerrendan sartzeke  
gelditu ziren liburuen berri ematen du J.M. Torrealdaiak.



GIE  
BIE  
Hezibide Elkartea  
Euskarako Zerbitzua  
Eusko Jaurlaritza  
EAJ  
EE  
HB  
PSE-PSOE  
GIE  
Irakasle-Elkartea

## IKASTOLATIK ESKOLA PUBLIKORA

### **Ikastoletako irakaskuntzaren garapena eta egoera**

Ikastolen garapena eta euskararen ezarrera hizkuntz sisteman. Ikastolen garapena zentru bezala. Ikaslegoaren eboluzioa, adina.— Eskolaurreko eta OHOkoko ikasleak.

Irakaslegoa. Titulazioa. Ez-titulatuaren erregulapena. Irakaslego berriaren aurreikuspena.

Ikastoletako irakaskuntzaren egoeraren azterketa. Emaizta akademikoen azterketa eta estudio konparatiboa. Irakaskuntza elebiduna. Euskaraz inprimatutako eskola-materiala.

Ikastolen instituzionaltzea Komunitate Autonomoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian.

### **EIKE eta Euskal Eskola Publikoa**

Galdesorta. Alderdien erantzunak. Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen erantzuna. Irakasle-Elkartearen erantzunak.

## IKASTOLETAKO IRAKASKUNTZAREN GARAPENA ETA EGOERA

### SARRERA

Ikastolak edo euskal eskolak —izan ere, berorietan euskaraz irakasten bait da—, ez dira uste den bezala oraindik oraintsu sortuak. Haatik, gaur egun ezagutzen ditugun horiek bezalako hirurogeiko hamarkadan hasten dira zertzen.

Txosten honetan Ikastolaren garapena agertu nahi genuke, hasi berorren jatorritik bertatik eta gaur egunera bertarteko ibili horretan. Datu kuantitatibo hauek Ikastolak bere hazkundean izan zuen prozesuaren ikuspegi bat ematen digute: zenbat ikasle doazen eskola estataletara, pribatuetara eta ikastoletara eta zein diren ikastolen hazkunde-perspektibak. Aldi berean, Euskal Hizkuntza irakaskuntzako sisteman noraino erroten den adierazten digute datu horiek.

— Hezkuntzako zentru bat, hau da, ikastetxe bat baloratzeko aspektuetako bat, bakarra ez bada ere, bertako irakaslearen kualifikazioa da, inongo zalantzarik gabe. Txosten honetan irakaslearen kualifikazioa isladatzen dugu Eskolaurreko eta O.H.O.ko mailetakoko hiru momentu desberdinetan: Ikastolaren hasieretan, 1975-76ko ikasturtean eta gaur egun. Eta datu honek informazio oso bat ematen

ten digu garai batean pertsonal kualifikatu batekin kontatzen ez zuen eta era guztietako oztupoekin topatzen zen proiektu bat eta irakasleoa prestatzeko Zentruen garrantziari buruz.

— Problemarik konplexuenetako eta gutxien estudiantuetako bat, ikastoletan eman den euskarazko irakaskuntzaren balorazioa/ ebaluazioa dugu eskierki. Txosten honekin gai horretarako lehen hurbiltze bat egin nahi genuke, arazoa inolaz ere ahitzeko afanik gabe ez bere hedaduran eta are gutxiago sakontasunean. Gure gaurko asmoa, ikastoletako euskarazko irakaskuntzaren egoera deskribatzea eta aztertzea besterik ez litzateke ondoko hiru puntu desberdin hauetatik begiratuta:

- Eskola-emaitzak
- Irakaskuntza elebiduna
- Euskarazko eskola-material inprimatua.

Azkenik, etorkizunerako perspektibak eta ikastolak instituzionaltzeko dauden espektatibak apuntatu nahi genituzke, euskal lurraldeetako Administrazio desberdinek oso interes desberdinekin hartu izan duten arazoa hain zuzen.

Gure eskerrik beroenak ematen dizkiegu Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Hezkuntzako Lurralde-Delegazioei, orobat Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntzako Sailari eta oso bereziki Araba, Ipar Euskadi eta Nafarroako Ikastolen Federazioei, gurekiko agertu izan duten lankidetzarako borondate jatorrarengatik.

## 1.— IKASTOLEN GARAPENA ETA EUSKARAREN EZARRERA HEZKUNTZ SISTEMAN

Apartatu honetan, Ikastolak bere 20 urtetatik gorako lehen urte hauetan izan duen garapena isladatzen da. Hego Euskadiko lau herrialdeetako, hau da Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko, eta Ipar Euskadiko ikastolen eta ikasleen kopuruaren garapenari buruzko datuak jasotzen dira. Datu kuantitatibo hauek nahiko esanguratsuak dira beren horretantxe ere Euskarak hezkuntzako sisteman izan duen ezarrera argitzeko, zeren Elebitasun-Dekretua argitaratu zen arte (1979), ikastolak izan bait dira soilik

beren hezkuntzako projektuan xederik funtsezkoenetakoa bezala Euskara berreskuratu eta sustatzeko eginkizuna hartu izan duten hezkuntz Zentru bakarrak.

### **1.1.— Ikastolen garapena Zentru bezala eta ikaslegoaren eboluzioa**

1. laukiak ikastolen sorkundeari eta berorien kopuruaren eboluzio akumulatiboari buruzko informazioa ematen digu.

2. laukiak, ikaslegoaren eboluzioari buruzko informazioa ematen digu, urtez urte.

1. grafikoak, berriz, ikastolen kopuruaren eta ikasleen kopuruaren arteko eboluzio konparatiboaz informatzen gaitu.

1981.ean nabaritzen den ikastola berrien hazkuntzaren geldialdiaren kausen artean (ikus 1. laukia), bi ikastetxeri batera eusteko lain ikasle-kopuruarekin kontaktzen ez zuten herri haietan gertatu den ikastolen eta eskola estatalen arteko bateratzea azpimarratuko genuke, horrek duen esanahi bereziarengatik. Aipatu batasunerako lehen esperientziak 1979-80an hasi ziren, eta orduetik hona 15 ikastola eta eskola estatal batu dira Gipuzkoan eta 11 Bizkaian.

1. eta 2. laukien eta 1. grafikoaren bidez argi ikusten da ikastolen kopurua gero eta haziagotzen joan dela, eta etengabe gainera, bere bizitzako 21 urte hauetan. Horietako gehienak sortu-berriak baldin badira ere, besteak, aldiz, aurretiazko eskariaren ondoren eta behar ziren baldintzak betez, ikastolak bezala onartuak izan ziren Federazioen aldetik.

Grafikoa ikusita, eman dezake ikastolen kopuruaren ugaltzen progresiboa hau etengabe jarraituko dela hazkuntza-erritmo berean. Haatik, oraindik jakiteko dago zenbateraino onartuko duten Zentru estatalek, pribatuak eta Ikastolak berak ikastolen etorkizuneko Estatutu hori, zeren hautatu ahalko bait dute nola eredu bata hala bestea. Dena den, arazoaren giltzarri nagusia ez datza Zentru estatalak, pribatuak eta ikastolak gerokoan zenbat



## 1. LAUKIA

## IKASTOLEN SORKUNTZA ETA BERORIEKOPURUAREN EBOLUZIO AKUMULATIBOA

	1960	1961	1962	1963	1964	1965	1966	1967	1968	1969	1970	1971	1972	1973	1974	1975	1976	1977	1978	1979	1980	1981	Guzt.
ARABA	—	—	—	1	—	—	—	—	—	—	—	1	—	2	—	2	2	8	4	8	1	—	29
GIPUZKOA	3	—	2	3	4	5	11	9	6	10	8	7	2	1	—	—	—	—	—	—	6	—	77
NAFARROA	—	—	—	—	—	1	—	1	—	2	3	2	4	1	5	3	—	9	8	2	1	—	42
BIZKAIA	—	—	—	2	4	4	1	5	5	6	4	2	4	8	—	—	—	9	12	5	2	-3	70
IPAR EUSKADI	—	—	—	—	—	—	—	—	—	1	2	4	5	1	2	1	—	1	2	1	2	2	24
GUZTIRA URTEKO	3	—	2	6	8	10	12	15	11	19	17	16	15	13	7	6	2	27	26	16	12	-1	242
GUZTIRA AKUMULATIBOA	3	3	5	11	19	29	41	56	67	86	103	119	134	147	154	160	162	189	215	231	243	242	242

Siadeco: 1976 arte  
Ikastolen Federazioak: 1981 arte

## 2. LAUKIA

## IKASLEGOAREN EBOLUZIOA ESKOLURTEKA

Ikasturtea	Ikasle-kopurua					Guztira
	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Ip. Eusk.	
1964-65	22	520	—	54	—	596
1969-70	171	5.770	348	1.958	8	8.255
1970-71	334	8.181	765	2.591	14	11.885
1971-72	376	10.673	950	3.157	47	15.203
1972-73	486	13.245	1.377	3.755	101	18.964
1973-74	677	15.272	1.631	4.938	175	22.693
1974-75	1.026	17.971	1.892	5.822	225	26.936
1975-76	1.429	21.325	2.158	8.634	305	33.851
1976-77	1.812	25.314	2.621	10.977	341	41.065
1977-78	2.654	29.652	3.094	13.422	382	49.204
1978-79	3.293	31.423	3.744	14.875	390	53.809
1979-80	4.277	34.733	4.909	16.136	474	60.529
1980-81	5.086	37.145	5.369	17.157	516	65.273
1981-82	5.509	39.128	5.727	19.107	564	69.935

Siadeco: 1964-65etik 1974-75era


Ikastolen Federazioak: 1975-76etik 1981-82era

izango diren kontuan, euskararen irakaskuntza beren hezkuntzan txertatuko duten Zentruak zenbat izango diren jakitean baizik.

Era berean, 36.000 ikasleko hazkunde izugarri bat nabaritzen da 1975-76tik 1981-82rako eskolurte bitartean. Eta hazkunde horrek badu bere azalpena: kontutan hartu behar dugu ikastolak Eskolaurreko gelak irekiz hasi zirela eta piskana-piskana Eskolaurreko ikasle horietan oinarrituz O.H.O.an aurrikusten diren bideak urratuz eta osatuz joan direla. Gaur egun Eskolaurreko ikasle-oinarri zabal bat dauka, O.H.O.ko azken ikasturteak urriagoak diren bitartean beren kopuruan, zeren, hain zuzen, urriagoak ere bait ziren hasierako lehen «azaldi» haiek, eta berorietan emaitzak ditugu hauek.

## 1. GRAFIKOA

EBOLUZIO KONPARATUA: IKASTOLEN KOPURUA - IKASLEEN KOPURUA



Ikasturteak

## 1.2.— Ikaslegoaren egoera, adinka (1981–82ko ikasturtea)

3, 4, 5, 6 eta 7. laukiak ikaslegoaren adinez adineko egoerari eta gelen kopuruaren Araba, Gipuzkoa, Nafarroa, Bizkaia eta Ipar Euskadiko banaketari dagozkio.

Nola 8. laukiak hala 2. grafikoak ikasleen kopuru osoa adinka eta ikastola guztien gelakako banaketa jasotzen dituzte, Ipar Eus-kadikoak salbu, zeren hauek ez bait dira kontutan hartuak izan Estatu espainol eta frantseseko irakaskuntz sistemak parekideak ez direlako.

### 3. LAUKIA

#### IKASLEGOAREN EGOERA, ADINKA (1981–82)

##### ARABA

	Ikasle-Kop.	Gela-Kop.	Ikasleak Guztira	Gelak Guztira
2 urte	52	3		
3 urte	1.070	44		
4 urte	824	37		
5 urte	776	36	2.722	120
6 urte – 1. O.H.O.	598	25		
7 urte – 2. O.H.O.	526	24		
8 urte – 3. O.H.O.	425	15		
9 urte – 4. O.H.O.	337	13		
10 urte – 5. O.H.O.	228	7		
11 urte – 6. O.H.O.	222	8		
12 urte – 7. O.H.O.	161	6		
13 urte – 8. O.H.O.	156	5	2.653	103
14 urte – 1. B.B.B. – 1. L.H. 1	61	3		
15 urte – 2. B.B.B. – 2. L.H. 1	36	2		
16 urte – 3. B.B.B.	37	2		
17 urte – U.B.I.	—	—	134	7
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.509</b>	<b>230</b>		

## 4. LAUKIA

## IKASLEGOAREN EGOERA, ADINKA (1981-82)

## GIPUZKOA

	Ikasle-Kop.	Gela-Kop.	Ikasleak Guztira	Gelak Guztira
2 urte	553	29		
3 urte	4.375	180		
4 urte	4.282	173		
5 urte	4.317	168	13.527	550
6 urte - 1. O.H.O.	3.802	143		
7 urte - 2. O.H.O.	3.729	135		
8 urte - 3. O.H.O.	3.409	121		
9 urte - 4. O.H.O.	3.072	106		
10 urte - 5. O.H.O.	2.729	94		
11 urte - 6. O.H.O.	2.464	89		
12 urte - 7. O.H.O.	2.251	74		
13 urte - 8. O.H.O.	2.032	72	23.488	834
14 urte - 1. B.B.B. - 1. L.H. 1	668	20		
15 urte - 2. B.B.B. - 2. L.H. 1	573	16		
16 urte - 3. B.B.B.	435	14		
17 urte - U.B.I.	337	11	2.113	61
GUZTIRA	39.028	1.445		

Gipuzkoako Ikastolen Federazioa (G.I.E.)

## 5. LAUKIA

IKASLEGOAREN EGOERA, ADINKA (1981-82)

## NAFARROA

	Ikasle-Kop.	Gela-Kop.	Ikasleak Guztira	Gelak Guztira
2 urte	208	13		
3 urte	921	40		
4 urte	778	35		
5 urte	764	31	2.671	119
6 urte - 1. O.H.O.	644	26		
7 urte - 2. O.H.O.	574	24		
8 urte - 3. O.H.O.	450	20		
9 urte - 4. O.H.O.	367	16		
10 urte - 5. O.H.O.	296	13		
11 urte - 6. O.H.O.	233	11		
12 urte - 7. O.H.O.	171	9		
13 urte - 8. O.H.O.	168	9	2.903	128
14 urte - 1. B.B.B. - 1. L.H. 1	71			
15 urte - 2. B.B.B. - 2. L.H. 1	42	6		
16 urte - 3. B.B.B.	40			
17 urte - U.B.I.	—	—	153	6
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.727</b>	<b>253</b>		

Nafarroako Ikastolen Federazioa (N.I.E.)

## 6. LAUKIA

## IKASLEGOAREN EGOERA, ADINKA (1981-82)

## BIZKAIA

	Ikasle-Kop.	Gela-Kop.	Ikasleak Guztira	Gelak Guztira
2 urte	319	20		
3 urte	2.418	96		
4 urte	2.323	89		
5 urte	2.270	92	7.330	297
6 urte - 1. O.H.O.	1.871	70		
7 urte - 2. O.H.O.	1.780	65		
8 urte - 3. O.H.O.	1.488	57		
9 urte - 4. O.H.O.	1.317	46		
10 urte - 5. O.H.O.	1.282	44		
11 urte - 6. O.H.O.	1.079	40		
12 urte - 7. O.H.O.	991	34		
13 urte - 8. O.H.O.	919	31	10.727	387
14 urte - 1. B.B.B. - 1. L.H. 1	346	11		
15 urte - 2. B.B.B. - 2. L.H. 1	307	9		
16 urte - 3. B.B.B.	209	7		
17 urte - U.B.I.	188	6	1.050	33
GUZTIRA	19.107	717		

Bizkaiko Ikastolen Federazioa (B.I.E.)

## 7. LAUKIA

IKASLEGOAREN EGOERA, ADINKA (1981-82)

## IPAR EUSKADI

	Ikasle-Kop.
2 urte	48
3 urte	93
4 urte	135
5 urte	112
6 urte	67
7 urte	50
8 urte	42
9 urte	38
10 urte	36
11 urte	12
12 urte	13
13 urte	8
<b>GUZTIRA</b>	<b>564</b>

Ipar Euskadiko Ikastolen Federazioa (SEASKA)




## 8. LAUKIA

IKASLEGOAREN EGOERA, ADINKA (1981-82)

ARABA - GIPUZKOA - NAFARROA - BIZKAIA

	Ikasle-Kop.	Gela-Kop.	Ikasleak Guztira	Gelak Guztira
2 urte	1.132	65		
3 urte	8.784	360		
4 urte	8.207	334		
5 urte	8.127	327	26.250	1.086
6 urte - 1. O.H.O.	6.915	264		
7 urte - 2. O.H.O.	6.609	248		
8 urte - 3. O.H.O.	5.772	213		
9 urte - 4. O.H.O.	5.093	181		
10 urte - 5. O.H.O.	4.535	158		
11 urte - 6. O.H.O.	3.998	148		
12 urte - 7. O.H.O.	3.574	123		
13 urte - 8. O.H.O.	3.275	117	39.771	1.452
14 urte - 1. B.B.B. - 1. L.H. 1	1.146	36		
15 urte - 2. B.B.B. - 2. L.H. 1	958	29		
16 urte - 3. B.B.B.	721	25		
17 urte - U.B.I.	525	17	3.350	107
<b>GUZTIRA</b>	<b>69.371</b>	<b>2.645</b>		

## 2. GRAFIKOA



Ikastoletara joaten diren ia haur guztiek 3 urtetan ekiten diote beren ikaskuntzari, eta salbuespen arraroren bat edo beste aparte, ez da etortzen ikastoletakoa ez den beste zentrutako ikaslerik. Zentru batzutan haur erdaldunak 2 urterekin hartzen dituzte, albait azkarren euskal giroan sartzearen eta euskararen munduan ere errazago txerta daitezten. Esperientzia honek halako arrakasta bat izan zuen garai batean, baina gaurregun gero eta gutxiagotzen doa gisa horretako gelei subentziorik ematen ez zaielako, eta beste neurri batean, batzuek arrazoi linguistiko eta psikologikoengatik beroriei eustearen interesa zalantzan jarri dutelako ere bai, dudarik gabe. Haatik, argi gera bedi 2 urtetatik eskolatzen hastearen aldeko posturak ere defendatzaile asko dituela.

5. urtearen eta O.H.O.ko lehenaren artean, gutxitu egiten da ikaslegoa. Hori izan liteke ikasle batzuek ikastetxez aldatzen direlako, baina gure inpresioa da, Eskolaurrean hasten diren ikasleek, salbuespenak salbu, beren eskolatzea gutxienez O.H.O.ko 8.ean amaitzera jotzen dutela.

O.H.O.ko 8.aren eta Erdimailako Irakaskuntzen artean ikaslegoa nabarmenki gutxitzen dela somatzen da. Hori, ikastola gehienek orain artekoan O.H.O. finkatzeko fasean ihardun dutelako izan da. Gaur egun, B.B.B. eta L.H.rako Zentruak sortzeko kondiziotan egongo lirakeke, baina Institutu eta L.H.ko Zentru batzuk jadanik irakaskuntza euskaraz ematen hasi direnez gero, ez da hain beharrezkoa gertatzen ikastola ikasketa-maila hauetarako egokitzen hastea.

### **1.3.— Eskolaurre eta O.H.O.ko ikasleen kopuruaren eboluzioa eta gaur egungo egoera (Eskola estatalak, pribatuak eta ikastolak)**

#### **1.3.1.— Eskolaurreko ikasleen kopurua (1981–82ko ikasturtea). Eskola estatalak, pribatuak eta ikastolak.**

Badauzkagu 1975–76ko ikasturtean Eskolaurrea ematen zuten ikastoletako haurren kopuruari buruzko datuak, baina ez ordea Eskola estatal eta pribatuetakoenak, eta horregatik ezin konpara ditzakegu Eskolaurreko Zentru-tipo bakoitzeko ikasle-kopurua-

ren eboluzioak; horrela bada, ikastolek azken 5 urte hauetan zehar eman duten hazkuntza-prozesuan zentratuko gara:

## 9. LAUKIA

## IKASTOLETAKO ESKOLAURREKO IKASLE-KOPURUAREN UGALPENEA

(1975-76etik 1981-82era BITARTEAN)

	Eskolaurrea 1975-76	Eskolaurrea 1981-82
Araba	815	2.670
Gipuzkoa	9.089	12.974
Nafarroa	1.375	2.463
Bizkaia	3.060	7.011
<b>GUZTIRA</b>	<b>14.279</b>	<b>25.118</b>

Siadeco: 1975-76

Ikastolen Federazioa: 1981-82

10. laukiak, Eskola estataletako, pribatuetako eta ikastoletako Eskolaurreko ikasleen kopuruaren egoera erakusten digu 1981-82ko ikasturtean zehar.

## 10. LAUKIA

## ESKOLAURREKO IKASLEEN KOPURUA, (1981-82)

## ESKOLA ESTATALETAN, PRIBATUETAN ETA IKASTOLETAN

Ikasle Kop. Zentruetan	Araba		Gipuzkoa		Nafarroa		Bizkaia		Guzt.	%
Estatalak	5.775	46,7	11.107	34,8	8.559	45,8	27.132	53,5	52.575	46,4
Ikastolak	2.670	22,0	12.974	40,6	2.463	13,2	7.011	13,8	25.118	22,1
Pribatuak	3.679	30,3	7.818	24,6	7.663	41,0	16.558	32,7	35.718	31,5
	12.124	100	31.899	100	18.685	100	50.701	100	113.411	100

Estatalak eta pribatuak: Lurralde-Delegazioak

Ikastolak: Ikastolen Federazioak

Taula hau zuzen interpretatu ahal izateko, kontutan hartu behar da bertan sartu direla 3, 4 eta 5 urteko ikasleak ere. Ikastoletan ia denek 3 urterekin ekiten diote beren eskolatzeari (Ikus 8. laukia): Eta Eskola estataletan eta pribatuetan ere gero eta joera handiagoa da 3 urterekin hasteko eta badirudi gainera hemendik urte batzutara praktika hori ezarriko dela, Eusko Jaurlaritzako Kontseilaritzak hezkuntza elebidunerako eman dituen arauak eta orientabideak ezartzen baldin badira behintzat.

Ikastoletako ikasleek Eskolaurrera doazen guztien %12 suposatzen dute (ikus 3. grafikoa). Ez dira ordea era berdinean ezarriak aurkitzen lurralde guztietan: Gipuzkoan Eskolaurreko ikasle guztietatik ikastoletara doazenak %40,6 diren bitartean, %22 joaten dira Araban, %13,8 Bizkaian eta %12,2 Nafarroan.

### 1.3.2.— Eskola estataletako, pribatuetako eta ikastoletako O.H.O.ko ikasle-kopuruaren eboluzioa

11. eta 12. laukiek, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko O.H.O.ko Eskola estatal, pribatu eta Ikastoletako ikasle-kopuruaren informazioa ematen digute bi denboraldi desberdinetan: 1975-76 eta 1981-82ko ikasturteetan alegia.

## 11. LAUKIA

### ESKOLA ESTATAL, PRIBATU ETA IKASTOLETAKO

#### O.H.O.KO IKASLE-KOPURUA (1975-76)

Zentruak	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Guztira	%
Estatalak	21.440	48.479	49.859	121.084	240.862	56,2
Ikastolak	612	12.066	873	3.953	17.504	4,1
Pribatuak	15.547	45.752	32.653	75.977	169.979	39,7
					428.345	100

## 12.LAUKIA

## ESKOLA ESTATAL, PRIVATU ETA IKASOLETAKO

O.H.O.KO IKASLE-KOPURUA  
(1981-82)

Zentruak	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Guztira	%
Estatalak	23.026	39.993	39.183	116.362	218.564	52,7
Ikastolak	2.653	23.488	2.903	10.727	39.771	9,6
Pribatuak	12.906	38.912	27.210	77.105	156.133	37,7
					414.468	100

Estatalak eta Pribatuak: Lurralde-Delegazioak  
Ikastolak: Ikastolen Federazioak

11. eta 12. laukietan ikus daiteke:

- 13.877 ikasleko murriztura dagoela O.H.O.n, 1975-76 eta 1981-82ko urteen artean.

- Ikasoleetako ikasleen kopurua, azken 5 urte horietan, 22.267 ikaslez ugalduta dela. Eta horrek, batezbeste, 2.784 ikasleko ugalduta penaren suposatzen du ikasurte bakoitzeko.

- Eskola estataletako ikasle-kopuruaren murriztura 22.298 ikaslekoa izan dela azken 5 urteetan eta denboraldi bereko ikasleen gutxitzea %3,5koa izan dela.

- Eskola pribatuetako ikasle-kopuruaren murriztura 13.846 ikaslekoa izan dela eta, beraz, gutxitze hori %2koa izan dela.

Hala ere, nahiz eta hazkunde hori garrantzizkoa izan, %9,6 ikasle bakarrik egiten dute O.H.O. ikasleetan, hau da, gutxi gora behera 10 ikasleetatik 1 bakarrik da ikasletoz doana. Beste era batera esateko, ikasleetako %52,7, hots, gutxi gora behera 10etatik 5, eskola estatalera joaten dira eta %37,7 —gutxi gora behera 10 ikasleetatik 4—, eskola pribatuetara doaz.

Zifra hauek balio dute Hego Euskadiko ikasletoz beren osotasunean hartuta, baina lurralde bakoitzeko egoera banan-banan aztertzen baldin badugu, ikasletoz ezarpen hori aldatu egiten dela ikusiko dugu lurralde batetik bestera. Horrela, Gipuzkoako ikas-

tolek O.H.O. egiten duen ikasleko guztiaren konparazioan %23 suposatzen duten bitartean, Arabakoek %7 suposatzen dute, %5 Bizkaikoek eta %4 besterik ez Nafarroakoek.

#### 1.4.— Ondorioa

— Batez ere azken 5 urte hauetako ikastolen eboluzioaren balantze bat eginez gero, ondorio hauetara iristen gara: alde batetik, berezko hazkunde nabari bat dagoela O.H.O.n, baina aldi berean Eskolaurreko ikasleen piramidearen oinarria O.H.O.ren berezko hazkundera baino biziago joan dela, eta beraz are eta bizkorragoa dela ikastolen dinamismoa.


Jarraian aurkezten dugun 3. grafikoak orain era plastikoago batetan eskaintzen dizkigu 10, 11 eta 12. laukietan ikastetxe estatal eta pribatuetako eta ikastoletako Eskolaurreko eta O.H.O.ko ikasleen kopuruaren egoera eta eboluzioari buruz jaso diren datuak.

Ez dago zalantzan jartzerik ere benetan bizia dela Ikastolen hazkunde-tasa; alabaina, oso zaila da ikasleen hazkunde-kurba horrek hemendik 10 urtetara hartuko duen itxura aurrikustea. Barriable asko daude joera batean edo bestean intzidi dezaketenak, eta gaurregun dugun inkognitarik handienetako bat, hain zuzen, ikastolen Estatutu juridikoa nola onetsia izango den aurrena eta gero ikastolek berek nola onartuko duten jakitean datza, zeren alda bait dezake erro-errotik zentru estatal, partikular eta ikastoletako haurren gaurreguno proportzio horien banaketa. Baldin eta 8.000-9.000 arteko ikasleren sarrera hori bere horretan mantenduko balitz (ikus 2. grafikoa), eta jaiotza-tasa finkatuko (azkernaldion jaitsi egin da), ikastoletan ikasiko luketen haurren kopurua 90.000-100.000koa izango litzateke, eta horrek eskol populazioaren %20-25 suposatuko luke, gutxi gora behera. Hitz batean esateko, 10 ikasletatik gutxi gora behera 2-2,5 ikastolara joango lirateke.

— Aurreko datu guzti horiek, ikastolek eskola estatalen eta pribatuen konparazioan azken 5 urteotan izan duten eta gaurregun duten ezarpenaren berri ematen digute, eta pista batzuk ireki-

## 3. GRAFIKOA

O.H.O. ETA ESKOLAURREKO IKASLE-KOPURUAREN EGOERA ETA EBOLUZIOA



tzen dizkigute, gainera, etorkizun hurbil bati buruz eritziarik aurreratzeko. Baina, ikastolen ezarpen hori, euskararen hezkuntz sistemako ezarpenari ote dagokio gero? Ikastolak bakarrik ote dira gero euskararen eta euskarazko irakaskuntza asunituko dutenak?



Kapitulu honen hasieran genioen bezala, Elebitasunari buruzko Dekretua argitaratu zen arte (1979), ikastolak izan dira egia esateko beren hezkuntz proiektuaren barruan Euskal Hizkuntzaren berreskurapena eta sustapena funtsezko helburuetako bat bezala asumitzen duten ikastetxe bakarrak. Gaurregun ordea, ez da ikastola bakarrik, ze eskola estatalak eta pribatuak ere hasiak bait dira euskararen eta euskarazko irakaskuntza ematen. Mintegi honetan bertan ere badago «Euskararen maila ez-unibertsitarietako irakaskuntzaren emaitzei buruzko txosten eta balorapen bat» ere, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntz Kontseilaritzako teknikoei aurkeztua, gai honi buruz xehetasun handiagoarekin informatzera koan agertuko duten bezala. Argi dago eskola estatalen eta pribatuen partaidetzarik ausartena beharko dela baldin eta ikastolei bizia eman zien helburu funtsezkoenetako batekin, Euskararen eta Euskal Kulturaren berreskurapen eta sustapenarekin, kunplitu nahi bada.

Fase berri honetan behintzat ez da hutsetik abiatu beharko, ikastolek 60ko hamarkadan ekin zioten bezala. Gaur badugu jadanik 20 urtetako pedagogi eta antolamenduko esperientzien hornikuntza bat, behar hainbateko zorrotzasun zientifikorik gabe jasoa agian batzutan, baina hondorik gabeko zakuan sartzeko ez daudenak inondik ere: hor daude ikastolen inguruan euskaraz sortutako textuliburu eta ikas-materialak; badago behinipehin Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde historikoetan Euskal Gobernu bat, eta nahi diren balorapen positibo edo ez positiboagoak egingo dira Gobernu horretaz, baina ez dago konparatzerik ere lurralde horietako ikastolen egoera gainerako euskal lurraldeetakoekin. Eta batez ere irakaslego euskaldun bat dago, gaur gaurkoz urriegia den arren, ikastolen dinamika propioaz izugarriro ugaldu dena eta irakaslego ofizialaren hezkuntzako Eskolen politika birplantearazten ari dena eta helburu horiek betetzeko eskola pribatuak sortzera bultzatu duena.

Ikastolek bakarrik ezin dezakete beren gain har berreuskalduntzearen barruan eskolari dagokion eremu guzti hori. Horregatik bada, begibistan dago ze, Ikastetxe-tipo bakoitzaren berezitasunen gainetik, Euskal Herria berreuskalduntzeko borondate suharrari erantzungo dion Euskal Eskola sortzeko helburu erkidea ezartzen dela hemen.

## 2.— IRAKASLEGOA

Hizkuntzaren hezkuntz sistemako egoera baloratzeko aspekturik funtsezkoenetako bat, bakarra ez baldin bada ere, pertsonal irakaslearen kualifikazioa da. Eta kapitulu honetan, lerro nagusietan bederen, ikastoletako irakaslegoaren egoera aurkeztu nahi genuke.

Euskal Herriak ez du neurtu behar bezala irakaslearen eginkizuna eta beste herrietatik zetozen pertsonen eskuetan utzi du tradizioz betekizun hori. Ikastolak han 60. urtea aldera sortu zirenean, arazorik larrienetako bat irakasle titulatu euskaldunen ausentzia zen, eta horregatik ikastolen mugimenduari bat zetozen eta euskaraz zekiten pertsona ez-titulatuengana jo behar izan zen. Legalizazioaren aldeko burruka senperrenak ziren haiek, non ikastolak erdi-izkutan piskana-piskana finkatzen joan bait ziren, eta irakasleek su eta gar baina lansari farregarriekin eta behar bezala egokitu gabeko lokaletan etengabe lan egiten bait zuten.

Ikastolak gero eta haziagotzen joan diren heinean, bere ama-hizkuntza euskara izan duen pertsonal tituluarekin kontatu du, baina gaztelaniazko Irakaslego-Eskoletan heziak ordea. Eta guzti hori, hezkuntza herri baten kulturaren oinarria deneko kontzientzia hartzearen ondorioz izan da, alde batetik, eta baita lanpostu baterako sarrera erraza izan delako ere, bestetik.

Gaur egun, hirugarren fase batetan aurkitzen gara. Azken urteotan hiru Irakaslego-Eskola pribatu sortu dira (Irakaslego-Eskola ofizialek ez zuten eta erantzun egokia ematen, gaurregun egoera berrira moldatu nahian baldin badabiltza ere), eta eskola horietan maisuak euskaraz hartzen du bere hezkuntza eta euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren arazo espezifikoak ere gero eta kontutanago hartuz prestatzen da.

### 2.1.— Ikastoletako irakaslegoaren titulazioa

13. laukiak ikastoletako pertsonal irakaslearen ugaltza aurkeztzen digu zenbakitan, berorren titulazioari dagokiona ere isla-

datuz bi momentu desberdinetan, 1975-76an eta 1981-82an alegia. (Ipar Euskadiko ikastolak kanpoan geratzen dira hemen).

## 13. LAUKIA

## IKASTOLETAKO PERTSONAL IRAKASLEAREN TITULAZIOA

(1975-76/1981-82)

	1975-76			1981-82		
	Titulaturia	Ez-Titulaturia	Guztira	Titulaturia	Ez-Titulaturia	Guztira
<b>ARABA:</b>						
Eskolaurrea	11	13	24	91	26	117
O.H.O.	29	0	29	105	0	105
B.B.B.-L.H.	0	0	0	8	0	8
<b>GIPUZKOA:</b>						
Eskolaurrea	30	207	237	406	144	550
O.H.O.	350	21	371	971	0	971
B.B.B.-L.H.	—	—	—	62	0	62
<b>NAFARROA:</b>						
Eskolaurrea	7	46	53	60	59	119
O.H.O.	45	2	47	137	0	137
B.B.B.-L.H.	0	0	0	6	0	6
<b>BIZKAIA:</b>						
Eskolaurrea	45	49	94	183	114	297
O.H.O.	186	2	188	392	0	392
B.B.B.-L.H.	—	—	—	34	0	34
<b>IPAR EUSKADI:</b>						
Eskolaurrea	—	—	—	23	8	31
O.H.O.	—	—	—	25	0	25
<b>GUZTIRA:</b>						
Eskolaurrea	93-%22	315-%78	408-%100	763-%68	351-%32	1.114-%100
O.H.O.	610-%96	25-%4	635-%100	1.630-%100	0	1.630-%100
B.B.B.-L.H.	—	—	—	110-%100	0	110-%100
<b>GUZTIRA</b>			1.043			2.854

Siadeco: 1975-76.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza-Saila: 1981-82.

Nafarroa, Ikastolen Federazioa (N.I.E.).

Ipar Euskadi, Ikastolen Federazioa (SEASKA).

## OHARRAK:

- 1) Gipuzkoari buruzko datuak 1974-75eko ikasturteari dagozkie.
- 2) Ez daukagu B.B.B.ko irakasle-kopuruaren daturik 1975-76an, baina ikasleen kopuruarengatik (230 Gipuzkoan eta 15 Bizkaian), atera daiteke gutxi gora behera 8-10 irakasleko taldea izango zela.
- 3) Ikus daitekeen bezala, ez ditugu ematen, ez daudelako, Ipar Euskadiko ikastolei buruzko 1975-76ko datuak.

13. laukia irakurriz gero, irakaslegoaren kopuruaren ugaltza ikaslegoarenaren parean joan dela ateratzen da. Horrela, 1975-76ko ikasturtean, 33.851 ikasle eta 1.043 irakasle zeuden Hego Euskadin (horiei erantsi beharko litzaizkieke Gipuzkoan 1975-76ko ikasturtean ugaltza ziren 3.354 ikasleri legezkiekeen 110 irakasle, gutxi gora behera). Eta 1981-82an, berriz, 69.371 ikasle eta 2.798 irakasle zeuden.

Benetan interesgarria zaigu hemen azpimarratzea titulu gabeko irakaslegoaren eboluzioa. Titulurik ezaren arazoa Eskolaurrean zentratu izan da batez ere, zeren jadanik 1975-76an O.H.O.ko titulugabeen portzentaia soilik %4koa bait zen, nahiz eta 1975-76ko Eskolaurreko irakaslego titulugabea %78koa izan. Haatik, jadanik 1981-82ko ikasturtean portzentaia hori murriztua zen %32raino.

## 2.2.— Titulu gabeko irakaslegoaren erregularpena

Ikastolak hazten eta hazten zihoazen eta ezin kontsidera zitezkeen jadanik fenomeno marginal bat bezala. Administrazioa, onartu beste erremediorik ez zuen gertaera burutu eta atzeraezin baten aurrean aurkitu zen, baina irakaslego titulugabea oztupo bat gertatzen zen, ordea, ikastolak legezatzeko.

Beste aldetik, ikastolen batzorde kudeatzaileek ikastolen egoera legala erregularitzeko zuten desioa zegoen eta irakaslego titulugabeak ere horixe bera eskatzen zuen, horrela beren segurtasun profesionala ere handiagoa izan zedin.

Nahiko arazo larria zen. Zeren, egoera hori, hein handi batean bederen, urte luzetan zehar ikastolaren sustapenaren alde suhar eta inolako baldintzarik gabe jokaturako irakaslegoari bait zegokion. Hezkuntzako Kontseilaritzaren, Unibertsitateko Errektoretzaren, Eskoriatzako Irakaslego-Eskolaren eta Bergarako U.N.E.-D.en arteko akordio baten ondoren, O.H.O.ko irakaslegoaren hezkuntza-karrera emateko plan berezi bat jarri zen martxan. Plan hori 1978-79ko ikasturtean abiatu zen eta 1983-84koan amaituko da.

Irakaslego-Eskolan eta U.N.E.D.en jasotako emaitzak, honako hauek dira orain artekoan:

1980-81eko ikasturtea:	154 Irakasle titulu
1981-82ko ikasturtea:	75 Irakasle titulu
<b>GUZTIRA:</b>	<b>229 Irakasle titulu</b>

Gaurregun, 287 irakasle tutulugabe dira estudio hauek egiten ari direnak.

Zifra hauei, beren estudioak beste irakasle-hezkuntzako Zentrutan egin dituzten edo egiten dituzten irakasle tutulugabeena erantsi beharko litzaieke, zeren ez bait daukagu horien daturik banan-banan eta indibidualki bilatu beharko lirатеkeelako.

Horren paralelo, eta Eskolaurre-mailan, Eusko Jaurlaritzak maila honetako irakasleak eguneratzeko ikastaro bat antolatu du, Diplomatu-titulua lortzeko, eta horrekin legeztatua geratzen den pertsona horien egoera, soilik Eskolaurreko klaseak emateko baldintzarekin. 1981-82ko ikasturtean, eguneratzeko programa hori eman da eta diplomatuen kopurua 287koa izan da.

Pentsatzekoa da, gisa honetan, jadanik 1983-84erako titulurik gabeko irakasle guztiek erregulartua izango dutela beren egoera.

### **2.3.— Ikastoletan izango den irakaslego euskaldun-beharraren aurrikuspena**

Gaur egun Eskolaurreko eta O.H.O.ko ikasleen kopurua 66.021eko da. Eta ikasle-etorri horrek bere horretan jarraituko duela pentsatuz gero, hau da, urteko 8.000-9.000 haur gehiagorekin (ikus 2. grafikoa), hemendik 10 urtera ikasleen kopurua 90.000tik 100.000rako izango litzateke. Hots, 10 urte barru gaur baino 29.000 ikasle gehiago izango lirateke. Horrek gutxi gorabehera 1.000 gela berri sortzea suposatuko luke, eta beraz, bajak kontutan hartu gabe, eta berezko hazkunde soilarekin, gutxienez 1.000 irakasle berri beharko lirateke ikastoletan.

### 3.— IKASTOLETAKO IRAKASKUNTZAREN EGOERAREN AZTERKETA

Azterketa honi ekiterakoan berehalaxe ohartzen gara, Euskararen egoeran bertan badaudela gero ikastoletako irakaskuntzan intziditzen duten beste zenbait aspektu ere, hala nola euskararen arautzea eta normalizazioa, edo euskalkien eta batuaren inguruko arazoa. Estudio-bidean aurkitzen dira arazo horiek eta txosten honetaz harago lihoakeen tratamendu monografiko bat mereziko lukete.

Txosten honetan, Euskal Hizkuntzaren hiru aspektu giltzarri isladatu nahi genituzke:

- 1) Emaidza akademikoen azterketa.
- 2) Ikastoletako irakaskuntza elebiduna.
- 3) Euskaraz inprimatua dagoen eskola-materialaren garapena eta gaurrengungo egoera.

#### 3.1.— Emaidza akademikoen azterketa

Ikastoletan ematen den euskararena eta euskarazko irakaskuntzarena, nahiko esperientzia berria da oraindik eta, batez ere gurasoan aldetik, badago hainbat kezka ikastoletan ematen den irakaspinari buruz. Zer gertatuko da beren O.H.O.ko ikasketak bukatzen dituztenean? Ikastoletan ematen den irakaskuntza parekatu ote daiteke, kalitate aldetik, Espainiako Estatuan ematen denaren batezbestekoarekin?

Datu gehiagoren faltaz, irakaskuntzaren kalitatea, emaidza akademikoetan konkretatzen den ezagupen aspektura mugatuko dugu, jakinaren gainean noski oso datu erlatiboa dela eta eztabai-dagarria, beraz. Behin ohar hau eginez gero, aitortu behar dugu erantzuna ere nahiko arazo enpagarria datekeela, zeren berez gorrotagarri gertatzen bait da konparazio oro. Baina beste aldetik ez dago dudan jartzetik ere beren ikasketak euskaraz egiten dituzten haurrek Euskal Hizkuntzan eskolatzeak printzipioz dituen eragozpenak eta desabantailak gaintitzen dituzten ala ez jakitea inte-

resgarria zaigula benetan. Zailtasun horiek, alde batetik, hizkuntza beragandik datozenak dira, oraindik arautze-mailan aurkitzen delako, eta bestetik, Euskara egoera diglosiko larri batean aurkitzen delako eta iraindua, gainera, komunikabideen aldetik jasaten duen tratamenduarengatik. Zailtasunak sortzen dira baita euskaraz ikasten duten ikasle gehienek gaztelania edo frantsesarekiko erreferentzian egin behar izaten dutelako, zailtasunak euskarazko eskola-materiala oraindik ere nahiko eskasa delako, eta zailtasunak azkenik euskarazko irakasle goaren aldetik ere, berorietako ia denek beste hizkuntza batean ikasi behar izan dutelako.

### 3.1.1.— Ikasoletan lortutako «Eskolako Graduatu» tituluaren eta Estatu-mailan lortutako batezbestekoaren arteko estudio konparatiboa. (1980–81eko ikasturtea)

Apartatu honen bidez aurrerago planteatu ditugun arazo horiei erantzuten saiatuko gara, eta horretarako 1980–81eko ikasturtean ikasoletan eta Estatu-mailan lortu ziren «Eskolako Graduatu» tituluen batezbestekoak hartuko ditugu erreferentzi puntu bezala.

#### 14. LAUKIA

##### ESKOLAKO GRADUATU TITULUAREN LORPENAREN KONPARAZIOA:

##### IKASTOLAK-ESTATUKO BATEZBESTEKOA (1980–81)

Araba	% 96,9
Gipuzkoa	% 73,9
Nafarroa	% 81,3
Bizkaia	% 86,4
Estatuko batezb.	% 62,4

Lurralde-Delegazioak

Erraz hauteman daiteke lurralde bakoitzeko batezbestekoa Estatu-mailakoarena baino altuagoa dela. Emaitza hauek, esan dugun bezala, ezin har daitezke absolututzat; aitzitik baizik, erlatibizatu egin beharko lirateke gisa honetako apreziazioek duten karga subjektiboa kontutan hartuz. Alabaina, behin emaitza ho-

rien erlatibizazioa eginez gero, ezin esan daiteke inolako esanahirik ez dutenik ere. G.I.E.ak 1974 eta 1976 artean Gipuzkoako ikastoletako, eskola estataletako eta eskola pribatuetako O.H.O.ko 5. eta 7.eko ikasleen ikasketa-mailari buruz egindako estudio batetan —eta bertan erabilitako frogak objektiboak izan ziren, hala nola Matematika, Hizkuntza, Gizarte-Zientziak eta Natur Zientziak bezalako Arloak—, Espainiako Estatu-mailako erakuskari errepresentatibo batetan oinarrituz, ikastoletako ikasleak Estatu-mailako batezbestekoa baino gorago aurkitzen ziren, egindako frogak ere gaztelaniaz egiteak suposatzen duen baldintzapena eta guzti. Horregatik bada, ez zaigu iruditzen arriskutsua denik ikastoletako prestakuntz maila Estatu-mailakoaren parekoa edo are hobea dela baieztatzea.

Eraitza horien arrazoiak izan daitezke honako hauek:

— Gurasoen kultur maila.

— Beren kontzientziazio-maila; horrek oso partaidetza-gradu altu bat suposatzen bait zuen euskarazko irakaskuntzari zegozkion arlo guztietan, eta gainera guztiaren atzean beren partaidetzarekin printzipioz abentura pedagogiko bat izan zitekeenaren sendarpena bermatzeko desioa egon zitekeelako ere bai.

— Tradiziozko irakaskuntzari alternatiba bat eman nahiz erabilitako metodo pedagogikoak. Eman zitezkeen akats pedagogikoak nolabait arinduak geratzen ziren gela bakoitzeko ikasle-kopuru murriztarekin.

— Lehen hastapenetan irakasleak haurrak euskalduntzeko eskola baliagarri bat finkatzeko arazoari aurpegi ematea, eta horrek oso igurikimen handiak sortzen zituen beren lana oraindik ere eraginkorrago egiteko etengabe tentsio- eta estimulu-faktore bezala.

### 3.1.2.— Ikastoletako emaitza akademikoa O.H.O.n (1981–82ko ikasturtea)

1981–82ko ikasturtean ikastoletan eman zen euskarazko irakaskuntzaren emaitzak ebaluatu ahal izateko, galdesorta bat pres-tatu dugu O.H.O.ko 8 urteetako emaitza akademikoetan oinarrituz.



Galdesorta hori Hego Euskadiko ikastola guztietara bidali zen, gero guztizko 132 ikastoletatik 23ko erakuskari bat jasotzeko, hau da guztizko 39.771 neska-mutiletatik 10.123 haur itaundu, hain zuzen (eta horrek ikastoletako O.H.O.ko populazioaren %25,5 suposatzen du).

Ez ditugu bidali Ipar Euskadiko ikastoletara, zeren haien ebaluazio-sistema Hego Euskadikoaz bestelakoa baita.

Kontutan hartu behar dugu itaundutako ikasleen %89,2k bere ikasketak erabat euskaraz egiten dituela, Gaztelaniako asignatura izan ezik (D Eredua). 7,4k gaztelaniaz egiten du Euskara asignatura bezala duelarik (A Eredua) eta gainerako 3,4k gaiak piskana-piskana euskaraz gero eta gehiago sartuz egiten du (B Eredua edo bitartekoa).

Goazen orain 81-82ko Ikasturtean lortutako emaitza akademikoen iruzkinak egitera.

Alde batetik, azken ebaluazioko datuak dauzkagu: berorietan ikus daitekeenez, lortutako Oso Bikainen batezbestekoa %8,2koa da, Bikainena %28,4koa, Ongiena %25,8koa, Nahikoena %13,8koa, Eskasena %23,3koa eta Oso Eskasena %0,5koa.


Horri buruz esan genezake, ikasturtetako datuak ez direla asko urruntzen batezbestekoaren konparazioan, azken urteetako

## 15. LAUKIA

### AZKEN EBALUAZIOA (1981-1982KO EKAINA)

O.H.O.	Oso Bikain	Bikain	Ongi	Nahikoa	Eskas	Oso eskas
1	10,4	36	31,6	16,3	5,4	0,3
2	13,2	36,3	26,3	16,8	7,4	0
3	6,2	33,4	27,4	23,5	9,4	0,1
4	9	27,5	29,9	14,9	18,5	0,2
5	8,8	25,8	25,8	12,4	26,7	0,5
6	7,2	21,4	25,6	8,9	34,8	2,1
7	3,5	22,4	20,5	8,7	44,2	0,7
8	7,3	24,2	19,6	9,1	39,8	0
$\bar{x}$	8,2	28,4	25,8	13,8	23,3	0,5

## 4. GRAFIKOA




Azken ebaluazioa (Ekaina). 1981-1982ko ikasturtea. O.H.O.ko batezbesteko orokorra.

## 16. LAUKIA

## GUTTIEGIKO ASIGNATUREN EHUNEKOAK (1981-82)

	Euskara	Gaztel.	Matem.	Gizart.	Natur.	Plastik.	Dinam.	Hizk. Moder.
1	44,2	24,3	20,5	5,5	5,5	0	0	0
2	49,8	23,1	18,5	4,3	4,3	0	0	0
3	29,3	17,8	29,6	10,6	12	0,3	0,4	0
4	14,9	22,9	30,2	15,5	13,4	0,9	2,2	0
5	13,7	20,5	27,7	18,6	18,9	0,2	0,4	0
6	10,2	20,4	27,3	17,7	18,7	0,7	0	5
7	8,6	17,9	24,4	20	15,3	1,2	0,8	11,8
8	8,3	20,3	23,7	17,4	19,2	1,5	0,3	9,3
<b>Batez bestekoa</b>	22,4	20,9	25,2	13,7	13,4	0,6	0,5	3,3

## 5. GRAFIKOA



Guttielago asiguntzaren ehunekoak. O.H.O.ko batezbestekoa. 1981-82ko ikasturtea.

«guttiegien» portzentaia handiagoa ematen den arren. Hori izan liteke azken urteotako zailtasun-maila ere handiagoa delako, eta beraz gero eta gehiago galdatzen delako.

Guttiegi bezala ateratako asignaturen portzentaiari dagokionez, eta emaitza hauek aztertu ondoren, bereiz ditzakegu hiru bloke:

- a) porrot handieneko asignaturak,
- b) bitartekoak eta
- c) porrot gutxieneko asignaturak.


Eta dagozkien taldeak:

- a) taldeari: Matematika, Euskara eta Gaztelania.
- b) taldeari: Gizartea, Natur Zientziak eta Hizkuntza Modernoak.
- c) taldeari: Plastika eta Dinamika.

Datu hauei buruz esan genezake, ze, asignatura bateko guttiegien portzentai maila handiena berorri ematen zaion garrantziarekin edo berorren zailtasun-indizearekin identifikatzen baldin badugu, asignatura «bortitz» hauek Matematika, Euskara eta Gaztelania direla. Bigarren maila batetan Gizarte-Zientziak, Natur Zientziak eta Hizkuntza Modernoa aurkitzen dira, eta azkenik Plastika eta Dinamika azken mailan.

Euskara asignatura aztertuz gero, ikus daiteke guttiegien maila piskana-piskana gero eta gutxiagotzen doala lehen ikasturteetatik azkenekoetara bitartean, guttiegien kopururik handiena lehen bi urtetan kontzentratzen delarik. Hori, ikaslegoa al bait azkarren euskalduntzeko desioaren ondorioa besterik ez dela *uste dugu*. Gainera, kontuan eduki behar da baita Hasierako Zikloari dagozkion ikasturteetan euskarako asignaturak ez duela hizkuntzaren ezagupena bakarrik hartzen, baizik eta baita hizkuntza hori tresna bezala erabiltzeko tekniken ikasketa ere, eta horrek oraindik zailtasun bat gehiago gaineratzen du, goragoko zikloetan hizkuntzari buruzko gogaitez eta aspektu gramatikalagoez iharduten den bitartean.

## 6. GRAFIKOA



81-82ko ikasturtea. O.H.O.ko errepikatzailen ehunekoak.

*Errepikatzailen portzentaia:*

Errepikatzailen lehen etapako ehunekoa, %3, 1ekoa da bigarren etapako konparazioan, eta hauena 7,4koa, errepikatzailen kopururik handiena 6. ikasturtean aurkitzen delarik, eta hauen atzetik 7.ekoak. Horregatik ateratzen dugu, galdapen-mailarik handiena ikasturte hauetan aurkitzen dela «Eskolako Graduatu» titulua eskuratzeko bidean.

Eta azkenik O.H.O.tik erdimailako irakaskuntzetara irteten direnei buruzko iruzkintxo bat egingo dugu:

## 17. LAUKIA

## O.H.O.TIK ERDIMAILAKO IRAKASKUNTZATARAKO IRTEERAK

	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Oro Har
L.H. Euskeraz	0	12,28	0	2,9	3,8
Gaztelaniazkoak	26,3	13,65	38,7	15,7	23,7
B.B.B. Euskarazkoak	57,9	60,70	3,2	66,5	41,1
Gaztelaniazkoak	15,8	12,5	58,1	13,2	24,9
Lanera	0	0,4	0	0,9	0,3
Etxean	0	0,2	0	0,8	0,2

Ikastoletako ikasleetako %72k B.B.B.ra joatea hautatzen du, eta hauetako %47,1ek euskaraz egiten dute. %27,5 L.H.rantz zuzentzen dira eta berrietako %23,7k gaztelaniaz egiten dute, lanbide-heziketa euskaraz emateko zentzurik apenas dagoelako.

Lanera jotzen dutenen ehunekoa oso baxua da, %0,3koa, eta etxean gelditzen direnena ere berdin, %0,2koa.

## 3.1.3.— Ondorioa

— Badakigu irakaskuntzako emaitzen balorazioa emaitza akademikoetan oinarrituta egitea, hemen egin izan den bezala, hezkuntz ebaluazio serio bat izan behar lukeena bere adierazpide minimora murriztea dela, zeren horrek suposatzen bait du:

- Ebaluazioa bere aspektuetako bat bakarrera murriztea: ikasleak bakarrik ebaluatzea alegia, hezkuntz programaren ebaluazioa ahaztuz (helburuak, baliabideak, materiala, etab.), eta berdin hezkuntz ekintzaren ebaluazioa (eta hemen sartzen da textuinguruaren edo ingurunearen ekintza ere) eta, azkenik, orobat eskola osotasun bat bezala harturiko ebaluazioa ere.
- Emaitzak ikaslearen baitan eman daitezkeen fazeta ebaluagarri desberdinetan bakarrik kontsideratzea, eta ez hainbeste prozesuak eta textuinguruak.

- Emaizak ezagupenaren desarroiloarekin parekidetzea, ikaslearen nortasuneko beste hainbat aspektu ahaztuz, eta hau bere aldetik irakaslearen erizpide subjektiboetan oinarrituriko errendimendu akademikoarekin, eta ez froga objektiboak bezalako erreferentzia objektibo batetan.
- Emaizak ezagupenaren desarroiloarekin parekidetzea, ikaslearen nortasuneko beste hainbat aspektu ahaztuz, eta hau bere aldetik irakaslearen erizpide subjektiboetan oinarrituriko errendimendu akademikoarekin, eta ez froga objektiboak bezalako erreferentzia objektibo batetan subjektiboetan oinarrituriko errendimendu akademikoarekin, eta ez froga objektiboak bezalako erreferentzia objektibo batetan.

Zentzu honetan izugarrizko hutsunea nabaritzen dugu gaurregun hezkuntz ebaluazioaren arloan, eta orobat irakaskuntza osoarenean ere.

— Gorago esandakoak balio diezaguke irakaskuntzari bere osotasunean aplikatzeko, baina irakaskuntzaren emaitzen balorazioan badago faktore bat ikastolei bakarrik dagokiena: euskararen ebaluazioa alegia.

Euskararen balorazio kuantitatiboa txosten honen lehen partean egiten da, ikastolen garapena eta euskararen hezkuntz sistemako finkapena estudiantzerakoan.

Balorazio kualitatiboari dagokionez, hurrengo kapituluan egingo da euskal hizkuntzaren hezkuntz sistemako egoeraren balorazio bat funtsezko bi aspektutara mugatuz: euskaraz inprimaturiko eskola-materiala eta ikastoletako irakaskuntza elebiduna. Haatik, badaude halako zailtasun batzuk ikasleek lortu duten eta lortuko duten maila kualitatiboa ezagutzeko, zeren ez bait dago inolako erreferentzia objektiborik hezkuntz maila desberdinetan erdietsi beharreko hizkuntz gaitasuna ebaluatzeko.

— Ebaluatu beharreko aspektuetako bat, ikastoletatik jadanik irten diren ikasleei jarraitzea litzateke. Jarraipen hori egin daiteke ikuspuntu desberdinetatik, baina ikasle-talde horiek euskal hizkuntzaren eta kulturaren baitan suposatuta duten aspektu biderkatzailerik litzateke dudarik gabe interesgarriena.

### 3.2.— Irakaskuntza elebiduna ikastoletan

#### 3.2.1.— Datu historikoak

Ikastolak, orain dela 20 urte sortu baldin baziren, herriak bere hizkuntzari bizirik eusteko kezkarri erantzutearren izan zen.

Ikastola, printzipioz, euskarazko irakaskuntza elebakarra emateko zentru bezala sortu zen, bere hasieretan ia haur guztiak euskaldunak (euskal hiztunak) zituelarik. Horrela bada, funtsean hizkuntza bat «kontserbatzeko» eginkizun baten aurrean aurkitzen gara.

Ikastoletan sartzen diren haur erdaldun apurrek, ez zuten ingurune zeharo euskaldun hartan murgildu beste biderik. Bidebatez, aipatzekoa da baita guraso haien izaera berezia ere, oso kontzientzi maila altukoa alegia, beren seme-alabak ikastolara bidaltzen zituztela. Azpimarratzekoa da benetan gisa horretako jokatibideak suposatzen zuen militantismoa. Eta hor dago haien esfortzu ekonomikoa ere, zalantzarik gabe faktore selektibo bezala jokatatu duena kasu askotan.

Jadanik hirurogeitamarreko hamarkadan oso garrantzi handiko fenomeno bat dela gertatzen da ikastolen hazkundearena, ia Euskal Herriko bazter guztietara zabalduz eta ugalduz. (Ikus 2. laukia).

Oso garrantzi handikoa da, dudarik gabe, fenomeno-aldaketa hau. Alde batetik euskararen presentzia, hutsaren hurrengo zen leku haietan, hots, eskualde zeharo erdaldun eta apenas euskararen zantzurik hautematen den lekuetan, ikastolak irekitzen hasten dira.

Ikaslegoaren etengabeko ugaltze horrek badu zerikusirik hamarkada hartako egoera soziopolitikoarekin, eta hasierako euskarazko ikastolen aldaketa bat dakar berarekin. *Euskaraz* ikasteko sortu eta beren gehiengo handi batean haur euskaldunetz beteta zeuden ikastolak, beren lehen hizkuntza gaztelania duten haurrez asebetek gainezka aurkitzen dira gauetik goizera. Aldi berean, irakasleak berak izan ezik, beste inortxok ere euskaraz egiten ez duen lekutan ikastolak irekitzen dira. Azken batean, aldaketa



kuantitatiboa garrantzizkoa baldin bada, kualitatiboa benetan errotikoa dela esan behar da.

Hori gertatzen den bitartean, beste arrazoiaren artean eskea gero eta handiagoa delako, bi konpromezu hartuz joan da ikastola: haurrei *euskara* irakasteko bata eta *euskaraz* irakasteko bestea. Bere estrukturak eta planteamenduak, bigarren konpromezu horretarako prestatuak izanda ere, Zentru berrietara hedatzen joan ziren aldaketa edo egokiera handiegirik gabe. «Murgiltzeko» metodoekin jarraitu zen (horrela dei badaitezke ikasi nahi den hizkuntza irakasleak bakarrik dakieneko kasu horiek), lehenago aipatu dugun elebakarreko Zentruetako eskemekin eta lehendik zeuden ikastolek erabiltzen zituzten metodologia berekin.

Ez litzateke batere gizalegezko gauza izango datu guzti hauek aipatu eta garai hartako egoera soziopolitikoa isilik pasako bagenu. Ikastolek garai hartan zuten maniobratzeko ahalmen eskasa, gehien-gehienak «ilegalak» zirela kontutan hartuz gero bakarrik ulertzen da. Zentru zelatuak eta hankatrabatuak eskierki, euskara hizkuntza gaitzetsia deklaratu zuen botere diktatorialaren aldetik. Benetan zaila da guraso eta irakasle haien lana bere osotasun itzelean baloratzea, zeren egoera hain etsai batetan gaurko ikastolek eskaintzen diguten errealitate bizi hori eraiki bait zuten. Denbora heroikoak haiek, besterik ez esateko. «Ofizialtasunetik» at funtzionatzeak, ez laguntza, ez ikerketa eta ez unibertsitaterik gabe, zergati askoren erantzubidea ematen digu dudarik gabe.

Baina gure arlora itzuliz, azpimarra dezagun behin berriz, ikaslearen eta ingurunearen funtsezko aldaketa hark ez zuela ekarri estrukturen aldaketarik ez estrategia berri batzuren onarpenik, hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez behinipehin. Eta horrek, aurreko eskemak aplikatzen direla esan nahi du, orain ikastolara joaten diren haur asko eta asko gaztelaniazko elebakardunak diren bitartean. Haur horiek kasu askotan euskaldunekin nahasten ziren aukera guztietako portzentaitan, hasi gela bakoi-tzeko 2 edo 3tik eta %90 edo gehiagorainoxe, segun zein zonalde zen kasu. Eta hala ere, seguraski, metodologia bera erabiltzen zen kasu guztietan: «Murgilpen-metodoa» alegia.

Bigarren hizkuntza bat ikasteko beste faktore garrantzizko bat, gurasoak eta hauen motibazioa da. Horietako askok kon-

tzientzi maila eskasa baldin badute, esan beharrik ere ez dago beren militantismo—gradua oraindik ere eskasagoa izango dela; berorietako askok gainera modarengatik edo beste arrazoi sozialen batengatik bidaltzen dituzte beren haurrak ikastolara. Kontutan hartzen baldin badugu guraso hauetako asko erdaldunak direla edo ez dutela esfortzu handirik egiten beren famili giroan euskaraz egiteko, egoera ikusgarriro aldatu dela esan behar da.

Eta jakina, oraingo funtsezko faktorea, Zentru berrietako ingurunea, gaztelaniazkoa da hein handi batetan, eta hori soilik hizkuntza horretakoa ez denean, zeren, ikastola, bere gehiengo batean, 5.000 biztanletik gorako hirigunetan ematen den hiri-fenomeno bat bait da.

Azken urte hauetan, ordea, hasiak dira guzti horren ondorioa ikusten.

Haur euskaldunek, Zentru askotan, ez dute euskara esperetzen bezala ikasten. Areago oraindik, Zentru horien «pisu» soziolinguistikorengatik, haur euskaldunek ere gaztelania erabiltzera jotzen dute, eta ez alderantziz.

Bestaldetik, bigarren hizkuntza gaizki ikasteak sortzen dituen problemak ere ugariak dira, eta gero zerikusi handia dute euskara hutseko irakaskuntzan.

Egoera berri honek, bada, erreakzio desberdinak probokatuko ditu.

Irakasle —eta hezlari— talde jakin batzuek zalantzan jartzen dute kasu guztietara hiperjeneralizaturiko «tradiziozko» metodoaren baliagarritasuna eta birplanteamendu eta bide berrien azterketako korrante bat sortzen da batez ere haur erdaldunei euskara irakasteko edo euskalduntzeko orduan. Arazo horixe da, hain zuzen, ikastolak gaurregun duen larrietako bat.

### **3.2.2.— Antolamendu eta metodologiako problemak euskararen ikaskuntzan**

Ez da batere gauza berria ikastoletako haurrak eskolatzeko eredu desberdinak mugatu nahi izatea. Jadanik badira zenbait urte Zentru desberdinetako barne—eztabaidak hortik ibili direla.

Parentesi bat eginez, ez da orain batere une aproposa elebitasunaren definizio zehatz batetan sartzeko, baina hala ere beharrezkoa dela uste dugu kontzeptu horri eman nahi geniokeen zentzua argitzea. Elebitasuna, behin-behineko egoera soziolinguistiko bat bezala ulertzen dugu, desorekara jotzen duena; egoera dinamikoa, ez estatikoa, eta beraz bertan norabide bat eta helburu bat markatzea preziso dena. Zentzu honetan, alde batera utzi nahi ditugu laborategiko oreka utopikoak eta haurrak, ezer baino lehen, EUSKALDUNA (euskaraz bizi den pertsona) izatera iritsi behar duela defendatzen, eta, noski, gero egin dezala gaztelaniaz, frantsesez... eta beste edozein hizkuntzatan.

Horretarako, hil ala biziko gauza da hizkuntza horiek elkarren artean gaurregun mantentzen duten indarren koerlazioaren zeinua eta zentzua aldatzea. Eta hain zuzen ere, hortxe dago, arazoaren gakoa. Berebiziko garrantzia du hizkuntz borrokako kasu baten berezitasunak astiro aztertzeak, eta zer esanik ez euskararen karakteristiketako hizkuntza horietako bat besteak zeharo ordezkatzeko zorian aurkitzen denean. Ez dira hain erraz aplikatzen prestufasun internazional bat eta bizitasun frogatua duten, baina okupatzen gaituen bezalako egoeretan nahiko erlatibizatuak geratzen diren hizkuntzentzako printzipioak eta teoriak. Kasu honetan, bi hizkuntzen parekatze minimo bat lortzeko egin behar den bideak, benetan euskararen aldeko neurri apartak galdatzen ditu. Benetako elebitasuna, beraz, epe laburrera, ezinbesteko baldintza bat da eskal herriarentzat.

Aurretik generarren hariari helduz, eta dagoen eztabaidaren *gakoak* eta *koordinadak* laburbiltzeko ekinaldi ez hantusteegi batetan, ager genitzake funtsean metodologiaren eta antolamendua-  
ren aspektuei dagozkien puntu batzuk:

— Ikastola, zonalde desberdinen arabera, gehienbat hizkuntz giro ez-euskaldun batetik datozen haurrak hartzeko Zentru bilakatzearan, beren jatorrizko arrazoia zeharo aldatuz, helburuek ere aldaketa kualitatibo bat jasaten dute, zeren orain nahi dena, haur ez-euskaldunei euskara irakastea bait da. Lehenago ere aipatu den bezala, ikastolaren aldaketa kualitatibo hari ez zaio erantzuten hasiera batetan bederen estrategia eta plangintzen aldaketa batekin, eta horrek bi ondorio nagusitan konkreta litezkeen emaitzetara garamatza:

1) Bigarren hizkuntzaren ulerpen-maila on baina pasibo batetara.

2) Bigarren hizkuntzako adierazpen-maila eskas nabari batetara.

Emaitz horien konstatazioak, bertan eskuhartzen duten bariable batzuen analisisan pentsarazten digu:

— Alde batetik, ikastolak ingurune zeharo erdaldun batetan duen eragin eskasa seinalatu behar da, zeren ingurune horretan harreman afektiboetako tresna bakarra gatzelania bait da. Eta haurren kasuan, berriz, hau aplikagarri litzaieke jolasei, abestiei, imitazio-jokoei, etab...

— Esan den bezala, nabarmenki aldatu da beren haurrak ikasletan dituzten gurasoen jarrera ere. Eta aldaketa hori ez da batere euskararen ikaskuntzaren mesedetan izan. Oso aitzitik baidiz, subjektu pasiboaren pentsakera hedatzean, hau da behin haurra ikastolara bidaliz gero inolako konpromezurik ez eskuharmenik ez hartzean, benetan egoera larrigarrian jaitsi da gurasoen interesa. Haatik, oso aldagai garrantzitsua bezala frogatu da berorien aldetiko bigarren hizkuntzarekiko jarrera, gisa honetako edozein ikasketa-prozesutan. Euskarak pairatzen duen defentsa-falta eta ahuleziak egoera honetan, berebiziko garrantzia du famili ingurunearen laguntzak, haurrak eskolan irakasten diotena estimatua ikus dezan eta bere eguneroko bizitzarako baliagarritasuna ere froga dezan.

— Ikastolaren lehen hastapenetan, aurrerago ere aipatu den bezala, bigarren hizkuntza bat irakasteko kualifikazio teknikorik ez zegoen esateko batere. Boluntarismo izugarri batekin eta denbora —eta lan— dedikazio eskergarekin lan egiten zen, baina erreferentzia teoriko argirik gabe ordea. Uste zen, M. Lasak «sinplezia pedagogiko» deitzera eman duen bezala, aski zela 2-3 urteko haurrak, eskola-giro barruan, beste kualifikazio berezirik gabeko pertsona euskaldun batekin harremanetan jartzearekin, haur horiek bigarren hizkuntzan, kasu honetan euskarari, komunikazio-gaitasun bat erdiesten joan zitezela.

Lehen azterketa honetatik *ondorio* garrantzizko batzuk jaulkitzen dira:

- 1.— Alde batetik, premia biziko gauza bezala ikusten da bigarren hizkuntzaren metodologia bat sakondu beharra, ba-

liabide propiotan oinarrituriko didaktikarekin eta irakatsi nahi den hizkuntzara egokituz.

Metodologia, orain artekoan, erkidea izan da, hots, hizkuntzaren aspektu funtzional eta komunikaziozkoe-tan eta sustatu beharreko ikasketako mekanismoetan baino gehiago berorren kontzeptu gramatikalistan oina-ritu izan da.

Begien bistako gauza da une hauetan aspektu horie-tara itzuli beharreko premia, horretako gure esku dauden baliabide guztiak landuz eta erabiliz. Metodologiaren erreziklaiak, irakatsi beharreko hizkuntzaren funtzional-tasunerantz jo behar du inongo ezpairik gabe.

- 2.— Bestaldetik, ama-hizkuntza ere kontutan hartu beharreko premia sortzen da, eta balorazio eta tratamendu konkretu bat eman beharko zaio, helburu nagusizat eus-kara menperatzen duten haurrak hezteko irakaskuntzako plan orokorraren barruan. Kontutan hartu beharra dago zein hizkuntz ingurunetatik datorren haurra, ikastolako programak eta estrategiak erabakitzeko orduan. Ezin arriska gintezke haurrak bi «bigarren» hizkuntzarekin amaitzera. Horrela bada, ama-hizkuntzak erizpide dife-rentziatzaile bat izan behar du plan konkretuak erabaki-tzeko orduan. Horretxegatik ezarri dira, hain zuzen, beste txosten batetan aipatzen diren hiru eredu (A,B,D,) euskara haur erdaldunen ikaskuntzan sartu ahal izateko.
- 3.— Ahazten ez dugun arren ikastolaren eredu «klasikoa» D izan dela, B ereduaz gogoeta labur batzuk egingo ditugu, agian bera delako berriztatzaileena eta polemikoena. Bere oinarri teorikoei dagozkien puntuak aztertuko ditugu eta ez hainbeste hauen aplikazio konkretuak, zeren, oso era askotarikoa izanik, suberedu asko aurkezten bait ditu, eredu orokorra bera etxe, zona, edo irakasle-klaustro jakin batzuetara egokitu nahi litzatekeenez gero.

Elebiduna bezala ere ezagutzen den eredu hau, ondoko printzipio orokorretan oinarritua dago:

— Bi hizkuntzen erabilera, azken helburu bezala ko-

munikazio-gaitasuna eta O.H.O. amaitzerakoan bi hizkuntzen jabaria ezarriz.

— Pertsona desberdin bat hizkuntza bakoitzerako.

— Ama-hizkuntzak, batez ere irakurketa, idazketa eta matematika eta aditz-aspektuak eta prestakuntzako ariketetarako balio du.

— Euskara modu trinko batean lantzen da, hau da, helburu bezala hizkuntza bera eta honen estrukturak hartuz. Tratamendu trinko honetan, hain zuzen, metodologia argi eta oso estrukturatu bat galdatzen da. Baina gainerako gaiak ere euskaraz lantzen dira, bizikizun eta interes-gune duten guztia globalizatzen eta aprobetxatzen saiatuz, horrela bigarren hizkuntza egoera berrien eta gaien arteko erlazioen ezagupeneko experimentazio-bide bat bilaka dadin.

Gaurregun, irakaskuntza elebidunari buruzko kontzeptzio honek izugarritzko eztabaida sutsuak sortzen ditu, baina arlo profesionalera eta emaitzen baloraziora eramaten baldin badira, oso fruitu onuragarriak eman behar dituzte euskararen berreskurapen efektiborako.

- 4.— Irakaslegoaren militantismoa galduz doan abiadura be-rean, zeren benetako krisialdi batetan aurkitzen bait da hori ere, teknikoki hobeto gaituak dauden profesionalen beharra somatzen da eta hori hizkuntzaren irakaskuntzari dagokion puntuan batipat.

O.H.O.ko irakasle-eskolak lehen aipatu dugun egoeran aurkitzen direnez gero, gero eta premiazkoagoa gertatzen da Zentru horien erreforma, euskaraz hezitako irakasle-kopurua haz dadin eta hizkuntzen didaktikan ere ongi presta daitezten.

Gaurrengun egoeraren hobakuntzak, bestalde, eskola eta ikastolen zama eramaten duten eta beren lana behar bezala egiteko medio eta formazio egokien faltan aurkitzen diren milaka irakasleen erreziklaia planteatzen

du nahi eta nahi ez. Ez da aski euskara jakitearekin, jakin behar da irakasten ere.

### 3.2.3.— Ondorioa

Kontutan hartu beharra dago, orain artekoan eginak ez duela lortzen gure hizkuntza suntsitzeko dauden bildurrak uxatzea. Administrazio publikoari dagokio euskararen berreskurapena planifikatu eta berorri seriotasunez ekitea, egundainokoan erakutsi duen baino oldar handiagoarekin asumitu beharreko erantzunkizuna eskierki.

Agian gaurregun erortzen garen hutsegiterik handienetako bat, haur bat «euskalduntzeko», eskolarekin aski dela pentsatzea litzateke. Horixe uste dutela ematen du guraso askok eta Administrazio publikoak. Une honetan eskola bakar-bakarrik eta inolako laguntza-motarik gabe aurkitzen da «euskalduntzeko» zereginaren aurrean. Eskolak haur bati, eta hori zirkunstantzia konkretu batzuk betez gero, hizkuntza erabiltzeko halako nolabaiteko gaitasun bat baino zerbait gehiago emango diola uste izatea, txakur-amets bat besterik ez da. Hortxe dago Irlandaren adibidea hizkuntza bizi bat ez dela eskolan egiten frogatzeko, aintzat hartua izateko eduki behar dituen funtzio guztien erabileran baizik. Eskolak biltzen duen ingurunearen, komunikabideen eta abarren abandonu sistematikoak, euskara berriz ere beste «ghetto» batean, eskolako gelan, isolatzera garamatza. Eskolak ezin dezake berak bakarrik eta ingurunearen presiorik gabe, hizkuntza eskolaz kanpo erabiltzeko premia funtzionalik gabe euskaldundu.

Ikastolari berez gagozkiolarik, planifikazio eta esperientzia piloto-gabezia azpimarratu behar dugu hemen, eta orobat elebitasunari buruzko ikerketaren eta bigarren hizkuntzen ikasketaren sustapen-falta ere. Irakaslegoaren boluntarismoari uztaitua jarraitzea, edota jadanik kimatuak diren esperientziak une honetan beren gisara uztea, benetan makurra eta barkaziorik gabea izango litzateke.

Hala ere gaur egun ikastolak gehien kezkatzen dituen, etorkizun hurbil batean berekin zer izango den litzateke, agian, eta horrek badu zerikusirik elebitasunaren problematikarekin projektu

berriei ekiteko orduan, bigarren hizkuntza ikasteko gela bakoitzeko haur-kopuru jakin bat segurtatzeko, etab...

Hauxe da azken batean gaur egun ikastolei planteatzen zaien erronka. Premia biziko gauza da guretzat, une honetan, gure emaitzak experimentatu eta kontrolatzea, euskararen ikaskuntzako antolamendu eta metodologi arazoak behar den laguntza eskuratuz gero egunen batean argituko diren segurtasunarekin.

### **3.3.— Euskaraz inprimatutako eskola-materialaren garapena eta gaurrengungo egoera**

Euskararen irakaskuntzako egoera baloratzeko orduan ezaguri adierazkorrenetako bat euskaraz inprimaturiko eskola-materiala da guretzat, inondik ere. Hori erakusteko, bi zatitan banatuko dugu apartatu hau:

- 1) Euskaraz inprimatutako eskola-materialaren garapena.
- 2) Gaurrengungo egoera: abiatu den fase berri bat.

#### **3.3.1.— Euskaraz inprimatutako eskola-materialaren garapena.**

Joan M. Torrealdaireren «Euskal idazleak gaur» liburuan jasotzen den bezala, 1937.etik 1976.era bitartean argitaratutako liburuen zerrenda —eta gero autore berak JAKIN aldizkarian ondorengo urteetan gaur egunera artekoan osatu izan duena— aztertzen baldin badugu, bereiz genitzake ondoko faseok textu-liburuaren desarrolloan:

1. Fasea: 1937–1965
2. Fasea: 1965–1974
3. Fasea: 1974–1980

Fase desberdin horien analisisan sartu aurretik, etenaldi labur bat egin behar dugu eskola-material inprimatuaz zer ulertzen dugun definitzeko.

Eskola-material inprimatuaren kontzeptua nahiko lauso eta



zehaztasun gabea gertatzen da besterik gabe, zeren printzipioz edozein liburu, aldizkari, egunkari, etab.ek balio bait dezake noiz edo noiz eskola-irakaskuntzako tresna bezala. Eskola-material inprimatua esaten dugunean, ordea, zera ulertzen dugu: aurretiaz erabakitako irakaskuntz programa bati zuzenean erantzuten dion textu-liburua edo eskuliburua, eta kontzeptu horren barruan sartzen dugu baita, irakaskuntzaren programazio bati zuzenean erantzuten dion edukin-zerrenda ordenatu bat gertatzen ez bada ere, programatutako ikasketak erdiesteko baliagarri edo ezinbesteko gertatzen den eskola-material osagarria ere.

Zentzu honetan, zehazgabetasunei ahal den neurrian itzuri egitearren, Eusko Jaurlearitzaren Hezkuntzako Kontseilaritzak erabilitako sailkapena hartzen da lan honetan, eta, laburbilduz, honako apartatu hauek jasotzen ditu sailkapen horrek:

- 1.— Eskolako eskuliburuak.
- 2.— Textu-liburu osagarria:
  - Kontsultako liburua
  - Mapak eta hormirudiak
  - Neurketako materiala: testak...
- 3.— Irakaslegoaren prestakuntzarako liburuak eta aldizkariak.
- 4.— Haur-literaturako liburuak eta aldizkariak.

#### 1. FASEA: 1937-1965

Fase honetan argitaratu edo berrargitaratutako liburuen kopuru osoa 408koa da, eta hauetako 36, hau da %9, kontsidera daitezke sailkapen honen barrukoak bezala.

Irakaskuntzarekin zerikusirik duen euskarazko liburuaren produkzioa hauxe da:

- 16 kristau-ikasbide
- 9 euskal gramatika
- 6 euskara ikasteko metodo
- 5 hiztegi.

Ikus daitekeen bezala, liburu hauen edukina Erljioaren eta Euskal Hizkuntzaren irakaskuntzatik dabil. Haurrek pentsatzen duten edo behintzat erabiltzen duten material bakarra, kristau-ikasbideak dira.

Ez da batere harriztekoa oraindik testu-libururik ez haur-literaturakorik ez argitaratzea, zeren ikastolen mugimendua 1960.ean sortzen bait da (3 ikastolarekin) eta 1965.ean 29 ikastola bakarrik zeuden, gutxi gorabehera 700 ikaslerekin.

## 2. FASEA: 1965-1974

Euskaraz argitaratu edo berrargitaratutako liburuen guztizko kopurua 582koa da, eta hauetatik gutxi gorabehera 117, hau da %20, jadanik definitu dugun testu-liburuaren sailkapenean sartzen dira.

Lehen fasearen aldean bigarren hau karakterizatzen duena, eskola-material inprimatuaren abiada da. Fase honetan, 2, 3, eta 4. apartaduetan sailka genitzakeen haurrentzat eta hezkuntzara zuzenduriko liburuak eta aldizkariak agertzen dira. Oraindik hurbi-lagotik aztertzen badugu fase hau, bereiz ditzakegu bi etapa:

### a) 1965.etik 1971.erako etapa:

Denboraldi honetan haur-literatura eta eskola-material osagarria sortzen da.

Haur-literaturari dagokionez, Bilboko San Anton euskal katekesia Fedro eta Esoporen alegiak eta Perrault eta Andersen-en ipuinak euskarara itzultzen hasten da 1965.ean. Hurrengo urtean, 1966.ean, eta euskal katekesi beraren babesean, «Kili-Kili» haur-aldizkaria jaiotzen da, haur euskaldunak alfabetatzeko xedearekin, zeren oraindik ere apenas bait zegoen euskal eskolarik.

Eskola-material osagarriari dagokionez, berriz, Timun Mas argitaletxeak 1968-71 bitartean argitaratuko duen «Margo Ederdun Entziklopedia»ren 14 tomoen itzulpena izango da garai honetan desarroilatuko dena.

Ohar gaitzen, bestalde, ez dela lan originalik argitaratzen, itzulpen soilak baizik.

b) 1971–74.eko etapa:

Aldi honetan ere jarraitzen da itzulpenekin, baina batez ere azpimarratu beharrekoa, ikastoletako irakasle–talde organizatuen sorkuntza–lan originalaren hastapena da; eta horren parean hainbat euskal argitaletxe sortzen dira.

Kontutan hartzekoa da 1968–69 aldera Gipuzkoako ikastoletan eta era organizatu batetan sortzen den *gordailu* ikastoletako lehen irakasle–taldearen aportazioa. Hemen arduratzen gaituen gaiari begiratuta berriz, eta irakasle goa prestatzeko kezkarri erantzun beharrez, Rosa Sensat taldearen argitalpen batzuk eta Celestin Freinet–en beste liburu batzuk euskaratzen dira, ikastolen hastapenetako planteamendu pedagogikoetan duten intzidentzia ikaragarriaren garrantziko erreferentzia bat bezala. Baina talde honen aldetik, bere sorkuntza–lana azpimarratu beharko litzateke oso bereziki. Kontsultako liburuska monografiko–bilduma bat argitaratzen dute hiru gaitan banatuta: geografia, historia eta natur zientziak/gizarte–zientziak.

Eta honi buruz aipatu beharreko beste puntu bat, euskal argitaletxe berrien agerpen naharoa da: *Lur* (1969), *Etor* (1970), *Iker–Cinsa* (1972), *Gero* (1973), *Kardaberaz* (1974)...

Bi hitzetan esateko, 1965–75eko fase honetan itzulpeneko eta batez ere sorkuntza propioko haur–literatura eta eskola–material osagarria hartzen hasiak diren garrantzia, eta orobat euskal argitaletxeen ugaltzea, ulertu nahi baldin bada, oso kontutan eduki beharko da Euskal Herriko textuinguru sozioekonomiko, politiko eta kultural orokorra; baina eboluzio guzti hori ikastolaren hazkuntzarekiko lotu–loturik aurkitzen da konkretuki: 1965.ean 29 ikastola zeuden (596 ikasle), 1970.ean 103 ikastola (11.885 ikasle) eta 1974.ean, 154 ikastola (26.936 ikaslerekin).

### 3. FASEA: 1974–1980

Fase honetan ezaugarri nagusienak izango lirateke, euskarazko

eskola-material inprimatuak oro har lortzen duen garrantzia eta batez ere fase honetan hasten dela eta desarroilatzen textu-liburua, euskarazko eskola-eskuliburua.

Denboraldi honetan argitaratu edo berrargitaratuak izan diren liburuen guztizkoa 1.147ra iristen da. Horietako 685, hau da, %59, textu-liburu bezala definitu dugunaren barruan sartzen dira. Agian erlatibizatu egin beharko litzateke zifra horien zehaztasun osoa, zeren sailkatzeko orduan, haur-literaturaren eta nagusiengana destinatuturiko literaturaren arteko mugak xehetasunez finkatzea ez bait da batere erraza, eta gauza bera esan daiteke eskola-material osagarriaren kontzeptuan sartu dugun liburuari buruz ere. Hala ere, xehetasunen sasia galtzeko bildurrik gabe, begibistan dago irakaskuntzarekin erlazionaturiko liburuak gero eta garrantzi handiagoa duela aldi honetan argitaratutako gainerrako liburu guztien aldean:

1. Fasea: 1937-65, gutxi gora behera %9.
2. Fasea: 1965-74, gutxi gora behera %20.
3. Fasea: 1974-80, gutxi gora behera %59.

Azken fase hau xehetasun zorrotzago batez aztertzen baldin badugu, irakaskuntzarekin erlazionaturiko liburuaren garrantzia gero eta handiagoa (gehiegizkoa?) dela frogatuko dugu argitaratutako beste liburuen konparazioan: 1974.ean, %37; 1980.ean, %81 gutxi gora behera.

Hirugarren fase honen karakteristika nagusienetako bat, euskarazko textu-liburua bertan hasi eta desarroilatzea izan dela esan dugu. Ikastolaren hastapenetan, irakasleen eta ikasleen kopurua nahiko murrizta zenez gero, eta irakaskuntza oraindik beheko mailatan zentratzen zelako, irakats zitekeen textu-liburuen ezinbesteko premiarik gabe. Ikastola bakoitzak antolatzen zituen bere programazio propioak edota eskualde-mailatan elkartzen ziren behar erkideei erantzuteko helburuarekin. Jokabide honek, ordea, teorian ideala badirudi ere, bazituen bere eragozpenak praktikako orduan. Izan ere, ikasleen eta irakasleen kopurua gero eta handiagotzen eta O.H.O.ko goren mailak azaldi berriez hornitzen zihozaz neurrian euskarazko textu-liburuen beharra ere egunean baino egunean nabariagoa gertatzen zen alde gutzietatik.

Zentzu honetan aipatzekoa da Ikastolen Federazioek Gipuzkoakoaren bulkadarekin egin duten lana, zeren honek bere gain hartu bait zuen eginkizun eskerga hori ekonomikoki mentsa besterik ez zuelako beste inortxok ere leporatu nahi ez zuen garai haietan, nahiz eta gero errentagarri askia gertatu den, zerbitzuaren ikuspuntutik begiraturaz gero. Hasiera batetan, irakaslegoarekin bilera-sail bat egin ondoren, argialetxe espainolekin harremanetan jarri zen Ikastolen Federazioa. Horrela epe labur baten buruan Matematika eta Experientzi arloetako materiala eskaintzeko moduan aurkitu ziren momentuko behar premiatsuenei erantzun ahal izateko. Alabaina, itzulpen haiek parte batean bakarrik erantzuten zioten ikastolen eskeari: alde batetik, planifikazio koherente bati erantzuten ez zion material sakabanatu bat zen, eta bestetik ikastoletatik eta ikastoletarako material baten prestakuntza inposatzen zen.

Ikastolen parean argialetxeak eta lan-taldeak zeuden. Jatorrizko lanak sortzeko zentzu honetan, aipatzekoak dira lehenago ere seinalatu dugun *Gordailu* taldea eta batez ere *Saioka* taldea. *Saioka* taldea da planteamendu pedagogiko eta hautabide metodologiko batzuetatik abiatzen den bakarra, eta printzipio horiei koherentzia osoarekin jarraituz, O.H.O.ko 8 ikasturteetako textuak eskaintzen ditu. *Saioka*-ren liburuak izan dira erabilienak eta oraindik ere hala jarraitzen dute euskarazko oinarritzko irakaskuntzan. Zerbait geroxeago *Elhuyar* taldea sortzen da, eta honen ardurarik behinena euskara zientzien arlora egokitu eta bertan erabiltzea izan da. Eta horrek, jakina, Matematika inguruko textu-liburuak lantzerantz eraman ditu. Benetan azpimarratzekoa da B.B.B. eta L.H. bezalako erdimailako irakaskuntzetarako textu-liburuak prestatzen egin duen lana, arlo zientifiko eta teknikoetan beti ere. Gero, ezin ahaztuko dugu *Gero*, *Erein*, *Hordago*... bezalako beste argialetxeek egin duten lana ere.

Hirugarren fase honetan izugarritzko lana egin da eskolako eskuliburuaren sorkuntzan, O.H.O.ko premiazko beharrak betez eta Eskolaurreko eta erdimailako —bereziki B.B.B.ko— irakaskuntzako lehen premiei erantzuteko.

Ikastolek fase honetan izan duten zerikusia argi baino argiagoa da, eta hori ez merkatu bezala bakarrik (1975.ean 160 ikastola eta

## 7. GRAFIKOA

EUSKARAZKO LIBURUAREN ETA EUSKARAZKO TEXTU-LIBURUAREN EBOLUZIOA ETA KONPARAZIOA (1937-1980)



33.851 ikasle zeuden, eta 1980.ean 243 ikastola eta 65.273 ikasle), baizik eta baita euskarazko textu-liburuaren sorkuntzan eta sustapenean protagonista eraginkor bat bezala ere.

### 3.3.2.— Egungo egoera: jadanik hasia den fase berri bat

Azken denbora honetan zeharbidez bada ere textu-liburuan intziditzen duten zirkunstantzia-sail bat ematen ari da eta, zirkunstantzia horien eraginez, textu-liburuaren orain arteko mugimendu-koordinadak errotik aldatuz doazela dakusagu. Aipa ditzagun aldaketa horiek, telegrafi moduan besterik ez bada izango ere:

— Beren ama-hizkuntza gaztelania duten gero eta haur gehiagoren ikastolarako joera. Orain arte bakarrak bezala erabili izan diren murgilpen-metodoak krisialdian erortzea. Bigarren hizkuntzaren ikaskuntzan metodo trinkoak erabili behar diren konbenzimendua.

— Elebitasunaren Dekretuz geroztik (1979) eskola estatalak eta pribatuak «euskararen» irakaskuntzan piska-piskana integrazten joatea, eta, oraindik urrats bildurtitan bada ere, «euskarazko» irakaskuntzari ekitea. Euskarazko textu-liburuaren erosle potentziala dezente ugaltzen da.

— Eusko Jaurlaritzari hezkuntzako konpetentziak eskuratzea.

— Hezkuntzako programen berrikuntza, Hezkuntza- eta Zientzi Ministraritzaren aldetik obligaziozko edukinak eta ordu-tegi minimoak erabakiz. Berorien desarroiloa Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntz Kontseilaritzaren partetik. Programa Berrituei erantzungo dien eskola-materiala sortu beharra.

— Euskarazko textu-liburuari laguntza ekonomikoa emateko politika, lehentasunak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntzako Kontseilaritzak eta Diputazioek erabakiko lituzketelarik.

Zirkunstantzia guzti horien ondorioz, bada, euskarazko textu-liburuaren panorama aldatzen ari da:

— Atera dira jadanik merkatura beren ama-hizkuntza gaztelania duten hurrek euskara ikasteko metodoak (B eredu).

— O.H.O.ko haurrentzat ere atera dira euskarazko metodoak (A eredu).

— Argitaletxe espainolek interes handia agertzen dute euskal merkatuan sartzeko.

Textu-liburuen eta eskola-material inprimatuaren kopurua izugarri ari da ugaltzen.

#### IV.— IKASTOLEN INSTITUZIONALIZAZIOA

##### 4.1.— Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastolak

Behin Eusko Kontseilu Nagusia eratu zenez geroztik, ikastolen instituzionalizazio-prozesuari ekin zitzaion eta hauetako gehienek sinatu egin zuten Titulartasun Akademikoaren Lagapen-Arautegia, 1980.eko Otsailean.

Eta Eusko Jaurlaritza eratu ondoan, Ikastolen Konbenioa sinatzen da, 1980.eko Urriaren 4ean, Hezkuntza-Sailaren eta Hezkuntza- eta Zientzi Ministraritzaren artean. Konbenio honek guxieneko bi urteko iraupena zuen. Konbenio honekin eta Ikastolen Titulartasun Ofizialeko Arautegiarekin, momentuko behar premiazkoenei erantzuten zitzairen, ikastolen garapena eta bero-rietako irakaslegoaren egoera segurtatuz eta nahi zen eskola-tipo berri horretaranzko aldaketari ekinez.

Lehen urrats horretatik hasita, hainbat erdiespen garrantzitsu lortu da:

— 1.738 gelaren administrazio-egoera erregulatu.

— Beharrezko titulaziorik ez zuen irakaslegoaren egoera akademikoa erregulatu.

— Jadanik martxan zegoen gestio demokratikoa legeztatu eta obligaziozko bezala ezarri, guraso, irakasle eta erakunde publiko bezalako estamentu desberdinek Gobernuako Organoetan parte hartuz.

— Ikastola eta eskola nazionala bezalako bi eredu desberdine-



kin bi zentru mantentzea ezinezkoa zen herri txikietan berorien batasuna bultzatu.

Ikastolen Titulartasun–Arautegiaren aplikazioak ondorengo erreglamentu–garapen bat galdatu du, Arautegi horretako egoera desberdinak errealismoz begiratu ahal izateko. Horretxan ondorio dira:

- Titulartasun–Arautegiaren xedapen osagarriak (80.12).
- Gobernuako Organoetarako ordezkartza publikoaren izendapena (81.10).
- Mantenimenduari buruzko arauak, Udaletara bidaliak (81.10).
- Ikasleen matrikulazioari buruzko arauak (1981–82).
- Irakasleen leku–aldaketari buruzko arauak (1981–82).
- Eskola–antolamenduko koadroen arauak eta berorien onespena (1981–82).
- Irakaslego berrian sartzeko gaitasun–frogak (1981–82).
- Datu administratibo, akademiko eta ekonomikoen eskera (1980–81–82).
- Funtzionamendu–arauak ikasturtearen hasierarako (82.04).

Guzti honek zera suposatu du bost urteko denboraldi batean, ikastola batzuek irakaskuntza pribatua bezala jasotzen zuten subentziotik 1982.ean 3.100 milioiko kopurura pasatzea alegia. Hala ere, denen artean egin den esfortzu itzela ez da behar hainbatean ordaindua geratzen; 1982.eko subentzioak, gelaka, era honetan banatzen dira:

Eskolaurrea .....	972.000
O.H.O.....	1.487.812
B.B.B. – U.B.I. ....	1.944.000
Zuzendaritza .....	1.449.809
Hamarna gelako laguntza gehigarria.....	403.455

O.H.O.rako subentzioa Zentru pribatuetarakoaren baliobere-

dinekoa da eta ez ditu estaltzen irakaskuntzako benetako kostuak, Eskolaurre eta B.B.B.rakoek ere estaltzen ez dituzten bezalaxe.

Ikastolak sekulako finantz kargarekin aurkitzen dira egin izan dituzten inbertsioen ondorioz eta ez dute erantzun egokirik jasotzen dagozkien erakundeetatik, eta oraindik ere gurasoen sakelak arras gogor zigortu beharrean aurkitzen dira.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza-Sailak iragan-une hau Ikastolen Estatutu batekin amaitu nahi luke. Projektu bezala elaboratzeko orduan legearen aldetik oztopo nahiko garrantzitsurekin aurkitu delako desio zen eta aurrikusten zen egutegia dezente samar atzeratu duen Estatutu hori, Euskal Parlamentura bidaliko da luzaro baino lehen.

#### **4.2.— Nafarroako ikastolak**

Nafarroako Ikastolen Federazioaren aldetik etengabeko eskakizun bat den arren, une hauetan ez dute oraindik ikastolen instituzionalizaziorako projekturik, ez Elebitasun-Dekreturik, zeren nola Foru-Diputazioak hala Hezkuntza- eta Zientzi Ministraritzak ez bait dute deus ere jakin nahi problema honetaz.

Euskara Administrazioaren aldetik zeharo abandonatua dagoela eta Diputazioak ikastolen titulartasuna bere gain hartzeko borondatea hutsaren hurrengo dela frogatzeko esango dugu, hainbat herritako Udalak munizipaltzen ari direla beren eskumeneko ikastolak.

Bestalde, badaude ikastola batzuk legeztatu gabe, behar duten espazio fisikorik ez dutelako. Eta jakina, legeztatu gabe daudelako, ez dute subentziorik jasotzen, eta horrelaxe dabilta tira eta tira gurpil zoro baten zorabioan. Oztopo guzti horiek, jadanik diktaduraren denboretan legalitatearen aldetik etorri izan direnak dira, eta Nafarroan oraindik gaur ere zutik eta indarrean jarraitzen dutenak, Ikastolaren garapena ahal adinean galerazteko.

#### **4.3.— Ipar Euskadiko ikastolak**

Frantziako Alderdi Sozialistaren hauteskunde-kanpainak eus-

karazko irakaskuntzari zegozkion eskubideak errespetatuak izango ziren itxaropen sortu zuen Ipar Euskal Herriaren bihotzean. Zera esaten zen kanpaina horretan: «Bere hizkuntza propioa duen Herri orok, berori erabiltzeko, bere seme-alabak hizkuntza horretan hezteko eta bere kultura erakusteko eskubidea du. Behin eskubide hori errekonozituz gero, inolako eztabaidarik gabe errespetatua izango da».

Eta hauteskundeak Mitterrand-ek irabazi zituen. Baina Seaska, Ipar Euskadiko Ikastolen Federazioa, mila eta gehiago erataraz errebendikatuz eskubide horren errekonozimendua eta berorren aplikazioa gestionatu nahian ibili den arren, ez da inolako emaitza baikorrik lortu izan. Egun, honako puntuotan zertzen da errebendikazio hori:

— Euskarazko hezkuntza legeztatea irakaskuntzako maila guztietan.

— Euskarak pairatzen duen egoera diglosikoa denez gero, har daitezela hizkuntza hori berreskuratzeko neurri bereziak.

— Behar diren neurriak har ditzakeen batzorde bat eratzen den bitartean —eta Seaskak ere batzorde horretan parte hartu beharko luke—, diru-laguntza (erakunde honen bitartez) Ikastolaren desarroilorako.

---

## LAUKIEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Laukia: Ikastolen sorkuntza-urtea eta berorien kopuruaren eboluzio akumulatiboa
2. Laukia: Ikaslegoaren eboluzioa, eskolurteka
3. Laukia: Ikaslegoaren egoera, adinka (1981-82) ARABA
4. Laukia: Ikaslegoaren egoera, adinka (1981-82) GIPUZKOA
5. Laukia: Ikaslegoaren egoera, adinka (1981-82) NAFARROA
6. Laukia: Ikaslegoaren egoera, adinka (1981-82) BIZKAIA
7. Laukia: Ikaslegoaren egoera, adinka (1981-82) IPAR EUSKADI
8. Laukia: Ikaslegoaren egoera, adinka (1981-82) ORO HAR
9. Laukia: Ikastoletako Eskolaurreko ikasle-kopuruaren ugaltza (1975-76tik 1981-82ra)

10. Laukia: Eskolaurreko ikasleen kopurua (1981–82), Eskola estatal, pribatu eta ikastoletan

11. Laukia: O.H.O.ko ikaslearen kopurua (1975–76), Eskola estatal, pribatu eta ikastoletan

12. Laukia: O.H.O.ko ikaslearen kopurua (1981–82), Eskola estatal, pribatu eta ikastoletan

13. Laukia: Ikastoletako pertsonal irakaslearen titulazioa (1975–76/1981–82)

14. Laukia: «Eskolako Graduatu» tituluaren lorpenaren konparazioa: Ikastolak – Estatuko batezbestekoa (80–81).

15. Laukia: Azken ebaluazioa (1981–82ko Ekaina)

16. Laukia: Guttiegiko asignaturen ehunekoa (1981–82)

17. Laukia: O.H.O.tik Erdimailako Irakaskuntzarako irteerak (1981–82)

1. Grafikoa: Eboluzio konparatua: ikastolen kopurua – ikasleen kopurua

2. Grafikoa: Ikasleen kopuruaren egoera, adinka edo mailaka (1981–82)

3. Grafikoa: O.H.O. eta Eskolaurreko ikasle–kopuruaren egoera eta eboluzioa

4. Grafikoa: Azken ebaluazioa (1981–82ko Ekaina)

5. Grafikoa: Guttiegiko asignaturen ehunekoa (1981–82)

6. Grafikoa: O.H.O.ko errepikatzaileen ehunekoa (1981–82)

7. Grafikoa: Euskarazko liburuaren eta euskarazko textu–liburuaren eboluzioa eta konparazioa (1937–1980)

**Xabier Garagorri**

Gipuzkoako Ikastolen Elkarte

**Feli Arbizu, Edurne Egilior, Josu Sierra**

Bizkaiko Ikastolen Elkarte

**Felix Ormaetxea, Julian Serrano**

Arrasateko Hezibide Elkarte

**Antton Kaifer**

Arabako Foru–Diputazioaren Euskarazko Zerbitzua

## EIKE ETA EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

*Euskal Eskola Publikoaren arazoa, arazo ezin gaurkoagoa eta garrantzi bizikoa dugu. Guztion ahotan dago une honetan. Izan ere, orain hautatzen den bideak luzarorako markatzen gaitu.*

*JAKINek, garrantziaz jabeturik, gaurkotasunari sakontasuna eskaini nahi dio: arazoa argitzen lagundu nahi du. Datorren zenbakiko gai nagusia Ikastolari eta Eskola Publikoari eskaintzen die. Bi zati ditu, beraz, dossier honek. Lehen, Ikastolaren garapena eta egoera (ikasle, irakasle, gela, lege, textu aldetik), deskribapen mailan burutua; Ikastolaren historia, nolabait esanda. Eta bigarrena, etorkizunari begira, euskal irakaskuntzaren normalizazioa, EIKE proiektua tarteko dela.*

*Sinetsirik gaude etapa berri batetan (edo aldi berri baten atarian) gaudela. Bere jatorrizko hezkuntz, hizkuntz eta kultur bokazioari erantzun jatorra emateko garapen handia behar du Ikastolak: behar beharrezkoa da eskola estatal eta*

pribatuen partehartzea. Lehen parteko txostenean bertan oso egoki esaten zaigunez:

«Argi dago eskola estatalen eta pribatuen partaidetzarik ausartena beharko dela baldin eta ikastolei bizia eman zien helburu funtsezkoenetako batekin, Euskararekin eta Euskal Kulturarekin berreskurapen eta sustapenarekin, kunplitu nahi bada. (...).

*Ikastolek bakarrik ezin dezakete beren gain har berreuskalduntzearen barruan eskolari dagokion eremu guzti hori. Horregatik bada, begibistan dago ze, Ikastetxe-tipo bakoitzaren berezitasunen gainetik, Euskal Herria berreuskalduntzeko borondate suharrari erantzungo dion Euskal Eskola sortzeko helburu erkidea ezartzen dela hemen».*

Ikastolaren normalkuntzaren bidean gertakari erabakiorra *Euskal Ikastolen Erakundea*-ren (EIKE) sorrera da (1982ko abenduaren 6an aldizkari ofizialean argitaraturiko proiektua). Lege-egitasmo honek bazterrak harrotu ditu: era askotako posizionamenduak, inoiz arras kontrajarriak, agertu dira ikastolen etorkizuneko egoera juridikoari buruz. Honela sailka genitzake jarrerok: batzuk bi sare proposatzen dute, eskola transferituena eta ikastolena; beste batzuk sare bakarra nahi dute; baina hauen artean ere bada alderik: sare hori orain bertan eskatzen dute batzuk; beste batzuk, aldiz, integratze-prozesu baten ondorioz ikusten dute ikastolen eta eskola transferituen bateratze hori. Doantasuna, doantazuna eta kitto, eskatzen duenik ez da falta.

Han eta hemen agertu diren proposamenak, denak ez bada gehienak, JAKINek ezagutzen ditu. Gure irakurleak ere baietz uste dugu. Ez ditugu, horregatik, hemen errepikatuko.

Proposamenak oro bere horretan errepikatu ordez, beste formula hau egokiago iruditu zaigu: puntu horietako batzu argitzea, osatzea eskatzen diogu talde bakoitzari. Izan ere, proposamenak, proiektuak, deklarapenak, eritziak irakurri eta gero, hainbat puntu ez dugu argi ikusten, edo eztabaidagarri iruditzen zaizkigu, edo joerazko arriskuak ikusten dizkiegu, edo oposizioaren aldetik garraski erasoak eta salatuak dira. Talde zein alderdi bakoitzari, bada, argitasunak eta zehaztasunak eskatzen dizkiogu puntu horiei buruz.

*Deabruaren abokatuarena eginez gátoz, esan obi den bezala.*

*Galdesorta honen bidez, ahalik eta informazio argiena eskaini nahi dio JAKINek bere irakurleari. Eta edozeini, elkarrizketarako plataforma egoki bat.*

*Prozedurari dagokionez, egin ditzagun ohar batzu, denei berdinak.*

*Galdesorta idatzi baten arriskuak ezagutzen ditugu. Hots, erantzuleak, nahi duenean, aise alde egin dezakeela; ihes: galderari ez erantzunez edo, berdin dena, oso aidean eta hitz biribilez arrapostua emanez. Erregu bat, beraz, honetatik libratzeko: izan zaitezte zehatzak, konkretuak, zuzenak, artezak, erantzuna ematerakoan. Eta, bigarren erre-gua, galdera guztiei bana bana erantzun diezaiezuela.*

*Zuen erantzuna 5 orrialde edo 150 lerrotan laburbildu behar duzue. (Luzeago idazten duenari laburketak egitea gure esku dago, gisa denez). Maiatzaren 15erako eskuratu nahi genituzke erantzunok.*

*Joan Mari Torrealdai  
Zuzendaria*

*P.S.: Galdesorta hau honako erakunde, alderdi eta tal-deei bidali diegu: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, EAJri, HBri, EEri, PSEri, Federazioei, Irakasleen Elkartei. Ez zaizkie denei galdera berak egin, bakoitzaren ikuspe-giari egokitzen saiatu bait gara.*

## EUSKO JAURLARITZAREN erantzuna

1. a) «Euskal Eskola Publiko *bakarra*» nahi duzuela irakurri dugu. Halere, bi sare mantentzen edo sortzen dituzue. Zergatik eta zertarako?

b) Euskal Eskola Publiko hori lehenbailehen nahi omen duzue. Baina ezin omen da orain oraingoz. Zergatik ezin da orain bertan? Zeintzu dira oztopo nagusiak? Eta noiz izango da ahalgarri? Alegia, sare bakar hori lortzeko zein politika, hots, bideak, epeak, markatuko dituzue?

Euskal Eskola Publiko bakarra nahi dugula irakurri duzunean, orain dela hiru urte Eusko Jaurlaritzaren egitامuan esaten genuena berriro esana besterik ez duzu irakurri. Garbi azaltzen genuen Euskal Eskola Publikoaren proiektu autonomoa eraikitzen joan behar genuela, eta orain gauza bera diogu: hemen oinarritutako proiektua osatu behar dela, Euskal Herriari dagokion eskola eraiki behar dugula, gure herriaren ezaugarriak, aberastasunak, berezitasunak oso kontutan hartuko dituen eskola, gure herritarrek benetan interesatuko eta bertan partehartzera bultzatuko dituen eskola egin behar dugula; hori adierazi nahi dugu Euskal Eskola Publikoa esaten dugunean.

Horrelako eskola egiteak, ezaugarri eta antolaketa propioa, irakaslegoaren egoera egokia eskatzen du, beraz Eusko Legebiltzarrek proiektu autonomoa legeztatzea eta bertako funtzionarien gorputzak eraikitzea eta erregulatzea exijitzen du.

Baina proiektu horretara iristeko ez gara hutsetik hasten, ego-



era konkretu batetik baizik. Gaurko errealitateak, transferitua izan den eskola publikoa eta ikastola hor daudela erakusten du, bi eskola arrunt desberdinak, bateratu behar direnak Euskal Eskola Publikoa egin nahi bada. Bateratzeak, aldatzea eskatzen du. Ikastola alda genezake; baina eskola publikoa, nahiz eta funtzionalki transferitua izan, ez dugu nolana aldazterik, hura erregulatzen duen legea, LOECE, Lege Organikoa denez gero ezin bait dugu besterik gabe aldatu.

Beraz, transferitu zaigun eskola hori aldatzerik ez badago, eskola publiko bakarra egitea ikastola eskola transferitua bihurtzea litzateke. Beraz, eskola publiko bakarra izango genuke: baina ez Euskal Eskola Publikoa; ez hemen egina, baizik eta Madrilan, ikastolak sortu dituen eta E.E.P.ak, gure ustez, mantendu behar dituen zenbait ezaugarri galtzeko arriskuan jarriz. Horretaz gainera, neurri horrek ikaslegoa «Cuerpo General de Profesores de EGB» delakoan sartzea edo integratzea exijitzen du. Sarrera edo integrazioa Estatuko funtzionarioen gorputz batean izango litzatekeenez, eta gorputz horri dagokion legeria gaurkoz aldaezina denez, orain ikastoletan maisu-titulaziorik gabe dagoen irakasle-multzoa lan gabe utziko luke, eta kasurik onenean ere bere lan-postuetatik aldaerazi egingo lieke gainontzeko gehienci.

Irteera hau ere, irakaslegoaren lan-postuak gorde nahi badira, ezinezkoa dela ikusiaz, bi aukerabide gelditzen zaizkigu: E.E.P.a sortzeko behar ditugun ahalmenak eskuratu arte ikastola dagoen egoeran utzi, ala E.E.P. berri horretara bultzatuko duen eta nahi duten ikastolei publiko bihurtzeko aukera emango dien irteera probisional bideratzea. Hezkuntza-Sailak ez dagoela denbora gehiago zain egoterik uste du, eta horregatik Ikastolen Estatutuaren Lege-Projektua aurkeztu du, Legebiltzarrak eztabaidatu eta legeza dezan.

Noiz izango den sare bion bategitea ahalgarri? Eusko Legebiltzarrak hemengo eskolak antolatzeko, bere estruktura legeztatzeko, boterea eskuratzen duenean; hots, Autonomi Elkarteak bere funtzionari-gorputzak sortzeko ahalmena lortzen duenean. Azken batean, lehen esan dugun E.E.P.a antolatzeko aukerabidea eskuratzean, orduan izango da Ikastola eta Eskola publikoa sare bakar batean bateratzeko unea. Zoritzarrez, aukerabide horren

noiz-nolakoa ez dago gure eskuetan, Madrilgo Gobernuarenetan baizik. Arrazoi askorengatik, Hezkuntza Sailak ahalik eta lasterren bateratu nahi lituzke ikastolak eta ikastetxe publikoak sare bakaurrean, gaur ez dugun autogobernu maila lortua izango bait genuke horrela, bi sare izateak sor ditzakeen arazo sozialen arriskua ez gaineratzeko, administrazio- eta planifikazio-lanak erraztu egingo liratekeelako. Baina guzti hori azkar lortu nahi izateak, ez gaitu bultzatuko desegokia edo E.E.P.aren proiektu horren kontra doan alternatiba bat onartzera, nahi dugun eta Euskadik behar duen Eskola antolatzeak exijitzen duen botere politikoaren alde lan-egitera baizik.

Beraz, egun PSOEek eta Gobernu Zentralak daramaten politika antiautonomikoaren aurka saiatuko gara, arlo honetan zein bestetan, Autonomi Estatutuak dioen autogobernu maila eskuratu arte.

**2. Oposizioari entzunda, EIKEko Biltzarre Nagusia eta Personal-Batzordea kontroltresna dira. Bi gobernu-organismo hauen eginkizun ugariak eta berauetan gurasoek duten pisu handia salatzen dira bereziki. Hori denori zuzenki eta espreski gestio demokratikoaren aurka doala leporatzen zaizue.**

**Nola ulertzen duzue zuek gestio demokratikoa? Zertan oinarritzen duzue gurasoei ematen diezuen garrantzia?**

Askotan esan ohi dugu, eta berriro esan nahi dugu orain, lege honetan garrantzitsuena ez dela gestio-organoen konposaketa, guraso-irakasle gehiago ala gutxiago eta estamentu desberdinen indar-erlazioa. Prest gaude arlo honetan euskal indar politikoeekin adostasun batera iristeko. Gaur, gure ustez, hau da garrantzitsuena: E.E.P.aren alde doan edota hura bideratzen duen alternatiba sortzea, aldi berean ikastolen zenbait ezaugarri nagusi gordez, eta horrela ikastolei lege-marko egokia eskaintzea. Hori da lortu behar duguna.

Bestalde, gestio demokratikoa nola ulertzen dugun galdegiten duzunean, zera erantzungo genuke: Eskola osatzen duten indar guztiek partehartuaz, eta bakoitzak berezkoak dituen eskubideak

gordeaz eta ziurtatuaz, osatutako gestio-organismoak dituen eskola bat nahi dugu. Gestio demokratikoa ez dugu uste, bestalde, denok nahasturik edozein mailatako erabakia hartzea denik, baizik eta gestio-organismo bakoitzaren zer-egina aztertu ondoren (bere egin-beharrak eta ahalmenak zehaztu ondoren), eta gestio-organismo horren konposaketa ahalik eta zabalena izanik, estamentu batek berezkoak dituen eskubide eta erresposabilitateak gordeko eta ziurtatuko duen konposaketa eduki behar du.

Azken batean, zera esan nahi du Hezkuntza Sailak: gurasoek, irakasleek, ikasleek eta Administrazioak nor bere aldetik dituzten eskubide horien arduradun eta protagonista izan behar dutela. Horrela, beren seme-alaben heziketak nolakoa izan behar duen, zein baloretan oinarri izan behar duen erabakitzeke orduan azken hitza gurasoek behar duten bezalaxe programazio-kontuan, heziketaren desarroiloan eta eskolaren martxan irakasleek duten protagonismoa garbi finkatu behar da, eta beren profesio-eskubideak errespetatu eta ziurtatuko dituen gestio-organismo izan behar du eskolak.

Beraz, Lege-Projektuan, nahiz eta puntu askotan guk nahi genukeena ez izan (LOECEk jartzen dituen mugek baldintzatu egiten bait gaituzte), azaltzen diren gestio-organismoetan oreka eta filosofia hori gorde nahi izan dugu, heziketaren projektua erabakitzen duen gestio-organismoan gurasoei partaidetza nagusia eskainiz eta eskolaren bizitza zuzentzen duten gainontzeko joan-etorrietan irakasleei protagonismo nagusia aitortuz.

Noski, bistan dago arlo honetan ikuspegi desberdinak daudela, segun eta Administrazioaren eta Botere publikoen eginkizuna nola ulertzen den. Hezkuntza Sailaren ustez Administrazioak gizartearen Zerbitzutan egon behar du, eta ez alderantziz. Beraz, Hezkuntza Sailak ez du uste eskola bateko kolektiboari nolako hezkuntz projektua eratu behar duen gainetik ezartzen ibili behar duenik; aitzitik, ikastetxe bakoitzak erabakitzen duena aurrera eramateko behar dituen bitartekoak jarri behar dituela deritzo, beste ezer baino lehen. Hezkuntz sistemaren oinarri nagusiak errespetatuaz, ahalik eta autonomi maila handiena duen eskola nahi du Hezkuntza Sailak. Horretarako, gurasoen partehartzeak gaurko eskola publikoetan baino handiagoa izan behar du.

Hala ere, galderaren hasieran esaten zenez, puntu hauek gainerako indar politikoekin hitzartzeko prest dago Hezkuntza Saila.

**3. Ahal dela, efikaziaren garantiaz egin behar da legea; eta, horretarako, ahal dela, partaide guztien onarpena lortu. Irakaskuntzaren barrutian arazorik larrienetakoa irakasleena da, noski.**

**Zer espero duzue irakasleengandik? Alegia, ikastoletako irakasleen baietzik eta kolaborantzarik espero al duzue, bateko? Eta besteko, zein jarrera espero duzue eskola transferituetako irakasleen aldetik?**

Estatutua egiten hasi zenean, ahalik koste sozialik txikieneko projektua egitea erabaki zen Hezkuntza Sailean, kontuan harturik irakaslegoari gaineratuko zitzaiola aldaketaren zama nagusia. Lehenengo galderari erantzuterakoan, horrexegatik, Erakunde Autonomoa sortzeko arrazoi nagusienetakoa irakaslegoaren lanpostua mantentzea eta ziurtatzea izan dela adierazi da.

Nahiz eta Lege-Projektuan irakaslen lan-egoeraz ezer gutxi esan, bertan aipatzen den «Euskal Ikastolen Erakundeko Irakasle Sailak» sortuko duen legea prestatuta dago eta egun gutxi barru, ezagutzen denean, orain kritika orokorra egiteko falta den materiala esku-artean izango du edonork, xehetasunez ezagutuz ikastoletako irakasleak status berri horretara nola igaroko diren eta beren lan-egoera nolakoa izango den.

Baina, galderari aurrez aurre erantzunaz, hauxe esan liteke dagoeneko:

- gaurko irakaslegoaren lan-postuak ziurtaturik daudela projektu honetan, orain dagoen lekuetan eta egun dituzten eskubideak, antiguitatea, etab. mantenduz, EIKeren funtzionari bihurtuz.
- Beren eskubide profesionalak, gestio-organoetako partaidetza, eskolak hartzen duen erabakietan partehartzea, etab. hobetu, ziurtatu eta egokitu egiten direla horrela.

Beraz, bere lan-egoera eta eskubide profesionalak ziurtatzen

badira, eta horretan saiatu da Hezkuntza Saila arrunt justiziazko delako, ez da uste arrazoirik dagoenik irakaslegoaren gehiengo batek projektua baztertzeko.

Noski, irakaslegoa ez da homogeneoa, radikalizatua dagoen sektore bat projektu honen kontrako jokaera kaleratzen ari da. Baina, ikastola ezagutuaz, guraso eta irakasleek elkarrekin lan-egiteko duten ohitura kontuan izanik, gestio-organoeetan azaltzen den orekak sor ditzakeen larritasunak gaindituko dituztela ziur gaude, are gehiago kontuan harturik lan-erlazioek sortzen dituzten eztabaidak desagertu egingo direla. Eskola ez bait da gurasoek eta irakasleek botere bila elkarren borrokan ibiltzeko lekua edo bertan nork agintzen duen eztabaidatzeko lekua. Aitzitik eskolak, ikasleak elkarrekin hezitzeko lekua izan behar duela guraso eta irakasle gehienek asmoan dagoen kontua da. Beraz, azken batean projektuak gehiengoaren onarpena izango duela ziur dago Hezkuntza Saila.

Eta, bestalde, transferitutako irakasleei dagokienez, bi gorputz egiteak diskriminazioa sortzen duela iruditzen bazaio zenbaiti, garbi gera bedi ez dela hori gure helburua, baizik eta gaur-gaurkoz ezinbestekoa. Guk sare publiko bakarra nahi dugu, Eskola publikoa eta Ikastola lotuko dituen Euskal Eskola Publikoa. Maisu-maistra guztiak lotuko dituen Euskadiko funtzionarien gorputz bakarra nahi dugu eta horren alde amore eman gabe, etsi gabe jarraituko dugula adierazi nahi genieke irakasle horiei.

## EAJren erantzuna

**1. a) «Euskal Eskola Publiko *bakarra*» nahi duzuela irakurri dugu. Halere, bi sare mantentzen edo sortzen dituzue. Zergatik eta zertarako?**

Gure Alderdiaren eta Eusko Jaurlaritzaren eritzia, betidanik, izan da eta da, Euskal Eskola Publiko «*bakarra*» sortzea, horrela agertzen da Jaurlaritzaren *egitamu*-n, Eusko Legebiltzarrean eztabaidatu ondoren onartua izan zena.

Baina, LOECEko hirugarren gehigarrian Espainiako Gorteek onartu zutena eta PSOEek errekurritu ondoren Konstituzio-Epaitezak desegin zuena, ematen zitzaigun kompetentzia gure eskola eredu bakar bat sortzeko posibilitatea lurperatu zen.

**b) Euskal Eskola Publiko bakar hori lehenbailehen nahi omen duzue. Baina ezin omen da orain oraingoz. Zergatik ezin da orain bertan? Zeintzu dira oztopo nagusiak? Eta noiz izango da ahalgarri? Alegia, sare bakar hori lortzeko zein politika, hots, bideak, epeak, markatuko dituzue?**

Orain ezin da lortu Euskal Eskola Publiko bakar bat lehen aipatu dudan oztopoagatik.

Ikastolak publikotasuna lortzeko bi bide dauzkagu:

a.— Transferitutako sarean sartu

b.— Sare berezi bat sortu.

Lehendabiziko bideak, gure Ikastolen nortasuna eta berezitasunak galtzera garamatza, Espainiako Legeztaduraren babesean egingo bait litzateke sare bakar hori, horregatik guk aukeratu dugu b) bidea.

Gure eritzian, behar beharrezkoa litzateke LOECE aldatzea, eta Euzkadiri Eskolaren barne gobernurako organoak erregulatzeko kompetentzia ematea.

Bigarren etapa baten Eskola transferituak eta Ikastola Publikoak sare bakar batera joango lirateke, PSOEek, aipatutako LOECE hori, aldatzen duenean egingo genuke sare bakarra.

**2. Oposizioari entzunda, EIKEko Biltzarre Nagusia eta Personal-Batzordea kontroltresna dira. Bi gobernu-organo hauen eginkizun ugariak eta berauetan gurasoek duten pisu handia salatzen dira bereziki. Hori denori zuzenki eta espreski gestio demokratikoaren aurka doala leporatzen zaizue.**

**Nola ulertzen duzue zuek gestio demokratikoa? Zertan oinarritzen duzue gurasoei ematen diezuen garrantzia?**

Guretzat Eskola Publikoa izateak, ez du esan nahi, horri loturik, gestio-eredu bakarra dagoenik.

Beraz guk uste dugu, gurasoak direla, haur baten hezkuntzari buruz, azken hitza daukatenak, ez gai teknikoetan erabakirik hartzeko, baizik eta zer hezkuntz eredu nahi duten beren seme-alabentzat ebazteko.

Gestio demokratikoak, ez du berez esan nahi, eskolako gaietan partaide direnak parekotasuna izan behar dutenik; alderantziz guk ulertzen dugu partaide bakoitza dagokion neurrian egon behar dela, eta zentzu honetan, guretzat gurasoak dira pisurik gehien eduki behar dutenak barne-gestioko gai teknikoak ez direnean.

Gure Alderdiak beti eutsi dio, haurren hezkuntza eredu, gurasoek erabaki behar duten eritziari; eta hautaketa hori benetan libre izan dadin, hezkuntz askatasuna da gure oinarria, Eskola Pu-

bliko eta Pribatuak, kalitate berdintsu batetakoak lortuz eta bai bata eta bai bestea, doantasanera eramanez.

**3. Ahal dela, efikaziaren garantiaz egin behar da legea; eta, horretarako, ahal dela, partaide guztien onarpena lortu. Irakaskuntzaren barrutian arazorik larrienetakoa irakasleena da, noski.**

**Zer espero duzue irakasleengandik? Alegia, ikastoletako irakasleen baietzik eta kolaborantzarik espero al duzue, bateko? Eta besteko, zein jarrera espero duzue eskola transferituetako irakasleen aldetik?**

Ikastoletako irakaslegoarengandik laguntza osoa espero dugu, gure bideak beren lanpostuari segurantza ematen bait dio, merituen konkurtso baten bitartez funtzionari bihurtuko dira, eta lehiaketa horretan lehen meritua izango da, konkurtsora ateratzen den lanpostuan, lanean aritzea. Beraz, seguritate osoa ematen zaie irakasleei eta gainerako lanarigoari.

Eskola transferituetako lanarigoak eta irakaslegoak orain arte izan dituzten eskubideak errespetatzen zaizkie, eta ikastoletakoei zor zaizkien eskubideak ematen zaizkie. Beraz, uste dugu denei atsegin izango zaiela daramagun bidea.



## E Eren erantzuna

**1. Salakuntza ugari egiten diozue EIKeri. Horietako batzu aukeratu ditugu hemen (Zehaztasunez erantzun, mesedez; zuen salakuntza teorikoezia dela aurpegiratzen zaizue eta).**

Zehaztasunez erantzuten ahaleginduko gara galdera guztiak eta konkretuki lehen galdera honetako atal oro. Nolanahi ere, «zuen salakuntza teorikoezia dela aurpegiratzen zaizue eta» esaten duzunean, zuzendari jauna, guk ez dugu horrelakorik entzun ibili garen lekuetan; kontrakoa esango genuke gertatu dela. Proiektu publiko batetaz mintzatzerakoan eta bera gorpuzteko, gure eritzian, bete beharko lirakekeen ezaugarri konkretuez hitzegin dugu eta horiek izan dira gure salakuntzak eta kritikak.

**a) EIKEk ez omen du egiaz eta benetan eskola publikorik nahi. Proiektuan bertan non eta zertan agertzen da hori?**

EIKEk, Lege-Proiektu bezala, bi parte nagusi ditu eta biek oro har estrategia bat definitzen dute.

Lehen partean ikastolak publiko bihurtzeko organoa sortzen da, EIKE izeneko erakundea. Eta konkretuki puntu hau izan da gehien eztabaidatua eta kritikatu.

Euskal gobernuak berak programa aurkeztu eta defendatu zue-nean, sare bakar baten ikuspegitik egingo zela baieztatu zuen.

Garai hartan gobernuak berak baztertu zuen ikastolentzat sare

propio bat, ohartzen bait zen bi sare publiko izateak eskola publikoaren proiektuarentzat zekartzan ondorio tamalgarriez. Orain postura aldatu du; eta galdetzen zaigu EIKE sortzeak eskola publikoarentzat zein kalte dituen. Hona hemen:

Historikoki, hezkuntz mailan, sareen existentzia diskriminazio ideologiko eta sozialen iturri bihurtu da. Sareen existentziak hezkuntzaren ordenakuntza demokratikoa ezinezko egiten du eta aldi berean guk onartzen ez dugun ideia bat sartzen du hezkuntzaren munduan: eskolen arteko kompetitibitatea. Eta honek ondorioz beste aspektu negatibo bat darama berarekin: hezkuntz plangintzarik ezin daitekeela egin.

EIKE beste sare bat bezala antolatuz, ikastolak eta zentru publikoak, biharko euskal eskola publikoaren zutabe osagarriak izan beharrean, kompetitibitatean, konfliktoan sartuko diren bi eskola—mota izanen dira. Dagoen eskola—eskaera beregana bideratu nahian planteatuko den konfliktoa, hain zuzen.

Eta kompetitibitate honek eskolen espezializatzea ekarriko luke, hizkuntza medio delarik. Irakaskuntza euskaraz ematen duten zentruak eta irakaskuntza gazteleraz emanaz euskara asignatura bezala ematen duten zentruak. Eta aipaturiko sailkapen hau garbi ikusten da EIKEren 2. eta 3. artikuluetan. Zentru baten publikotasuna, beste baldintza batzuek kontuan izanik ere, hizkuntzaren arabera definiturik dago. Sare batean egon ala bestean, hizkuntzaren kontua da. Eta gainera beste datu arriskugarriago batekin: euskalduntzen den zentru publiko bat EIKEra pasatzeko positibitatearekin.

Gure eritziz, ikuspegi honetatik inolaz ere ezin daiteke lortu gure hizkuntzaren normalizazioa hezkuntzaren alorrean. Are guxtiago euskal eskola publikoaren proiektua.

Bigarren, EIKEk ikastolentzat barne—funtzionamendurako estatutu bat definitzen du. Eta gure eritzian bederen, eskola publikoari buruz azken hamar urte hauetan eman diren debateekin zerikusi gutxi du. Eredu publiko bati erantzuten dion lege bat baino gehiago da PNVk duen hezkuntz ereduari loturiko lege bat.

Hurrengo atalean konkretuki gai honetaz galdetzen zaigunez, han luzatuko gara gehiago. Halere, eta zerbait aurreratzeagatik,

Asanbladaren konposaketak, eskolari buruzko kontzepzioak, kontrataziorako batzordeak eta abarrek eskola publikoarekin zerikusi gutxi dute.

Baina, aurreko puntuan bezala, oraingoan ere beste zentru publikoetatik bereizteko asmo garbi bat dago. Bateratzeko asmoak agertu baino distantziak azpimarratzekoa. Distantziak irakasleagoa funtzionari bihurtzeko eta kontrataziorako garaian, distantziak gurasoek batean eta bestean dituzten ahalmenetan, eta distantziak sare batean eta bestean Federazioei eta «APAS» delakoei partehartze-mailan ematen zaien tratu diferentean.

Eta lehen atal honekin bukatzeko, gobernuaren proiektuak euskal eskola publikoaren aurkako estrategia bat definitzen du.

Estrategia honetan, ikastolak «gure eskolak dira» eta beste zentru publikoak gureak, baina bigarren mailakoak. Eta kontsiderazio honen arabera aurreratzen zaigun estrategiak zera dio: «Defenda ditzagun ikastolak eta, momentu hobeak datozkeenean, defendatuko ditugu besteak, eta gero planteatuko dugu sareen bateratzea».

Guretzat estrategia hau erabat onartezina da, zeren eta Komunitate Autonomoko hezkuntz sistema batasun ikuspegi batetik defendatu beharrean, azpistema berriak antolatzen bait dira, eskola publikoaren projektua desartikulatuz.

Gobernuak, LOAPAren argudioa ateratzen duenean bere projektua justifikatzeko, tranpa egiten du. Zeren berak garbi bait daki, *funtzio publikoari* buruzko titulua dagoen bezala ateratzen bada, EIKEk ez duela inongo bideragarritasun legalik. Eta aldatzen bada eta funtzionari propioen gorputza hezkuntz mailan sortzeko, Autonomi Estatutuak agintzen duen legez, atek irekirik gelditzen badira, EIKE sortzeko arrazoirik ez du gobernuak.

Aurrean daukagun auzia ez da ikastolak bakarrik segurantzia aurki dezaketeneko marko bat defendatzea, baizik eta ikastolak barnean direlarik euskal eskola publikoaren markoa defendatzea.

Eskola publikoaz denok hitzegin dezakegu. Denok ager dezakegu sareen bateratzearen alde gaudela; baina baieztapen guzti

horiek baino garrantzizkoagoa da nolako eta zein bide proposatzen den horretarako.

Gure ustez, eta demagogiak aparte utzirik, Gobernuak proposatzen duen bidetik ez goaz euskal eskola publikorantz.

### **b) Sare autonomo baten muntaketa omen da EIKE. Zein sare-mota eta zergatik?**

Sare berri bat izan nahi duela, garbi dago. Eta horren izaera autonomoa bi ikuspuntutatik azter daiteke. Alde batetik, Hezkuntz Departamentuak beste edozein Administrazio instituzional edo erakunde autonomok sor ditzake. Eta zentzu honetan, publiko izan nahi duten ikastolen titularitatea Departamentuak berak zuzenean hartu beharrean, titularitate hauen jabe izan den erakunde autonomo bat sortzen du: EIKE izeneko erakunde publikoa, alegia.

Departamentuak, bere administralgoak, beste zentru publikoen gestioa, ordenakuntza edota plangintza zuzenean eramaten duen bezala, ikastola publikoentzat EIKE erakunde sortzen du. Honetan datza sare honen izaera autonomoa.

Eta bestalde, autonomotasuna beste sarearengandik. Zergatiari, gobernuak erantzun beharko lioke. Gure eritzian, azpisare hau sortuaz gobernuak hobeki kontrola dezakeelako.

### **c) Projektu honek gestio demokratikoa ukatu egiten omen du. Zertan?**

Lehenik hitz bi, gure eritzian demokraziak zer suposatzen duen hezkuntz mailan. Alde batetik, suposatzen du botere publikoek, hezkuntz administralgoak, zentruen autonomia errespetatu eta bultzatu behar dutela: zentruen autonomia errespetatuaz, hezkuntzaren sektore diferentean partehartzea posibletu eta indartu behar dutela instantzia guztietan. Eta bestalde, zentruan bertan ere demokraziaz funtzionatu behar dela: hau da, hezkuntzari bu-

ruzko eritzi patrimonialistak baztertu behar direla. Eskola ez dela inoren patrimonio eksklusiboa, baizik eta ikasle-irakasle eta gurasoek osatzen duten hezkuntz komunitatearena dela eskola eta haren zerbitzuan egon behar duela. Horregatik, eskolan gestiorako sistema paritarioak proposatzen eta defendatzen ditugu.

EIKE proiektuak ez ditu gure eritzian bete behar diren bi printzipio hauek onartzen eta horregatik proposatzen duen gestio-ereduak ez du demokratiko izenik merezi. EIKE projektua LOECEn oinarritzen da eta lege horri egin zitzaizkion kritika oro egin diezaizkiokegu orain EIKeri. Eta horien artean batipat Administrazioaren partetik zentruen autonomiaren kontra ezartzen den kontrola.

Baina gobernuaren proiektuak LOECE hobetu ez baino gauzak askoz ere okerrago jartzen ditu.

LOECEk bederen guraso-irakasleen arteko sistema paritario bat seinalatzen du. EIKEk berriz, eta hau da benetan harrigarria, LOECEn dauden organoak jasoaz eta bere konposaketa errespetatuaz beste bi organo asmatzen ditu beste sistema guztia hondartzeko. Bi organu hauek zentruko Asanblada eta Pertsonal-Batzordea dira.

Zentruko Asanbladan ez da guraso-irakasleen arteko sistema paritario bat errespetatzen. Beste organoetan errespetatzen da eta honetan zergatik ez? Arrazoia guretzat sinplea eta aldi berean tamalgarria da. Eusko Gobernuak pentsatzen bait du zentru baten martxa Administrazio eta gurasoen arteko gauza dela, irakaslegoa hauen pean dagoen profesionala izanik.

Eta ideia hau guretzat tristea eta grabea da, zeren eta gobernuak honekin adierazten bait du eskolari buruz duen eritzi patrimonialista.

Eta bestalde, Pertsonal-Batzordea dugu. Kontratazioarako kriterioak aplikatuko dituen batzordea, alegia. Gure ustez eta askotan hitzegin dugu honetaz hezkuntz arduradunekin, batzorde honen bidez kontratazio publikoari ateak hersten zaizkio, diskriminazio ideologiko eta politikoari bideak libre utziaz. Azkeneko honek zerikusi gutxi du gestio demokratikoarekin eta are gutxiago eskola publikoaren proiektuarekin.

### **d) Zer iritzi duzue EIKEk gurasoei ematen dien eginkizun juridikoaz?**

Ez genuke guk eginkizun juridiko bezala definituko, lege-projektuak gurasoen partehartzeari buruz duen eritzi bezala baizik. Gobernuak Zentruko Asanblada tratatu duenean agertu ditu benetan bere asmoak eta eskola-ereduari buruzko eritzia.

Gobernuak kontsideratzen du, hezkuntzan lehen interesatuak gurasoak direla eta ondorioz zentruetako barne gestioan hauei eman behar zaiela lehentasuna beste sektoreen gainetik. Ideia honen bidez ez da bultzatzen gurasoek hezkuntza mailan izan behar duten funtzioa ez eta partehartzeko eskubidea.

Esan nahi zaiguna zera da: partehartzeko ez baino kontrolatzeko daudela gurasoak. Inork ez ditu ukatzen gurasoek hezkuntzarekiko dituzten eskubideak, eta horiek errespetatu daitezkeen gurasoek han egon beharko dutenik.

Baina gurasoen partehartzea ez da horretan bakarrik gelditzen. Gurasoek, eskolako komunitatearen partaide direnez, hezkuntza funtzio garrantzizko bat bete behar dute. Eta paradójikoa badirudi ere, EIKE proiektuak ez du aspektu hau jasutzen.

## **2. Sare bakarra proposatzen duzue zuek.**

### **a) Sare bakar hori posible al da gaur eta hemen, ikastolarentzat kalterik gabe?**

Proposatzen dugun eskola publikoaren eredia sare bakarraren ikuspegitik egiten dugu. Sare honen bi ezaugarri nagusienetakoak, gure ustez, hauek izango lirateke:

1.- Sare horretako eskola guztientzat estatutu demokratiko bat.

2.- Sare horretan lan egiten duten funtzionarioen gorputz propio bat.

Lehen esan bezala, marko administratibo-juridiko hau lortzeko aurreratu behar den estrategian dago kakoa.

Gure ustez, egun daukagun biderik egokiena zentru publikoak eta ikastolak sare bakar batean sartzea da. Eta inkorporazio horretan ikastolek ez dute zergatik kalterik jasan behar.

Gaur egun Komunitate Autonomoak hezkuntz mailan dituen kompetenziak ikusirik, ikastolen berezitasunak segurta daitezke. Ikastoletan egun ematen diren eredu linguistikoak (D eredu batez ere) garantizatzeko inongo oztoporik ez dago. Irakasle-andereñoen lan-segurtasuna, funtzionari izatea, klaustroen estabilitatea, e.a. lortzeko lege-eragozpenik ez dago. Bakar-bakarrik, horretarako, borondate politikoa eskatzen dugu.

### **b) Zein dira zehazki zuen ustezko oztopo nagusiak, eta nola gaindi daitezke?**

Guretzat egun oztoporik nagusia Eusko Gobernuaren jarri da. Ez duela bide honetatik sartu nahi, alegia.

Gobernuak postura aldatuko balu, ikastoletan gaur dauden zenbait zalantza txikiagotu egingo lirateke eta denok hainbeste aldiz aipatzen dugun eskola publikoaren projektutik hurbilago egongo ginateke.

Oztopo objektiboez hitzegiterakoan, irakaslearen regulazio administratiboa azaltzen zaigu nagusien. Eta honek soluziobideak ere objektiboak ditu. Esijitzen duena da bi gobernuen aldetik arazo hau konpontzeko borondatea eta batipat Gobernu Sozialistaren partetik ikastolen instituzionaltze publikoak eskatzen duen tratamendu bereziaz jabetzea.

Hau garbi utzirik, jarraitu beharko litzatekeen bidea honako hau izango litzateke.

— Ikastoletako irakasle goa bezala kontratatzea, lanpostua segurtatuz funtzionari izatera iritsi bitartean.

— Denboraldi horretan plaza horiek konkurtsora ez ateratzea.

— Oposaketa hertsien konbokatoria, ikastoletan pasatako urteak meritu bezala barematuaz.

**c) Arazo zenbait eta zuen soluzioak hurbilagotik ikus ditzagun:**

**— Funtzionaritza motak.**

Gure hezkuntz proposamenean eskola-sare bakarrarekin batera funtzionarioen gorputz bakarra proposatzen dugu. Irakaskuntzako langileen bateratze hau Komunitate Autonomoko funtzionarioari propioen markoan ikusten dugu. Irakaskuntzari dagokionez Estatuko gorputz orokorrak desagertu beharko lukete funtzio publikoaren kompetentzia duten Komunitate Autonomoetan eta baita tipat Euskal Herriko Komunitate Autonomoan.

Honek zera suposatzen du: Eusko Parlamentuak Euskal Funtzio publikoaren legea egin beharko lukeela eta bertan regulatu gaurregun transferituak diren funtzionarioen inkorporazioa.

Zer esanik ez, kontu handiz eman behar den pauso bat dela eta, gobernu zentralarekin edota beste Komunitate Autonomoko gobernuekin batera soluzionatu beharko liratekeela Komunitate Autonomoan gelditu nahi ez duten funtzionarioen arazoak.

**— Irakasle erdaldunaren borondatea.**

Ez dakigu konkretuki zer galdetzen duzuen oraingoan. Euskalduntzeari buruz, Euskal Funtzio publikoan inkorporatzeari buruz, etc.

**— Transferituen eta ikastolen elkartea egiteko «kontsentsua» beharko litzateke, Federazioen ustetan. Kontsentsu hori (irakasleena, gurasoena nagusiki) posible ikusten al duzue?**

Dudarik gabe beharrezkoa ikusten dugu aipatzen den kontsentsu hori. Eta ez irakasleena eta gurasoena bakarrik, sindikatu eta alderdi politikoena ere bai.

Guk posible ikusten dugu, baina bizitzako beste arlo guztietan bezala kontsentsua ez da espontaneoki sortzen, baizik eta landu



egin behar da. Eta zentzu honetan, Gobernuaren proiektuak kontsentsua eta elkartasuna bultzatu beharrean, tentsioa eta konfrontazioa sortzen ditu.

**3. Integrazioa egiteak berak adina konta lezake bateratze hori egiteko *moduak*, elkarketa hori zein kondizioetan egingen den, alegia. Ikastola suntsitzeko arriskurik gabe egin daitekeela uste al duzue? Nola?**

**Zeintzu lirateke horren abantailak, bestalde?**

Aurreko puntu batean agertu dizuegu proposatzen dugun bateratze prozesuak ez dituela ikastolak dituen berezitasunak arriskutan jartzen.

Dudarik gabe bateratzea egiteko moduak garrantzi handia du eta zentzu horretan behar beharrezkoa iruditzen zaigu politika informatibo garbi bat. Proiektuak egiterakoan Federazio, APAS, indar politiko eta abarrekin kontsultatuaz. Bateratze prozesu honekin batera plangintza linguistiko bat aurreratuz, herri eta bailara bakoitzean hezkuntzaren ordenakuntza elaboratuaz.

Abantailak guretzat garbiak dira:

— Euskal Eskola Publikoa aurrera ateratzeko kondizio hobegotan jartzen gara.

— Edozein ofentsiba zentralistaren aurrean indarrak baturik fruitu hobeak lor ditzakegu, bi saretan zatituta baino.

— Euskararen normalizazioak askoz gehiago irabaziko du.

— Herri hau osatzen dugun sektore sozial diferenteak hezkuntza proiektu baten inguruan biltzeko kondizio hobeak sortzen ditu.

## HBren erantzuna

**1. Salakuntza ugari egiten diozue EIKERI. Horietako batzu aukeratu ditugu hemen (zehaztasunez erantzun, mesedez; zuen salakuntza teorikoegia dela aurpegiratzen zaizue eta).**

**a) EIKEK ez omen du egiaz eta benetan eskola publikorik nahi. Projektuan bertan non eta zertan agertzen da hori?**

**b) Sare autonomo baten muntaketa omen da EIKE. Zer sare mota eta zergatik?**

**c) Projektu honek gestio demokratikoa ukatu egiten omen du. Zertan?**

**d) Zer eritzi duzue EIKEk gurasoei ematen dien eginkizun juridikoaz?**

### *Sarrera gisa*

Herri Batasunak behin eta berriro oihukatu eta aldarrikatu izan du, eta zoritzarrez aldarrikatzen jarraitu beharrean aurkitzen da, Espainiako Erreforma Politikoaren fruitu bitxia den Gernikako Autonomi Estatutua ez dugula batere tresna egokia Euskal Herriaren subiranotasuna lortzeko. Nafarroa kanpoan uzteaz aparte, Autonomi Estatutu honek ez dizkigu Euskal Herriaren berreraikuntzan nahitanahiezkoak ditugun zenbait ahalmen eskuratzen. Eta, konkretuki, besteak beste, Estatutu honek ez dizkigu Euskal Eskola Publiko eta Autonomorako bideak zabaltzen.

Madrilgo gobernuak ez dio Gasteizkoari irakaskuntza publikoa transferitu, hots, ez dio eskolaren *plangintza autonomoa* transferitu. Bai, Baskongadetako gobernuari pasa diote eskolaren *gestioa edo administrazioa*, baina inola ere ez beraren zuzendaritza, zeren eta oraindik ere Madrilgo gobernuaren kontrolpean jarraitzen du irakaskuntzak. Hezkuntz sistemaren itxura eta azaleko deszentralizaziora heldu gara, baina hain beharrezkoa dugun funtsezko autonomiarik ez dugu lortu.

Gaur-gaurkoz, eta Gernikako Estatutuaz baliatuaz, Gasteizko gobernuak ez du nahiko ahalmenik Euskal Eskola Publiko eta autonomia eraikitzeko. Eta horren ondorenez, eskaintzen dioten miseria finkatuaz, *sare publiko paraleloa* sortu nahi digute. Aberzaleontzat benetan penagarria: helburuak ahazturik, madrildarren saldukeria guztia ontzat eman! Gure ustez, hain zuzen ere, gakoa honetan datza: PNVk, eskola transferitua nahi lukeen adina kontrolatzen ez duenez gero, ikastolak bereganatu nahi ditu.

Herri Batasunaren ustez, euskal eskola publikoa eta autonomia lortzeko, botere politiko autonomia nahitaezkoa dugu. Eta autonomia horren ezean, sare paraleloak eraikitzen hastea, saldukeriak izkutatu eta berriro ere herria enganatzea iruditzen zaigu.

Beraz, gaurko sasi-demokrazia zentralista honetan, euskal eskola publiko eta autonomia inoiz ez dugula lortuko kontuan izanirik, Herri Batasunaren eritziz, irtenbide bakarra zera dugu: Hego Euskal Herri guztira *bedatu* eta gure herriaren berreraikuntzarako funtsezko tresnak eskainiko dizkigun Autonomi Estatutua lortu. Hau da, gure herria berreuskalduntzeko tresna eta irakaskuntza, nahiz sanitatearen kontrola emango digun autonomiaren lorpena. Hitz batez, euskal eskola publikoa eta autonomoak, *etendura demokratikoa* eskatzen digu.

*Eta... gaur zer egin?*

Ikastolak larri ta estu daude. Ia-ia itorik aurkitzen dira. Berehalaxe eskaini behar zaie irtenbideren bat. Baina ez nolanhikoa, zor zaien neurrikoa eta egokia, baizik. Bidegurutze larri eta nahastu honetan zer egin jakitea ez da batere erraza, baina garbi eduki behar dugun norabidea zera da: orain ematen ditugun pauso guztiak euskal eskola publiko bakarra lortzera zuzendu behar ditugula. Okerbideei uko eginaz, presarik gabe, baina tinko

eta zuzen. Ikastolen sorkera bezalaxe, oraingo pausoak ere, errazak ez direla izango jakinaren gainean, baina biharko euskal eskola nazionala oraintxedanik eraikitzen hasteak ematen digun indar eta kemenaz.

*Zergatik EIKeren aurka?*

Projektu honen aurka egoteko arrazoi ugari eta ezberdinak ditugu, garrantzitsuenetarikoak ondorengoak izanik:

a) *Irakaskuntza publikoan sare paraleloa sortzen duelako.* EIKE (Euskal Ikastolen Erakundea) Baskongadetako gobernuak sortzen digun erakunde paraleloa da. Berez eta zuzenki gobernu honek eskolei buruz nahiko kompetentziarik ez duenez gero, beste erakunde bat sortzen du (EIKE), ikastolak gestiona ditzan.

Ondoren gisa, hiru herrialdetako ikastolek beren ghettoetan jarraitzen dute. Juridikoki behintzat, zerbait «ezberdina» izango balira bezala. Eta egoera honek dakarzkigun ondorenak benetan penagarri eta kezkarriak ditugu:

— Bi Komunitate

Jakina da, haurrengan zenbait sentimendu eta maitekortasun sortzeko, eskolak duen garrantzia. Haurrak zer ikusi, hura ikasi. Eskolan ikus, entzun eta bizi dituen abesti, dantza, jolas, hizkuntza eta pentsakerak izugarriko eraginkortasuna du berarengan.

Era honetan, «Estatuto de ikastolas» deituriko proiektu honek pentsaezineko atzerakada suposatzen du. Honela txiki-txikitatik *herri bakararen sentimendu eta giroa sortu beharrean, komunitate ezberdinetako bereiztasunak barrotu eta bizkortzen ari bait gara.*

— Euskal eskola nazionalari uko

Ikastolen eta Eskola Estatalen arteko batasunaren beharra ez da gure «inbentoa», herri-borrokak esijitu eta oihukatu duena, baizik. Eta horren beharrezana ontzat eman dute hainbestetan eta publikoki Kontseilariak eta Baskongadetako Gobernuak berak ere.

Urtea pasa, urtea etorri, poliki-poliki eta herriz herri, Euskal Herriko herri-ikastola hori zabalduz eta hedatuz joan da. Baina,

jakina, eskola batek, egiatan *herritarra* izan dadin, *eskola nazionala* izan behar du. Hau da, Nazio baten eta baterako egindako eskola.

Eta hemen datorkigu galdera: Euskal Herriarentzat zein izanen da E. Nazionala? EIKEn organizatutako ikastola (% 12 haur biltzen dituena)? Gaurko eskola transferitu eta erdalduna (% 52 haur biltzen dituena)? Ala, transferituaz *ekiparitzen* diren Ikastolak eta euskalduntzen ditugun eskola transferituak?

— Eskolaren berreuskalduntzea kolokan

EIKE proiektuaren ondorioz, irakaskuntza euskaraz emateko sare paralelo bat sortzen da. Horrek zer esan nahi du? Gehiengoaren eskola, hau da, langilegoaren semeen eskola euskalduntzerik ez dela espero? Gure uste ez da bide egokiena *eskola euskalduna eta erdalduna* juridikoki bereiztea. Oraingoaz, hizkuntza ereduaren arabera bereizi beharko ditugu eskolak, baina ez juridikoki eskola ezberdinak sortuaz, baizik sare berdinen barnean, eta euskalduntze prozesuaren arabera, ezberdinduaz.

#### b) *Gestio demokratikoa mugatzen digu*

Ezin dugu esan EIKE proiektuak gestio demokratikoa ukatzen duenik, baina ez du ezelako aurrerapausorik suposatzen eta, beraz, oker daude alternatiba honetan izugarritzko abantailak ikusi nahi dituztenak. Beste arlo batzuren artean mugaketa hauek azpimarratuko genituzke:

— EIKEn batzordean irakasle goa guztiz baztertu eta marginaturik dago; inolako ordezkariarik gabe uzten dutelarik (6. atala, 2).

— Ikastoletako batzarre nagusiak ez daude guraso eta laguntzaile guztiei zabalik (16. atala, 1).

— Zer dela eta behar dute ordezkatu, ikastolako batzarre nagusian, udal batzarraren izenean, ikastetxe horretako irakasle eta ez irakasleen kopuruaren arabera? (16. atala, 1). Eta areago, zergatik izan behar du aipaturiko ordezkariak 3/1-ekoa?

— «Comisión de personal» delakoa aipatzen da. *Oposaketak pasa ondoren* oraindik ere «selekzio» gehiago egin behar ote?

Zein helburuz? Irakasleak pentsakera politiko eta ideologiaren arabera aukeratzeko?

Laburpen gisa zera esan nahi genuke: proiektu hau «Ley de Centros» edo EZELO legean oinarriturik dagoenez gero, EIKE proiektua gaurko Madrilgo legeetan finkatzen dela, eta beraz, gestio demokratikoari dagokionez, ezelako aurrerapausorik ez duela suposatzen. Areago, atzerantz goazela!

## 2. Sare bakarra proposatzen duzue zuek.

a) Sare bakar hori *posible* al da gaur eta hemen, ikastolarentzat kalterik gabe?

b) Zein dira zehazki zuen ustezko oztopo nagusiak, eta nola gaindi daitezke.?

c) Arazo zenbait eta zuen soluzioak hurbilagoetik ikus ditzagun:

— funtzionaritza motak.

— irakasle erdaldunaren borondatea.

— transferituen eta ikastolen elkarketa egiteko «kontsentsua» beharko litzateke, Federazioen ustetan. Kontsentsu hori (irakasleena, gurasoena nagusiki) posible ikusten al duzue?

*Etorkizuna: Ikastolak, eskola transferituarekin berdinparatzea*

Lehenik eta behin, beharrezkoa iruditzen zaigu zenbait hitzen esanahia zehaztea. Hala nola «integrazio» eta «ekiparazio» hitzena.

Gasteizko gobernuaren eraginez, azken urte hauetan, hainbat ikastola txiki desegin dira, beste eskola transferitu batean bertako haur guztiak integratuaz. Kasu batzuetan egoki ikusi arren, beste batzuetan, Herri Batasunaren ustez, Gasteizko arduradunengan irakaskuntza merkatzea izan da helburua, euskararen etorkizuna gehiegi kontuan hartu gabe. Eta beraz, zenbait kasutan, ez gara bature ados egon.

Orain planteatzen duguna nahiko ezberdina da. Ez dugu pro-

posatzen ikastolak deseginaz eskola transferituetan integratzea. Hau inola ere ez! Orain dauden ikastola gehienak nahiko gorpuztuak ditugu eta beraz helburua ez da ikastolak desagertzea; dituzten bereiztasunak errespetatuaz, eskola transferituaz *juridikoki ekiparatzea* baizik.

Ikastolak suntsitzea izugarrizko astakeria litzateke. Areago, Alderdi abertzale batentzat barkaezina. Baina ikastolak «ghetto» gisa mantentzea ere, sozialistak garen abertzaleontzat suizidioa, geure buruaren urkamena bilakatzen zaigu. Beraz, gure jokaerak garbia izan behar du: ikastolak, suntsitu edo desegin gabe, eskola transferituetara hurbildu. Ikastolaren lorpen nabarienak, hots, euskalduntasuna eta herrikoitasuna errespetatu eta potentziatuaz ezberdintasun juridikoak gainditzea.

Bestetik, eskola transferituekiko ekiparazioa ezin dugu onartu ezelako baldintzarik gabe. Areago, aipaturiko ekiparazioa onartezina bilakatzen zaigu ondorengo baldintzak errespetatzen ez dizkiguten bitartean:

1. *Ikastolak: eskola euskaldunak*

Ez elebidunak. Oraintxe arte bezala, euskaldunak. Beraz, euskaraz hezitzeak esijitzen dituen minimo guztiak errespetatuaz: hiru urteko haurren eskolaratzea, haurren kopurua, eta abar.

2. *Gestio demokratikoaren arloan*, lortutako autogestio mailaren errespetua.

3. *Irakasle eta ez irakasleen lanpostua ziurtatzea*. Lan baldintzak berriz, elkarrekin, negoziatuaz.

4. *Ikastolaren patrimonia* berorren esku geldituaz, eta dauzkaten zor guztien kargu eginaz.

**3. Integrazioa egiteak berak adina konta lezake bateratze hori egiteko moduak, elkarketa hori zein kondiziotan egingen den alegia. Ikastola suntsitzeko arriskurik gabe egin daitekeela uste al duzue? Nola?**

**Zeintzu lirateke horren abantailak, bestalde?**

*Gure alternatiba, posible ote?*

Zenbait eragozpen egonarren, borondate politikorik balego,

gutziz posibletzat jotzen dugu. Eta posible iruditzen zaigu, ikastolei kalterik egin gabe, noski. Areago, gure ustez, ikastolen geroa eskola publikoaren baitan bakar-bakarrik legoke.

Ez dago ukatzerik, eskola transferituaz berdinparatze honek zenbait beldur sortzen dizkigula. Lehenik eta behin, administrazioaren eskuetan zerbait uzteak beti dakarkigulako mesfidantza. Eta arrazoi guztiaz, gainera; zeren eta administrazioa ez da izan, ez lehen eta ez orain, herrikoa. Bestetik, aipaturiko administrazioa oraindik ere madrildarren eskuetan dagoenez gero, gure mesfidantza gehitu egiten zaigu.

Halere, eta abertzale-sozialista aitortzen garen burkideontzat apostuaren muina, hain zuzen ere, horixe dela kontutan izanik: Hau da, etorkinez eta bertako jendeaz osoturiko herri erdaldunduaz nola osotu *herri bat* eta herri hori nola *euskaldundu*. Lehen aipaturiko kontraesanak eta beldurrak gainditu beharrean aurkitzen gara, beraz.

Zenbait oztopo eta arrisku egonarren, Herri Batasunaren eriztiz, aipaturiko alternatiba, guztiz posiblea da.

Alde batetik, aurrerago aipatutako lehen, bigarren eta laugarren baldintzak bete daitezkeelako. Baskongadetako Gobernuak nahiko balu, eskola transferituaz ekiparatu nahi duten ikastolekin, EIKeren projektuan bezalaxe baldintza guzti horiek bete daitezke. Eskola transferituetan eta EIKeren projektuan, euskarari buruzko plangintza, pertsona eta administrazio berdinen eskuetan dagoenez gero, ez dugu euskalduntasuna galtzeko arriskurik ikusten. Beste bi baldintzei buruz ere, arrazoi berdina eman dezakegu.

Funtzionaritzari dagokion arazoa, pixka bat konplexuagoa da. Izan ere, hasieran esan dugun bezala, EIKE projektuaeren azken arazoia honetan datza: Gasteizko Gobernuak ez du kontrolatzen eskola transferituetakoa irakaslegoa eta, bihar edo etzi ikastoletakoa kontrola dezan, erakunde paraleloa sortzen du.

Dudarik gabe nahiago genuke Baskongadetako Gobernuak irakaskuntzako funtzionarien gain kompetentzia osoak balitu; baina, ez dauzkanez gero, positibotzak jotzen dugu, beste irakaslegoa bezala, Gasteizko Gobernuak administratzen gaituen Madrilgo



funtzionaritza izatea, «ghetto» bat eginaz itxurazko funtzionaritza autonomoa izatea baino.

Nola pasa gaitezkeen eskola transferituetako langilegoa izatera? Ikastoletako irakasle gehienek lanean hiru urte baino gehiago daramatzatenez gero, bidezko eta nahitaezkoa deritzagu oposaketa errestringituen bidez lanpostua ziurtatzeari. Ez dugu uste sindikatu batek ere hori ukatuko lukeenik, frankismoaren garairik gogorrean zapaldurik egon den irakaslegoari eskubide hori ukatuz.

Bukatzeke, eta laburpen gisa, ikastolen sorrera ere gogorra eta arriskutsua izan zela oroiterazteak merezi du; baina gogora orobat, herri-projektu batean finkatuaz, indartu eta loratu zaizkigula.

Orain ere, euskal eskola publiko eta autonomoaren lorpena herri-borroka gogor eta arriskutsuaren ondorena izango da. Ez dugu lortuko gure herria bi komunitatetan banatuaz (bi eskola publiko eraikiaz), ez eta gaurko eskola euskaldunak aparteko «ghetto» batean itxiaz.

Biharko eskola publikoa, gaurdanik eraikitzen hasi behar dugu. Eta horretarako bide egokiena, dudarik gabe, eskola transferituen eta ikastolen arteko batasuna indartzea dugu. Ikastolen euskalduntasuna galdu gabe, baina juridikoki eskola transferituaz berdinduaz.

## PSE-PSOEren erantzuna

**1. Salakuntza ugari egiten diozue EIKERI. Horietako batzu aukeratu ditugu hemen.**

**a) EIKEk ez omen du egiaz eta benetan eskola publikorik nahi. Projektuan bertan non eta zertan agertzen da hori?**

Euskal sozialistak azkeneko hainbat urte hauetan ikastolak zentru publiko bihurtzearen aldeko agertu izan gara behin eta berriro.

Egindako galderari dagokionez, uste dugu ez dela zuzena eta bai ia-ia maltzurra, baina hala ere erantzun egingo diogu.

Izan ere, Eusko Jaurlaritzak aurkezturiko Lege-Projektuak bi helburu ditu: lehenengoa eta behinena, EIKE organismo autonomo bat sortzea, eta bigarrena, ikastolen erregulapen juridikoa, bai EIKE organismo autonomoan sar litezkeenena eta orobat beren «status»arekin pribatuak bezala jarraitu nahi lezaketena ere. Horregatik da, hain zuzen, sozialistok ez badugu eztabaidatzen «zertasuna», hau da, ikastola entitate publiko bihurtzeko prozesua, «nolatasuna» baizik, zeren EIKE organismo autonomo horren sorkuntzak nahi eta nahi ez publikotasunezko bi eskola-sareren antolamendura garamatzala iruditzen bait zaigu, eta horren ondorio ekonomikoak (dirua xahutzea), politikoak (eskola publiko zeharo bereiztea) eta sozialak (Euskal Herriko ikasleak bi sare desberdinetan banatzea) ez bait zaizkie mesedegarri ez ikastolari ez euskararen normalizazioari.

**b) Sare autonomo baten muntaketa omen da EIKE. Zein sare-mota eta zergatik?**

Hortaz, EIKE Lege-Projektuak paraleloan doazen eta inoiz elkartzen ez diren bi sare publiko sortu nahi ditu: transferitua izan den eskola, alde batetik, eta ikastola bezalako zentru pribatu bat bestetik, bigarren hau Komunitate Autonomoko gainerako irakaskuntza publikoko antolamendutik urrunduz sare publiko autonomo batean txertatzen delarik.

Sozialisten iritziz, eskola publikoak, nola desberdintasun ekonomikoen hala kulturalen konpontzailea izan behar du eta EIKE proiektuarekin egiten dena guztiz alderantzizkoa da, hain zuzen; zeren sakralizatu egiten bait du gutxi batzurentzat ikastolan irakaskuntza euskaraz hartzeko ahalbidea, gehiengoarentzat posibilitate hori urruneko gauza bat gertatzen den bitartean, gaur egun Eusko Jaurlaritzaren politikarekin gertatzen ari den bezala; hau da, ez duela aurrera eramaten A, B eta D sistemak ezartzeko plangintza bat eta indar sozialekiko kontzertazio bat. Transferitutako eskola publikoan euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren prozesua erabide planifikatu batean eta irakasleen, gurasoen, sindikatuen, etab.en laguntzarekin eramateko moduan alegia, eta ez aldebakartasunez uneon Eusko Jaurlaritzatik eramaten ari den bezala, guzti horrek ondorioz irakaslegoaren, ikasleen, etab.en artean sortzen dituen disfuntzioekin.

**c) Projektu honek gestio demokratikoa ukatu egiten omen du. Zertan?**

Ez da EIKE Lege-Projektuak organo demokratikoak ezartzen ez dituelako, zeren aipatzen bait dira bertan Zuzendaritza-Konseilua, Irakasle-Batza, Junta ekonomikoa, etab., baina hala ere ahalmen kondarrak ematen zaizkie beroriei LOECE (Ley Orgánica de Centros Escolares) delakoan xedatzen denaren kontra, organismo hauek kompetentziarik gabe utzi eta Batzarre Nagusiari esleitzeko, non berehala ikusiko dugun bezala gurasoek gehiengo absolutua bait dute. Beste aldetik, figura berri bat sortzen da, Personal-Batzordearena, Projektuko lehen xedapen gehigarriaren beraren kontra dagoena hain zuzen ere.

#### **d) Zer eritzi duzue EIKEk gurasoei ematen dien eginkizun juridikoaz?**

Eskola-komunitateko zuzendaritzako organoei kompetentziak kentzean, badirudi Eusko Jaurlaritzak bere Lege-Projektuarekin ikastolen antolamendu demokratikoari kontserbadore-izaerako edukin ideologiko bortitz bat erantsi nahi diola; izan ere, gurasoen esku uzten bait ditu ikastoletan burutu daitezkeen erabaki guztiak, ikasleei, irakasleei, udal-ordezkariei eta pertsonal ez-irakasleari indarrean dirauen ordenamendu juridikoan errekonozitzen zaizkien ahalmen legitimoak ere ukatuz. Eta horrela gertatzen zaigu, gurasoek, projektu hori dela medio, pertsonal irakaslearen eta ez-irakaslearen doble ordezkari dituztela Batzarre Nagusian eta ikasleek eta udal-ordezkariek ezin gaindi dezaketela Batzarre Nagusian pertsonal irakaslearen eta ez-irakaslearen heren bat hurrenez hurren.

#### **2. Bi sare mantentzearen edo sortzearen aurka zaudete, diskriminazio-iturri direla eta.**

**a) Ikastolaren eta transferituen «convergencia» delakoaz mintzo zarete. Zer da «convergencia» hori? Zertan desberdintzen da integraziotik? «Convergencia» horren arabera, noiz bateratuko lirateke eskola transferituak eta ikastola? Noiz eta nola?**

Guk elkarbatzeaz hitzegiten dugu, zeren orain arte paraleloan joan diren bi sareek batzera iritsi behar dutela ulertzen bait dugu.

Gaur egun bereizketa fisiko, ideologiko eta ekonomiko bat ematen da eskola transferituaren eta ikastolaren artean. Egiaz Euskadirekin benetan tirandurarik eta xifridurarik gabeko herri plural, jasanbera eta bertan elkarbizitza gauza arrunta litzatekeeneko bat egin nahi baldin bada, hezkuntza elementu klabe bat dugu prozesu honetan, eta euskararen eta euskarazko irakaskuntzak, bigarren kasu honetan hautabide pertsonalak errespetatuz, transferitutako eskola publikoaren eta ikastolaren arteko elkarbatusneko prozesu baterantz jo behar du, maximalismorik gabe, zeren sozialiston ustetan prozesu hau geldia eta zaila izango bait da, era-

gozpen politiko, ekonomiko, etab.ekin. Eta, jakina, EIKE proiektuak ez du faboratzen ez elkarbatzea eta ez integrazioa.

Sozialistok ez gara egon Eusko Jaurlaritzak landutako proiektuaren kontra soilik kontra egoteagatik, baizik eta orain artekoan azaldu ditugun arrazoi guztiez gainera lege-projektu alternatibo artikulatu eta estrukturatu bat landu eta Eusko Parlamentura aurkeztu dugu hain zuzen ere, non ez dugun beharrezkotzat ematen EIKE bezalako organismo autonomo baten sorkuntzarik, «integrazioeko batzorde» baten sorkuntza baizik, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko ordezkariak, ikastolen federazioetako ordezkariak, sektoreko sindikatuen ordezkariak eta OHOk ikuskatzaile teknikoak osatua egongo litzatekeena alegia. Integrazioeko batzorde hau izango da integratu beharreko ikastolen zerrenda, lehentasunezko ordena eta kalendarioa elaboratuko dituen, udal bakoitzeko eskola-postuen beharren plangintzaren eta programazioaren arabera eta aurrekontuetako baliagarritasunei eta aurrikuspeni begiratuz.

**b) Euskal Eskola Publikoaren arazoan *euskal* horrek enbarrago egiten dizuela uste du abertzale askok. Zer ulertzen duzue *euskal* horrekin? Euskal Eskola Publikoan zeintzu lirateke Euskararen eta Euskal Kulturaren lekuak? Eskolak Euskal Herrian publiko izateko *euskal eskola* izan behar duela uste al duzue? (Ahalik eta zehatzen erantzun, mese-dez).**

Egiten diren galderak halako laborria sortu behar lidakete, baina euskaldunak abertzaleak bakarrik direla pentsatzen duen euskal biztanleriaren sektoreari zuzenduak edo hobeto esateko sektore horrentzat pentsatuak daudela uste dut.

Alabaina, gu gehiago kezkatzen gaitu «Euskal»-en edukinak «Euskal» edukitzaileak baino, eta horrela benetan arduratzen gaituena, irakaskuntza publikoaren aldean pribatuak askoz gehiago sustatu nahi izatea edo eskola publikoa bi eskola-saretan banatu nahi izatea da.

Horregatik, euskal eskola publikoak, gure eritzian, eskola integratzailea izan behar du eta ez bereizlea, elebiduna eta demo-

kratikoa, marginatuen, hau da zentru pribatuak ordaindu ezin ditzaketenen eskolaren irudiarekin hautsiko duena; hitz batean esateko ez dadila izan desberdintasun sozialak betierekotuko dituen eskola bat, zeren oso «Euskal» izanda ere, hau da, kontzeptu aberzale batetik begiratuta, benetan eskola kontserbadore bat baldin bada, eskola marginal bat, ziur egon guk ez dugula gisa horretako eskolarik apoiatuko, eta ez dugu egingo ezta eskola ideologia politiko baten funtzioan instrumentalizatu nahi baldin bada ere. Horretxegatik defendatzen dugu eskola pluralista bat.

Euskararen eta euskal kulturaren lekuak garrantzitsu eta integratzailea izan behar du euskal eskola publikoaren barruan; zeren ez baita ahaztu behar euskararen erabileraren normalizazioa ez dela egingo larderiekin, konbentzimenduekin baizik, eta batzuek uste dutenaren kontra, prest gaude euskara ez dadin monopolio bat edo talde abertzaleek instrumentalizatu izan, Alderdi Sozialistaren kontrako edo pentsakera abertzalearekin bat ez datozenen kontrako arma jaurtigarri bat bezala, nahiz eta pentsakera hori kontserbadorea edo erradikala izan.

Elkarren artean zubiak ezarri eta hitzegin egin behar da; eseri eta eztabaidatu; batzuetan akordiotara iritsiko gara eta bestetan adosezintasunak emango dira, baina elkarren ulerpeneko giro batean beti ere.

Euskararen salbazioa talde politiko eta sozialen arteko akordio handi batetik pasatzen da eta arazo honetan alderdi sozialista elementu klabea da.

**3. EIKE dela eta problema juridikoak aipatzen dituzue behin eta berriz: ikastolak estatutu publikoa hartzeko izan ditzakeenak, irakasleak funtzionari izateko izan ditzakeenak, etc. Lege-biabilitatea ukatzen diozue EIKERI. Bestalde, Madrilen agintean zaudete. Zer ari zarete egiten eta zer egingo duzue «ikastolen problema juridikoak» lehenbailehen bideratzeko? Noiz eta zertan aldatu behar duzue «Estatuto de Centros» delako hori?**

Bistan dago Autonomi Estatutua errespetatu eta Konstituzioari

men egiten diotenen egungo ordenamendu juridikoak dituen lege-eremuen barruan egikaritu behar ditzutela beren iharduera politikoak eta, beraz, ezin daitezkeela legeak apetaz salta. Eta zentzu honetan, EIKE projektua LOECEko artikulua frankorekin kontrakar bizian aurkitzen da, ikastoletako eskola-komunitatearen zuzendaritzako organoei dagozkien guztiekin funtsean. Ez da EIKeri bideragarritasuna ukatzen diogulako, berorren edukin politikoaren kontra gaudelako baizik, gorago agertu dugun guztiarengatik alegia. Horregatik, ikastolak sare publikoaren baitan sartzearen etorkizunari buruzko akordio politikoren bat emango balitz, salbatu ahalko lirateke egungo ordenamendu konstituzionalarekin ados egoteko izaera juridikoko eragozpenak lituzketen gaiak.

Irakasleentzat honako formula hauxe proposatzen dugu:

Egungo maisuek eta andereñoek gorde ditzatela beren lanpostuak eta irits daitezela funtzionari publiko izatera Estatuko Administrazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko akordio baten bidez, zeinaren ondorioz honek oposizio hertsietarako deia egingo bait luke hiru urteko denboraldian.

**4. Zuen ustetan, presa gehiegiz dabil EIKE, ez dago aski heldua. Gainerako oposizioak berandu eta beranduegi datorrela uste bide du.**

**Zergatik dator goizegi eta zertan dago gutxiegi heldurik?**

Guk ez dugu esan projektua heldugabea denik edo beranduegi datorrenik, soilik esaten dugu ez gaudela ados berorren filosofiarekin eta, beraz, beharrezkoa dela arazoari buruzko elkarriketak mantentzea.

(Euskaratzailea: *Gotzon Nazabal*)

## GIEren erantzuna

### 1.— Zer eritzi duzue EIKeri buruz? Zuen ustetan, zeintzu dira proiektu honen alde positiboenak eta negatiboenak?

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ikastolen Elkarteek eritziak, Ikastolen normalizazioari buruzkoak hain zuzen, arazo honetaz plazaratu ditugun bi dokumentuetan agertzen dira: «Ikastolen normalizazioari buruzko oinarrizko gogaetak» eta «EZELO eta Ikastoletako Lege-Projektuaren azterketa». Hemen esaten ditugunak norbaitek zehatzago aztertu nahi baditu, iturri horietara jo beza.

Hasieratik argi agertu nahi dugu, Eusko Jaurlaritzak onetsi eta Legebiltzarrera bere tramitaziorako igorri duen Ikastolen Estatutu Juridikoaren Proiektu-Legea (EIKE), ez dela guk nahi duguna. EIKeri buruzko gure eritzia argiago geldituko da, guk nahi ditugun etorkizuneko Ikastolak eta Euskal Eskola Publikoa, gaur egungo Ikastolen jarraipena izan beharko luketela aurretik esaten badugu, eta ez EZELOren jarraipena, EIKeren gestio-organoeetan, neurri haundi batetan, gertatzen den legez.

Jarrera honek baditu bere arrazoiak. Euskal Herrian dauden ikastetxe-motetatik, batenbatek Euskal Eskola Publikoaren ezaugarriak betetzen baditu, hori Ikastola dela begi-bistan dago. Fun-tsezko diren ezaugarriak: euskalduna, gestio demokratikoa eta pluraltasuna, Ikastola bezala betetzen duenik ez bait dago besterik. Beste bi ezaugarriak, publikoa eta doakoa izateak dira. Ez dago Eskola Publikorik eskolaren titularitza eta mantenua Erakunde Publikoren batek ez baditu bereganatzen. Ikastolak orain arte, nahiz eta kanpotik indarkeriaz ezarritako legeen arabera pribatuak izan, gurekiko, eskubidezko ikastetxe publikoak berak izan dira. Euskal



Herriko egoera normalizatu batetan, Erakunde Publikoak, publiko eta doakoak izateko aukera zor liokete Ikastolari, EZELO eta antzeko legeak irenstera behartu gabe, baina badirudi garai hori ez dela oraindik iritsi.

Halere, gero azalduko ditugun arrazoiengatik, hau da, sare bakarra gaur gaurkoz ez delako posible, EIKeren irtenbidea, nahiz eta aurrean aipatu ditugun akatsak hor egon, irtenbiderik onena dela derizkiogu.

Laburtuz, EIKeren alde positiboak eta negatiboak gure eritziz hauek dira:

#### **Alde onak:**

- Ikastolei publiko eta doakoa izateko hurbiltze aukera (eta nahi dutenei pribatu bezala segitzeko aukera) ematea.
- Euskaraz ematen den irakaskuntzan jarraitzeko segurtasuna eta sendotzeko ahalbidea.
- Ikastolak, herriaren laguntzaz sortutako ondareak beretzako gorde ditzake, erabilpenaren eskubidea erakunde publikoeti utziaz, baina jabegoa galdu gabe. Era honetara, ikastolen ondasunak ez lirateke Administrazioaren eskuetara pasako.
- Ikastoletan gaur egun dagoen gestio- eta organizazio-aldetikako jokaera hain ezberdinak batuko ditu, koherentzia haundia goa emanez eta ikastolak beren artean konparagarriagoak bihurtuz.

#### **Alde eskasak:**

- EIKE egiteko era. Lege-Projektua egiterakoan ez gara kontuan hartuak izan.
- Ikastoletako ordezkariak EIKeren Kontseilu Nagusiaren barnean duten errepresentazio kaskarra (14tik, 3).
- Koherentzia-falta ikastolen funtzionamenduko organigraman.
- Zehaztasun-falta organoen definizioan eta beroien funtzioetan.
- EZELO edo LOECeren muga barnean egina izana.
- Euskadiko indar ezberdinek onartua ez izatearen arriskua.

**Alde argitu gabeak:**

- Transitorioa izatea, Euskal Eskola Publiko bakarraren tarteko pauso bat izanik.
- Irakaslegoaren lanpostua segurtatzea, EIKEko funtzionari bihurtuz, dauden lekuetan jarraitzeko eta orain arte dituzten eskubi-deak mantenduz.

Nahiz eta eskutan dugun Lege-Projektuak ondoko puntuok ez dituen jasotzen, Hezkuntza Sailarekin izan ditugun elkarrizketetan hitzeman zaigu erabateko Legean jasoko direla.

Puntu nagusiak laburbilduz:

- *Eusko Jaurlaritzak onetsi eta Legebiltzarrera bere tramitazioarako igorri duen Ikastolen Estatutu Juridikoaren Projektu-Legea (EIKE) ez da guk nahi duguna.*

*Halare, sare bakarra gaur gaurkoz ez delako posible, irtenbiderik onena dela derizkiogu.*

**2.— Ikastolen normalizazioa dela eta, egin dituzuen oinarriko kontsiderazioetan gauza pare bat argi eta garbi utzi nahi duzue. Gehixeago zehaztea nahi genuke orain:**

**a) Sare bakarra gaur gaurkoz ez dela posible diozue. Zeintzu dira zuen ustez eragozpenak?**

**b) Sare bakar hori gerora behar beharrezkotzat jotzen duzue. Honi begira bi galdera:**

— EIKeren proiektuak honetarako biderik ematen al du?

— Integrazio-plangintza proposatzen duzuenek, nola bideratu beharko litzateke hori «anexiorik» ez dadin gerta? Gaur bertan zer pausu eman beharko litzateke? Zer egin batipat erdal irakasleekin?

— Partaideen «kotsentsua» esijitzen duzue zuek. Posible al da kotsentsu hori, eta nola?

Euskal Eskola Publikoen sare bakarra izatearen garrantzia eta

beharra uka ezinezkoa da. Eskola Publikoen sare bikoitza mantendu nahi izateak, sendar litzake orain artean alde guztietatik begiratuta ere hain kaltegarri izan zaizkigun ikastola eta eskola estatuen arteko diferentziak, espak eta era askotako etsaigoak. Baita ere egia da hezkuntz sare publiko bikoitza diskriminazio sozial, ideologiko eta linguistikoen iturri izan daitekeela. Halere, ez dugu uste, arazoa, sare bakarra izateko borondaterik dagoen ala ez, beharrezko den ala ez, diskriminaziorik sortu lezakeen ala ez jakitean dagoenik, zer-nolako sare bakarra nahi dugun eta posible den ala ez lortzea jakitean baizik.

Ikastolak sortu arte Euskal Herriko irakaskuntza publikoan sare bakarra izan dugu, baina hizkuntz eta kultur kolonialismoa transmititzen zituen sare bakarra. Ikastolak sortuz geroztik sare bakarra beti izan da posible. Eskola estatuetan beti izan dira irakasle euskaldunak. Diktaduraren ondoren ere eskola horiek nolabait alda zitezkeela sinetsiz bertan parte hartu izan dutenak eta horietako plazen jabe egiten saiatu direnak beti izan dira eta geroari begira irakasle euskaldunak ugaltu eta plaza horien jabe egiten saiatu behar zela aldarrikatu dutenak beti izan dira. Halere, beste eskola-mota bat sortzeari ekin zitzaion eta gehienek ikastoletara jo dute.

Sare bakarraren arazoa, besterik gabe planteatzea, sofisma bat izan daiteke, bapatean euskaldun sare publiko bakarra ez bada garrantizatzen. Sare bakarra ikastolak sortu aurretik bezalaxe, gaur ere posible da, baina Euskal Eskola Publikoen sare bakarra oraingoz ez da posible. Labur, eragozpenak aurkeztera goaz:

- Euskal Eskola Publikoaren sare bakarra bi zutabetan oinarritu behar da: ikastola eta eskola transferituetan eta bien arteko batasun-prozesuaren fruitu izan behar du, ez bata bestea anexionatzearen fruitu.
- Gaur gaurkoz Eusko Legebiltzarrak ez du konpetentziarik eta indar politikorik Euskal Eskola Publikoa sortzeko beharrezko liratekeen legeak arautzeko. Lege-baldintza hauetan, gaur egun sare bakarra izatekotan, estatal-eskualdatuetan urtu eta desegin beharko genuke, Espainiako Parlamentuak Estatuko eskola publiko guztientzat dituen baldintza berdinetan.

Ondorioak:

— Espainiako Parlamentuaren menpekotasun haundiagoan

jartzea, Euskal Eskola Publikoaren aldeko oso pauso koxkorra dela deritzogu.

- Ikastolak sortu dituen barneko gestio- eta partizipazio-motak desegiten dira.
- Irakaslego guztiak oposizioetatik pasa beharko du.
- Titulurik gabekoak: Eskolaurreko diplomatuak, etab... oposizioetatik pasatzerik ez dutenez gero, ezingo dute beren lanpostua mantendu.
- Oposizioa gaitutuko luketen irakasleak lekuz aldatzeko arriskuan gelditzen dira, orain arteko irakasle-batzak apurtuz.
- Aintzinasunezko eskubideak galtzen dituzte.

Lege-baldintza hauetan transferitutako eskolekin orain sare bakar bat eginez gero, urte askotako borrorak eta lorpenak arriskuan jartzen ditugu.

- Baina aurrekoa bezain inportantea edo inportanteagoa den beste arazo bat dago. Pentsa dezagun beste egoera politiko batetan gaudela eta Eusko Legebiltzarrak LOECE euskalduna eta Euskal Eskola Publikoko funtzionarien gorputza arautzeko ahalmenak badituela. Baldintza horietan ere sare bakarra izateak prozesu baten fruitu izan beharko luke. Ahaztu ezin ditzakegun datu objektiboak hor daude —transferituetako irakaslegoaren % 80 baino gehiagok oraindik ez daki euskaraz, adibidez— eta herriz herri ikastola eta transferituen arteko, nahiz fusionatutako ikastetxe-barrutan dauden tirandurak hor daude. Gaurregungo baldintza objektibo eta psikologikoetan oinarriturik, sare bakarra, nahiz eta asmo oso ederra izan, ezinezkoa da. Sare bakar hori osatzeko integrazio-plangintza bat egitea proposatzen dugu; ikastola eta eskola transferituen artean egingo den integrazio-plangintza, Euskal Eskola Publiko bakarraren diseinuaren arabera, bitarteko pausoak eta epeak markatuko dituen plangintza. Behetik gora bultzatuko den lana izan beharko du, gaurregun dauden ezberdintasun eta erresistentziak aurrez aurre errealismoz begiratuko duena. Era honetara sare bakarra berez etorriko den fruitua izango da.

Puntu nagusiak laburbilduz:

- *Euskal Eskola Publikoen sare bakarra izatearen garrantzia eta beharra uka ezinezkoa da.*
- *Gaur gaurkoz Eusko Legebiltzarrak ez du kompetentziarik eta indar politikorik Euskal Eskola Publikoa sortzeko beharrezko liratekeen legeak arautzeko.*

*Lege-baldintza hauetan, gaurregun sare bakarra izatekotan, estatal-eskualdatuetan urtu eta desegin beharko genuke, Espainiako Parlamentuak Estatuko eskola publiko guztientzat dituen baldintza berdinetan.*

- *Gaurregungo baldintza objektibo eta psikologikoetan oinarriturik, sare bakarra, nabiz eta asmo ederra izan, ezinezkoa da.*

### 3.— Gogorki kritikatzan dute ezker taldeek EIKEn gurasoen ematen zaien jokia (bereziki Biltzarre Orokorrean eta Pertsonal-Batzordean).

**Gurasoen ordezkariak duzuenek, nola ikusten duzue zuek auzi hau?**

Galderari erantzun aurretik ohar pare bat:

— Ikastolen Elkarteak edo Federazioak ez dira gurasoen ordezkariak, ikastoletako batzordearenak baizik, bailara bakoitzak, ikastoletako batzordeetako elementuen arteko Talde Bateragilea osatzen dute. Bailara bakoitzak askatasun osoa du bere ordezkariak aukeratzeko: guraso izan ala irakasle.

Tamalez, irakasleen errepresentazioa Ikastolen Elkarteo Talde Bateragilean ez da behar adinakoa. Zergatik? Irakasleen errepresentazioa ikastoletako gestio-organismoetan txikiegia delako?

Nahiz eta gaur egun irakasleen errepresentazioa ikastoletako gestio-organismoetan, gutxienez, % 25koa izan (Ikastolen Titulartasun Ofizialerako erabaki gehigarriak), gure ustez haundiagoa izan beharko luke.

Irakaslea nahiko nekaturik dagoelako bere ikastolan dituen

irakaskuntz arazoetaz eta arazo berdintsuetan aritzea aspergarria egiten zaiolako?... Ez dakigu, baina edozein erataraz argi utzi nahi dugu arazoa ez dela Ikastolen Elkartearen Estatutuarena, besteren bat baizik.

— Bestetik, ezker taldeek, EIKEko Biltzarre Orokorrean eta Pertsonal-Batzordean gurasoei ematen zaien aginpidea salatzen duela esaten da. Irakasleen joera, nahiz ezkerrekoak eta nahiz eskubikoak, askatasun osoa nahi izatea da eta ezkerrekoak bezain sutsuak dira honetan eskubikoak. Gurasoen joera, aldiz, nahiz ezkerrekoak eta nahiz eskubikoak, zenbat eta seme-alaben heziera kezkatuagoak egon, orduan eta gehiago eskoletako gestioan parte hartu nahi izatea da. Gurasoen parte-hartzearen arazoa ez da argitzen ezker-eskuin hontzeptuetatik, hezkuntzaren filosofia-tik baino.\*YGurasoek, irakasleek eta gizarteak jasotzen dute haurren hezkuntzaren ardura. Hezkuntz komunitate honek eskolaren gestio-organoe-tan parte hartu behar duela inork ez du zalantzan jartzen. Arazoa honetan dagoenik ez dugu pentsatzen, estamentu horien parte-hartzea non eta nolakoa izan behar duen erabakitzean baizik. Gure eritziz, gizarteak erakunde publikoen bitartez, guztientzat jartzen dituen aranak ondo betetzen direla ziurtatu behar du ikastetxe bakoitzaren barnean, baina ikastetxe bakoitzari ahal den autonomiarik haundiena emanik gestio aldetik. Ez zaizkigu batere atsegin ezagutu ditugun ikastetxe estatalen, eta orain transferitu direnen funtzionamendu burokratiko eta itxiak.

Bestetik, gurasoen lekua irakaslegoarena bezain inportantea dela deritzogu. Ez zaigu ezta ere atsegin ezagutu ditugun aipatu ikastetxeetan, gurasoek duten partaidetza; izan ere, praktikan informazioa jasotzera eta kontsultatuak izatera mugatzen bait da. Honekin ez dugu esan nahi estamentu bakoitzak bere nortasuna izan behar ez duenik. Irakasleen batzak eta gurasoen kontseiluak, bakoitzak bere funtzionamendu guztiz autonomoa izan behar dute, baina erabakiak hartzerakoan, erakunde publikoen, gurasoen eta irakasleen ordezkarietaz osaturik dauden gestio-organoe-tan hartzen direla, baldin eta Guraso- eta Irakasle-Batzei erabaki konkretu batzuk hartzeko ahalmena delegatzen ez bazaie.

Azkenik, gestio-organoe-tako partaidetza-arazoa inguratzerakoan, ikasleak ezin ditzakegu ahaztu. Hezkuntza, azken batean, autonomi prozesu bat denez, ikasleek beren buru-jabetasunaren

aprendizaia ikas dezaten, dagozkien lekuetan eta adinaren araber, erabakietan parte hartu behar dute.

Puntu nagusiak laburbilduz:

- *Gurasoen parte-hartzearen arazoa ez da argitzen ezker-eskuin kontzeptuetatik, bezkuntzaren filosofiatik baino.*
- *Gurasoen lekua irakaslegoarena bezain inportantea dela deritzogu.*

#### **4.— Euskal Eskola Publiko batetan nola ikusten duzue Federazioen egitekoa eta etorkizuna?**

Euskal Herriko orain arteko eskubidezko Euskal Eskola Publikoa baten bat baldin bada, hori Ikastola da. Federazioak, ikastolek sortu zituzten eta ikastolen ordezkariak jasotzen dute beraien interes pedagogiko, linguistiko, ekonomiko eta instituzionalak zaintzeko. Ikastolak eskubidez direna, legez ezagutzen zaien orduan, bidezkoa da Ikastolak sortu dituen erakundeak ere beraien ordezkariak jasotzen jarraitzea, ikastolek zeregin hori Federazioen eskuetan delegatzen duten neurrian.

Sortuko den erakunde publikoan ikastolen ordezkariak jasotzeaz aparte, (kasu!: guk nola ikusten dugun Federazioen egitekoa eta etorkizunaz ari gara, horrek ez du esan nahi honela izango denik), Federazioen eginkizuna izango dela deritzogu, orain arte bezala, zerbitzuak eskaintzea: ikas materialgintza, irakasleen prestakuntzarako ikastaldiak, berreziketako koordinazio-zerbitzua, ikus-entzunezko didaktika baliabideak: bideoa, ikerketak, ebaluazio-zerbitzua, ikastoletako administraziorako ordenadore zerbitzua, material fungible eta pedagogikoaren banaketa, udalekuak, bertsolaritza irakaskuntzan... eta geroago ere ikastolek eskatuko dituzten gainerako zerbitzuak.

Bestetik, ahaztu ezin dezakegun beste arazo bat badago. Gaurregun Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ikastolen normalizazioaz ari gara, baina Euskal Eskola Publikoaz ari garenean eta hainbat Eskola Publiko bakarraz jo eta ke arrazoi guztiarekin ari garenean, ezin dugu ahaztu Nafarroa eta Ipar Euskadiko Ikastolen egoera.

Orain arte, euskal irakaskuntzaren koordinazio-lana Federazioek bete dute, gerora begira ere Federazioen iraupena beharrezkoa izango da euskarazko irakaskuntza Euskal Herri osoan bultzatzeko.

Azkenik, egoera politikoen gorabeherak aski ezagunak zaizkigu: atzo batzuk, gaur beste batzuk, eta bihar... zer? Ikastolen projektua herri oso baten projektua denez, egoera politiko faboragarri, baina aldagarri batetan ezin daiteke finka; ezta ere desaprobatu, jakina. Euskararen egoera ez dago ziurtatuta, ez legez (ikus, adibidez, Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua eta Euskararen Normalizazioaren Legearekin gertatu dena), eta oraindik okerragoa dena, ezta ere eguneroko harremanetarako komunikaziorako hizkuntza legez. Herri baten hizkuntza eta herri honek, beste edozein herri bezala bere hizkuntza eta kultura irakaskuntzaren bitartez ziurtatzeko duen eskubidea alderdi politikoen gaintik ala azpitik, baina guztion eskubide bat denez, gerora begira eta Ikastolen Elkarte edo Federazioa bezalako erakunde zabalak beharko dira Euskal Irakaskuntzaren iraupena eta zabalpena ziurtatzeko.

Puntu nagusiak laburbilduz:

- *Ikastolak eskubidez direna, legez ezagutzen zaien orduan, bidezkoa da ikastolak sortu dituen erakundeak ere beraien ordezkaritza jasotzen jarraitzea.*
- *Federazioen egitekoa izango da orain arte bezala zerbitzuak eskaintzea.*
- *Euskal Eskola Publiko bakarra, Nafarroa eta Ipar Euskadiko ikastetxeek, batean elkartzen garenean izango da. Bitartean Federazioen iraupena beharrezkoa izango da euskarazko irakaskuntza Euskal Herri osoan bultzatzeko.*
- *Egoera politikoen gorabeherak aski ezagunak zaizkigu...*

*Ikastolen projektua herri oso baten projektua denez, gerora begira Ikastolen Elkarte bezalako erakunde zabalak beharko dira Euskal Irakaskuntzaren iraupena eta zabalpena ziurtatzeko.*



## IRAKASLE-ELKARTEAren erantzuna\* (1)

1. Salakuntza ugari egiten diozue EIKERI. Horietako batzuk aukeratu ditugu hemen:

a) EIKEk ez omen du egiaz eta benetan eskola publikorik nahi. Projektuan bertan non eta zertan agertzen da hori?

b) Sare autonomo baten muntaketa omen da EIKE. Zer sare-mota eta zergatik?

c) Projektu horrek gestio demokratikoa ukatu egiten omen du. Zertan?

d) Zer eritzi duzue EIKEk gurasoei ematen dien eginkizun juridikoaz?

Eusko Jaurlaritzak, Legebiltzarrari aurkeztu dion Lege-Projektuan irakurri ahal izan dugunez, ez du Euskal Eskola Publikoa eraitzeko borondate politikorik agertzen.

«Exposición de motivos» izeneko atarian, Ikastolen historia laburra egitean eta beronen etorkizun hurbila aurrakustean, Lege-Projektuaren helburua «Ikastolen Instituzionalizatzeko hutsa» besterik ez dela irakur genezake: «... La presente Ley responde a la necesidad democrática de ofrecer soluciones institucionales que canalicen las aspiraciones populares contenidas en la experiencia histórica del movimiento de las Ikastolas...» eta aurrerago hone-

\* Irakasle-Elkarteak bi erantzun bidali dizkigu.

laxe dio: «... la presente Ley regula el régimen jurídico de las Ikastolas y protege, respeta y apoya la continuidad de este movimiento surgido de las raíces de nuestro pueblo en la ...».

Honen arabera, baieztapen bat egin dezakegu: Eusko Jaurlaritzak Ikastolen mugimenduaren jarraipena babestu, errespetatu eta bultzatu egiten du.

Eta, bestalde, honako hipotesiok planteatu ditzakegu:

— Ez du Ikastola Eskola Publikoa bihurtu nahi.

— Ez du Ikastola, Transferituarekin elkartuz, Euskal Eskola Bakarra egin nahi.

— Ikastola Euskal Eskola bilakatu eta indartuz, Transferitua ito nahi du.

— ??????? ...

Beraz, Legearen hitzetara mugatuz, hipotesiak desberdinak litrateke, Hezkuntz Politika garbirik eza nabaria delako. Ikastolen etorkizuna, ez da beste eskola ereduakiko bera, alegia.

— Eskola Publikoak, Euskal Herrian, gure ustez honako baldintzok bete beharko lituzke: euskara eta euskal kultura barneratu, gestio demokratikoa, bakarra, diskriminazio ideologikorik gabekoa, doakoa, eta kontratazio publikoa bertako langileentzat.

EIKE sortzeko Lege-Projektuak, ordea, aurreko puntuei dago-kienez, hutsune zenbait ditu;

— Ez du gestio demokratikoa berea egiten: ez ikastola barruko funtzionamenduan, ezta EIKEko gorengo aginte mailetan ere; lehenagoan gurasoen eragina «gehiegizkoa» da eta bigarrenen, politikari eta berauek izendatutako burokratena ezin handiagoa.

— Gorago aipatu dugun bezala, Lege-Projektu honek ez du Eskola Publiko Bakarraren beharra aldarrikatzen.

—Ikastola bakoitzari «Hezkuntz Projektua» egiteko ahalmena eskaintzen dio. Beraz, positibotzat jotzerik balego ere, alde negatiboa ikus diezaikegu: gurasoen berezko ideario egitea, guraso «gehiengoarena»... «gutxiengoaren pentsakera» zanpatzeko arris-

kutan jarritz eta irakasleekiko berezko kontrol ideologikorik inposatuz.

- Gratuitatea, doatasuna, inondik ere ez da Lege-Projektuan aipatzen.
- Ikastoletako langileen etorkizunaz, arauak arras ilunak agertzen zaizkigu. Irakasleei dagokienez, hain zuzen ere EIKEn sartuko liratekeen irakasleen artean bi eratako langile-mota leudeke: funtzionari dena (oposizioak, oposizio-lehiaketa edo lehiaketa gainditu duena) eta kontratatua. Gisa honetan, lehendik pribatu eta transferituekiko bereiz baldin bazegoen ere, orain hori bera instituzionalizatu egiten da eta gure artean beste zatiketa bat ezartzen da: funtzionari eta kontratatua, beronek eskola transferituetan ekarri izan duen sektarismoa ikastolan bertan txertatu nahiz.

## 2. Sare bakarra proposatzen duzue.

### a) Sare bakar hori *posible* al da gaur eta hemen, ikastolarentzat kalterik gabe?

Ikastolek, historia laburra dute. Halere, azken 25 urteotako epe motz honetan zehar sekulako aurrerakada jo dute, hazkuntzeari dagokionez. Aurrerakada hau, erabat nabaria agertzen zaigu Gipuzkoako herri guztietan, beste eskoletako ume kopuruekiko.

Beste lurralde historikoetan izan den bilakaera kontutan hartuz, ordea, ez dugu horrelako datu erraldoirik aurkitzen.

Ikastolak, euskara eta euskal kulturari eusteko eta indartzeko sortu baziren, eta lurralde historiko guztietan helburu hau bete nahi bada, honako hau aitortu beharrean gaude: «Ikastolek, beraien bakarrik, euskalduntzearen barruan eskolari dagokion zeregina ezin dute bete». «Euskal Herrian irakaskuntzan diharduten beste eskolek eskuhartu beharra daukate zeregin kolektibo honetan».

Argudio hau erabiliz, beste hainbat arrazoi tartean direla ere

ahazteke, aldarrikatzen dugu «*Euskal eskola bakarra*», helburu nagusia bait da.

**b) Zein dira zehazki zuen ustezko oztopo nagusiak horretarako eta nola gaindi daitezke?**

Ikus ditzagun ordea, une honetan, gaur bertan, helburu hau lortzeko agertzen zaizkigun oztoporik handienak:

a) Esparru legala... Espainiako Konstituzioa, Gernikako Estatu-tua, LOECE, Decreto de Bilingüismo, LOAPA..., eta gaine-rako legeria zentralista eta espainolak oztopatzen du bete-betean geuk urratu nahiko genukeen *Euskal eskola*. Goazen punturik puntu:

a.1. LOECEk, eskola estataletarako gestio-eredu berezia ezartzen du (Administrazioa da nagusi, zuzendaria da bere ordezkari; gurasoen eragina, ahuntzaren gauerdiko eztula besterik ez da; boterea, aginteak du, ez eskola osatzen dutenek). LOECEk berak ere, eskola pribatuetarako beste eredu berezia ezartzen du (Guraso taldeak du nagusitasuna, ideiariora eta kontrol ideologikoa...).

Eredu estatala hartuz gero, erabaki politiko eta interes partidisten arabera eskola sortzen da, oinarritzko jendearen eritzi eta jarreraren gainetik.

Eredu pribatua hartuz gero, diskriminazio ideologikoren ezpata gainean dugu. Beharko genukeen eskola, ez bata eta ez bestea: boterea, eskolan eta estamentu guztien artean egoki banatuta, oreka batez.

a.2. Ikastolek, euskara eta euskarazko irakaskuntza planteatzen dutenez, urratu nahi dugun *Euskal eskolak, euskalduna* izan beharko luke. Euskararekiko jarrera zentralista (AP, PSOE...) ikusita, eskola transferituak ez al lirarteke ikastola bitartez irabazitako euskalduntze-mailen hilobi bihurtuko?

a.3. Ikastoletako langileen egoera. Transferituen mailara

igaroz gero, irakasleok kontratatu huts bihurtuko ginateke: oposizioak prestatu behar, soldatak murriztuta, epe laburrera lan garantiarik gabe... Beraz, ikastolen historian zehar, irakasleek lan egoera miserablea jasan badute, gurasoekin etenaldi gogorak izanik lan egoera piska bat hobea lortu bada azken urteotan, orain gauetik goizera gurasoek eskaintzen zizkiguten lan baldintzak baino kaskarragoetara makurtuko ginateke. Benetan masokistak!

Hona hemen, oztoporik handienetariko bat... beronek, dudarik gabe, ekarriko bait du gure arteko desmoralizazioa eta lan profesionalaren behemilakatzea.

- b) Indar politikoen borondatea... Gaurregun, indar abertzaleen arteko desberdintasunak eta tirabirak nabariak izanik, nola demontre itxaron dezakegu PSOE eta AP espainolengandik euskararekiko laguntza?

Esan bezala beraz, *sare bakarra* aldarrikatu arren, oztopo ugari, eta une honetan, behintzat, gaindi ezinezkoak ikusten ditugu.

Horregatik, defendatzen dugun irtenbidea, ondoko puntuetan oinarritzen da:

— Ikastolen mugimenduak, bere buruaz hainbat gogoeta egin beharra dauka: zer izan den, zer den, zer izan nahi duen.

— Gogoeta hauek, *Euskal eskola publikoa eta bakarra* bultzatzen badute, oraingo esparru legala eta egoera politikoa aztertuz, *sare bakarraren eraikuntzari nola ekin* erabaki beharra daukate:

— helburuak eta prozedura mugatuz,

— berauek transferituetako irakasle eta gurasoen jakinean jarritz,

— bata bestearekin elkartzeko epeak eta baldintzak, pauso sendoen bitartez.

Ostean, Euskal Eskola Publikoa eta Bakarra kimera hutsa izango da: bi ez dira elkartzen, batek nahi ez badu.

**c) Arazo zenbait eta zuen soluzioak hurbilagotik ikus ditzagun:**

**— funtzionaritza motak.**

Funtzionaritza motak... gure eritzia garbia da: Ikastoletako irakasleok, inongo prueba eta azterketarik gabe, funtzionari publiko bihurtu. Transferituetako irakasleak eta ikastoletakoak, Gorputz bakarrean bilduko lirateke. Ez dugu irakasleria zatitzeko eta mailakatzeko erabiliko den oposizio-sistema nahiz frogarik onartzen. Irakaskuntzaren profesional guztiak, maila berean ekonomikoki eta juridikoki.

Oinarrizko baldintza hau barneratzen ez duen Eskola Publikoa, porrot egiteko arriskuan jartzen dugu.

**— irakasle erdaldunaren borondatea.**

Irakasle erdaldunaren borondatea... orohar, puntu delikatu samarra izan arren, borondate hau euskarazko irakaskuntzaren kontrako da nagusiki. Hau ukatzen duena, itsuturik dago, edo okerrago oraindik, itsuarena egin nahi du. *Euskal eskola publikoa eta bakarra* eraikitzeke, irakasle euskaldunak eta alfabetatuak gutxienezko baldintzak dira. Eta era honetan, eskola transferituetako irakasleak ez daude euskara ikasteko prest (portzentaia nagusia), eta are gutxiago beren lanpostuen likidapena suposatuko lukeen alternatiba defendatzeko: *Euskal eskola*.

**— transferituen eta ikastolen elkarketa hori egiteko «kontsentsua» beharko litzateke, Federazioen ustetan. Kontsentsu hori (irakasleena, gurasoena nagusiki) posible ikusten al duzue?**

Irakasle-Guraso arteko kontsentsua... ez da gauza erraza izango. Hala ere, badira guraso eta irakasleen arteko puntu komunak, eta prozedura egokiak erabiltzen saiatuko balitz, konfliktoak gainditzeko posibilitateak ugariagoak izango lirateke. Gure ira-

kasle arteko kontsentsua bezain garrantzitsua, ikastolan inplikata dauden sektore politikoen arteko kontsentsua da.

**3. Integrazioa egiteak berak adina kontu lezake arazo honetan bateratze hori egiteko *moduak*, elkarketa hori zein kondiziotan egiten den alegia. Ikastola suntsitzeko arrisurik gabe nola egin daitekeela uste duzue? Bestalde, zeintzu lirateke elkarketa horren abantailak?**

Elkarketa hau kondizio onenetan egiteko, ikastolak zein eskola transferituek etengabeko prozesu bateratu eta planifikatua bete behar dute. Aurreko lerroetan aipatu dugunez, prozesu hau hone-laxe ikusten dugu.

- Ikastola eta Eskola Transferitua ados jartzea eraikiko litza-tekeen *Euskal eskola publikoa*—ren ereduaz.
- *Euskal eskola publikoa* lortzeko epeak eta pausoak antolatu.
- Ikastola eta Eskola Transferitua, norbere aldetik, antolatu-tako pausoak ematen saiatu.
- Ikastoletako irakasleagoa eta Eskola transferituetako irakas-legoa, bakoitza bere estamentutik desligatu eta Eusko Jaur-laritzaren funtzionari bilakatuz, funtzionari gorputz baka-rra osatu.
- Epea beteta gero, jarritako helburua iristea: *Euskal eskola publikoa*.

Elkarketaren abantailak izendatzean, desabantailak ahazteke, kontutan hartu beharra dago ez dugula elkarketa hau oraintxe bertan planteatzen, astiro eta eztabaidak eginda gero baizik.

- Euskal Herriak izango luke, orain arte ukatu zaiona: *bere eskola, Euskal eskola*.
- Eskola honek, diskriminaziorik gabekoa agertuko du bere burua:

- Hizkuntz diskriminaziorik gabe (transferituetan une honetan dagoena).
- Ekonomi diskriminaziorik gabe (Ikastoletan une honetan dagoena).
- Bertako gestioa, oinarritik hasita goimailako erakundeetara kutsu demokratikoaz egingo litzateke, estamentu desberdinen interesak eta nahiak bideratzeko aukerak eskainiz.
- Gratuitatea.
- Irakasleen batasuna Funtzionari–Gorputz bakarrean, irakasle arteko zatiketa eta mailaketarik gabe.

#### 4. Zein da zuen ustetan irakasleen gogoia:

##### a) EIKE onartzea?

##### b) Sare bakarra gaurdanik egitea eta bultzatzea?

Ikastoletako irakasleen gogoia zein den asmatzea zaila zaigu benetan, begi bistan ditugun bi alternatibak nahiko ilun agertzen bait dira:

- Ideologikoki, aukeratu beharra dago EIKEk proposatzen duen eskola–eredua ala EEPAk defendatzen duena (orain arte —aho batez— desegokitzat jo duguna).
- laboralki, berriz, aukera bihurriagoa: EIKEn bide ilun eta ezezaguna ala EEParen amildegi ezagunegia.

Pentsa dezakezuenetz, sekula baino despistatuagoak gaude alternatiba baten aurrean zein bestearrean.

- ideologikoki, EIKEn bitartez Eusko Jaurlaritzak ikastolak kontrolatu nahi dituela sumatzen dugu; eta, bestalde, EEParen alternatiban ikastolaren «likidazionismoa» aurrikusten dugu, eskolaren kontrola esku arrotzetan utziz.
- laboralki, EIKEk ez digu ezer garantizatzen: «gure borondatezko» kontratu–haustura egin ondoren, ez dakigu argi eta garbi zer aurkituko dugun hurrengo izkinan.



EEPAk, «gure borondatezko» kontratu-haustura berbera eskatu ondoren, Espainiako Irakasle-Gorputzean sartzeko oposizioak egitea aholkatzen digu.

Deskribio honen aurrean, ez da zaila suertatzen irakaslegoaren despitsea sumatzea. Honi gehi diezaiogun batasunik eza, eta horra hor ikastoletako irakasleei «gol» polita sartzeko aukera samurra...

*Datu bat besterik ez:*

Ikastoletako soldata (1983)..... 975.000 pta.  
(65.000 x 15 ordainketa)

Kontratatu baten soldata ..... 880.000 pta.  
(65.000 x 12 ordainketa + 50.000 x 2 extra)

Lanpostuaren garantia: bizpahiru urtez —majo borroka egin ondoren— lortuko dugu, beharbada, geure lanpostua ziurtatzeko; baina, handik aurrera gure «plazak» lehiaketan jarriko dira eta gure eskubideak Irakasle-Gorputzaren barruan zera izango dira: ahuntzaren gauerdiko eztula (Ormaiztegiko eskola, adibidez).

Ondorioak: lanik gabe geldituko litzateke, inongo indemnitziorik gabe eta desenpleoa kobratzeko eskubiderik gabe.

*Azken oharra:*

Bai EIKEn bai Eskola Transferituetan sartzeko, Irakasleok geure kontratuaren likidapena egin beharrean gaude oinarrizko baldintza gisa. Baldintza hau gabetanik *ikastolak ezin lezake inongo pausorik eman, irakasle guztiak despeditu eta indemnitzatzen ez baditu. Irakasleen bitza eta ekintza, beraz, funtsezkoa da arazo honen barruan.*

**5. Eskola Publiko batetan nola ikusten duzue Irakasleen Elkarteen egitekoa eta etorkizuna?**

## IRAKASLE-ELKARTEAREN erantzuna (2)

**1. Salakuntza ugari egiten diozue EIKERI. Horietako batzuk aukeratu digutu hemen:**

**a) EIKEK ez omen du egiaz eta benetan eskola publikorik nahi. Projektuan bertan non eta zertan agertzen da hori?**

Aspalditxo, ikastolen instituzionalizatzeko-prozesuaren aldeko haserako manifestaldietan entzuten hasi zen lehenengoz, gaurregun, herriaren zati handi batek —transferituen nahiz ikastolen inguruan mugitu— berea egiten duen oihu eta errebindikapena: «eus-kal es-ko-la, pu-bli-ko eta ba-ka-rra». Eslogan honen hitzek jasoko lituzkete, gure ustez, nahi dugun eskola publikoaren berezitasunak. Izan ere, ezin dakiok inondik ere eskola publikoari, benetan hala izan dadin, ken bakarra izatearen kalifikazioa.

Guzti honegatik bada, benetan euskal eskola publiko eta baka-rren aldeko estatutu batek barnehartu beharko lituzke zentru guztiak, ikastola nahiz «transferitua», eta euskal funtzionarioen gortutza sortu, transferitu eta ikastoletako irakasle-andereño guztiak batuz. Garbi dago EIKEK ez duela inondik ere horrelako planteia-menturik jarraitzen, eta batu beharrez, gaurreguno sare publiko-arekin kontatu gabe euskararen errekuperaziorako egiten diren ahalegin hauek bi komunitate linguistikoen sendotzea lor dezakete.

Ez da ahaztu behar, bestalde, EIKERen bidez proposatzen den hezketa-eredua 1980.eko ekainaren 19ko 5. Lege Organikoan oinarritzen dela. Lege honek, era garbi batetan «libertad de enseñanza» deitua izan dena onartzen du. Horrela, zentru pribatu

kontrola bere titularraren esku geratzen da, zentru publikoen kontrola administrazioaren esku geratzen den bitartean.

Areago oraindik, «comisión de personal» delako horren sorrerarekin, kontratazio pribatua ezarri eta inposatzen da izan ditzakeen diskriminazio guztiei atea zabaltzen zaielarik. Puntu honek, hain zuzen, ikastoletako irakaslegoak bere lehenengo konbenioan garbi adierazten zuen kontratazio publikoaren eskabidea ukatzen du, kontratazioaren aurreko baldintzen berdintasuna deuseztatzen duelarik.

**b) Sare autonomo baten muntaketa omen da EIKE. Zer sare-mota eta zergatik?**

Projektuaren 2. artikuluan dioenez, beraren menpe dauden ikastolen bidez euskaraz irakastea unibertsitarioak ez diren mailetan da EIKEren zeregina.

Artikulu honek, hizkuntz arrazoieta oinarritutako irakaskuntza sistemaren zatiketa dakar, ikastola ez den guztia erdal sare bat izatera kondentatzen duelarik. Horregatik esaten dugu sare autonomo baten muntaketa dela EIKE eta, projektu honen bidez, egungo ikastetxe publikoen euskalduntzeari uko egiten zaiola.

Horrela, irakaskuntzaren inguruko irakasle eta guraso-talde handiek, euskararen salbaziorako, eskatzen zuten bateratzeari, hizkuntz zatiketa-faktore den projektu batekin erantzun zaiot; bi irakaskuntz sare ezarri nahi dira, hizkuntza, istilu-sortzaile bihurtzen delarik. Izan ere, gure eritziz, euskararen errekuperaketarako egiten den edozein apustuk barnehartu beharko ditu egungo sare publikoaren eskolak, baldin eta, komunitate linguistikoen banaketa indartzearen ordeztu, uskal Herriko populazioaren berreuskalduntzea jotzen badu helburutzat.

**c) Projektu horrek gestio demokratikoa ukatu egiten omen du. Zertan?**

Diogun hau garbiago gera dadin, projektuaren artikulatuari lotuko gatzazkio.

Horrela, 14. artikuluan esaten denez, ikastolen gobernu-organuak kolegiatuak edo taldean burututakoak, eta bakarkakoak izan daitezke. Gure ustez, bi era hauen artean mailaketa bat eman beharko litzateke. Bakarkako postuetarako jendea behetik gora hautatua izango dela, eta, beti ere, taldeko gobernu-organuen menpe daudela adierazi beharko litzateke.

Aurrerago, 16. artikuluan, eta «Asamblea General»a (Projektua erdaraz dugunez) osatzerakoan, gurasoen kopurua irakasle-kopuruaren bikoitza da. Honi, udaletxearen ordezkarietza gehitzen badiogu, irakaslegoaren herena adina izango da; garbi dago edozein organok gorde beharko lukeen oreka eta proportzionaltasuna ez direla gordetzen.

20. artikuluan, berriz, eta irakasle-klaustroari dagokionez, ez dago garbi, barne-arauegia egiterakoan zereginik izango ote duen. Bestalde, eta ezer aipatzen ez denez, badirudi zuzendari eta beste edozein bakarkako karguren aurrean zeresan eta zereginik ez duela klaustroak.

23. artikuluan, eta hau guztiz gogorra da kontratazio publikoaren alde dagoen edonorentzat, kontratazio pribatua inposatzen da, eta nahikoa ez balitz, ez da horren barne ere proportzionaltasunik gordetzen, irakasle batek eta bi gurasok osatzen bait dute «comisión de personal» delakoa, zuzendariarekin eta udaletxeko ordezkariarekin batera.

#### **d) Zer eritzi duzue EIKEk gurasoei ematen dien eginkizun juridikoaz?**

Azkenengo urteotan eskola publikoaren inguruan egin diren definizio gehienetan entzun ahal izan ditugu (esatea erraza eta merkea bait da) nolabait ere, eskola publiko horrek izan beharko lituzkeen ezinbesteko baldintzak. Horrela aipatzen ziren euskalduna, pluraltasuna, demokratikoa, doakoa, zientifikoa eta abarreko hitzak. Baina, kontzeptu guzti hauek suskribitu arren, irakaskuntzan inplikaturik dauden sektoretariko batek bakarrik fenomenoaren jabetza ezin dezakeela izan deritzogu. Gure ustez, irakaskuntzan partehartzen duten haur, irakasle, guraso eta administrazioak

kontuan hartuak izan beharko lukete edozein plangintzari ekitera-koan. Orain, eskuartean darabilgun EIKEn proiektu honetan garbi dago guztiz primatu nahi izan dela sektore bat, gurasoena alegia. Aurreko puntuetan aipatutakoak berrikusiz, hortxe ditugu gurasoen proportzioak «Asamblea General» eta «Consejo de Dirección» direlakoetan, edo «Comisión de personal» delakoan.

Gauza bera ikus daiteke EIKEk izango dituen gobernu-organuak begiratzen baditugu (Consejo Rector, Lehendakaria, Gerentea). Eskuartean dugun projektuan ezin daiteke hauek arautzen dituzten artikuluetako batetan ere irakasle hitza irakur.

## 2. Sare bakarra proposatzen duzue.

### a) Sare bakar hori *posible* al da gaur eta hemen, ikastolarentzat kalterik gabe?

Sare bakarra proposatzen du EEPak eta horrekin ados gaude. Gure ustez, oso momentu garrantzitsua bizi dugu, gaurregun ikastolek pauso kualitatibo serioa eman behar dute, beren instituzionalizazioa eta juridikoki eta administratiboki normaltasuna izan behar dute. Segun eta nola egiten den hori gaurregun, horren arabera egongo dira hemendik aurrera izango ditugun aukerak arlo honetan, orain itxiko ala irekiko dizkiogu bideak nahi dugun Eskal Eskola Publiko Bakarrari.

EIKE edo antzeko zerbaitekin (hau da, ikastola sare autonomo baten sartuko lukeen edozein inizatiba, euskara ikastoletara soilik mugatuz eta bateratze bideak itxiz) ezin dugu onartu, honek aurrera begira zeharo itxiko lituzkeelako sare bakar horren bideak.

Ikastolak transferituekin administratiboki eta juridikoki paretatzea eskatzen dugu, eta hori gogor eskatzen dugu, hori eman arren ikastolen egoera ez dela gehiegi aldatuko uste dugulako; honek estatalekin bategite-prozesua irekiko lukeelako, eta orain arte bide hori itxiko ez duen beste alternatiba posiblerik ikusten ez dugulako.

Ikastolek antzera jarraituko dutela baieztatzerakoan zera esan nahi dugu: Ikastoletan euskara berdin-berdin, egun bezala, ematen jarraituko da, horretarako B eta D ereduak mantentzea es-

katzen da. Horrek esan nahi du ikastoletara sartuko den irakasle berriak nahitanahiez euskara jakin beharko duela eta ez dela irakasle erdaldunik sartuko (hau gehiegi aireatu da egun hauetan eta gezurra iruditzen zaigu). Gestio-aldetik, guraso eta irakasleen esku dago orain arte bezala jarraitzeko aukera, eta, ziur gaude, hauek prest baldin badaude eta horretan gogor jartzen badira, administrazioak ez du aukera haundirik (eskola estatal askotan gestio demokratikoa dute eta pedagogi plangintza aurrerakoiak daramatzate, nahiz eta Administrazio atzerakoi baten pean egon). Irakasleak diru publikoaz ordainduta egongo lirateke. Eta, inportanteena, lehen esan bezala, Euskal Eskola Publiko Bakarrentz bideak irekiko lirateke, berritze eta benetako eskola demokratikoranzko bideak denon artean eztabaidatuz (argi utzi nahi dugu prozesu honek bikoitza izan behar duela eta egun ikastoletan hasi diren debateek estataletara pasa behar dutela, hauek ere definitzen eta posizionatzen has daitezzen).

#### **b) Zein dira zehazki zuen ustezko oztopo nagusiak horretarako eta nola gaindi daitezke?**

Federazio, Euskal Gobernu eta beste hainbatek ez dute garbi eta argi azaldu zer-nolako bidea ikusten duten prozesu honetan. Zer nahi ez duten esan digute, baina nahi dutena ez, nola emango den eta zer ondorio izango duen.

Honek alde batetik konfusionismoa sortzen du eta bestalde bidea luzatu. Epeak eta pausoak emateko garaia heldu da, eta orain ez badira gauzak egiten gero berandu izan daiteke. EEParen alternatibak «pega» asko du, erraz jar ditzakegu eragozpenak, baina lehen ikastolak oso egoera gogorrean sortu ziren bezala (orain baino lege arazo askoz ere grabegoak jasan zituzten, eta hau badirudi inork ez duela kontutan hartu nahi) orain denok horren alde posizionatuko bagina, posible ikusten dugu Administrazioaren aurrean gure esijentziak lortzea, eta hau oso garrantzitsua iruditzen zaigu. (Hau esaten badugu, Federazioan eta antzeko tokitan, EEParen alternatiba teorikoki oso aproposa iruditzen zaiela entzun dugulako da, nahiz eta —diotenez— legalki egingarria ez izan).

Beste oztopo bat gurasoen mesfidantza eta posesio-sentimentua (ikastolekiko) da. Guraso asko beldurrez dago, uste bait du ikastola eskuetatik joango zaiola, hainbeste urtetan eta hainbeste lanez lortutakoa edozeinen esku geldituko dela. Lehen aipatutakoa esan nahi dugu hemen: Ikastolek antzera jarraituko dute, ez da aldaketa sakonik emango eta bide hau burutzean (Eusk. Esk. Pub. Bakarra lortzerakoan) denonak, herriarenak, izango dira.

Gurasoen informazio-falta eta definitze-eza ere oztopoak dira. Aurrean aipaturiko beldurrak sortzen dituztelako eta debate garbi baten bideak itxi ditzaketelako.

Irakasle askoren lanpostuekiko zalantzak ere azaltzen dira eta honek askotan immobilismora eramaten ditu. Beldurrak eta mesfidantzak sor daitezke, eta aldatze-nahirik ez egotera eraman gaitzakete.

Estataletako irakasle askoren euskararekiko arreta eskasa. Estataletako irakaslegoak eta gurasoek ikastoletan ematen den prozesuaren antzekoa izan behar dutela uste dugu, eta beraien parte-hartzeak gurea bezain inportantea izan behar duela. Puntu honetan, Estataletan euskararen plangintzarik ez egotea aipatu behar da, oztopo bezala. Orain arte emandako pausoek ez dute ezer konpondu, ezta ezer konpontzeko biderik jarri ere.

### **c) Arazo zenbait eta zuen soluzioak hurbilagotik ikus ditzagun:**

#### **— funtzionaritza motak.**

Puntu honetaz asko hitzegin da eta kezka asko azaldu ere bai. Momentu honetan, EEPak bere eztabaidetan izandako jarrera ezberdinak azaldu dira.

JAKIN connaît les différentes opinions et prises de position face à ces problèmes. Au lieu de les répéter à nos lecteurs, nous avons préféré les éclaircir, les expliciter et les détailler. Pour ce faire, nous avons voulu «obliger» chaque collectif à «se définir» par rapport aux points qui, d'après nous, restent obscurs, pas tout à fait explicites ou que d'autres peuvent considérer comme tendancieux dans un sens ou dans l'autre, ou encore qui sont les plus durement attaqués par les opposants. Ce souci nous a conduit à l'élaboration d'un questionnaire différencié pour chaque groupe. Ce questionnaire écrit a été envoyé au Gouvernement Basque, aux Fédérations des Ikastolas, aux Associations des Irakasles (enseignants) des Ikastolas et aux partis politiques suivants: PNV, PSE, HB, EE. Dans le texte en euskara nous publions le questionnaire ainsi que les réponses reçues.

ORAIN eta HEMEN

---

GAIAK

---

LIBURUAK

---



## JAKIN profanatu, edo Gorritiko gauza ikaragarriak

Gorritik datoz orain notiziak, ikaragarriak. Sekulako poli-  
ziaren sarete batetan, gaizkin guztien kontra, Espainiako  
ordenu zaintzaile bizkorrek Abruza Abruza eta Balda Balda  
ezezik, azkenean herriko apaiza bera preso atzeman dute  
Gorritin.

Jende gaiztoa da Gorriti aldeko hori nonbait. Iruñeako Go-  
bernadoreak eman du parte, kontuz ibiltzeko mendialde horie-  
tan, non eta bospasei urteko umetxoan monopolia bera terro-  
rista bait da, guztiz explosiboa. Ez dakigu asko zer gauden  
ikusteko Nafarroan oraindik.

Iratia, TB, prentsa, biziki saiatu dira egun osoan aireak eta  
lurrak ondo informatuta edukitzen, poliziaren ekintza prestu  
eta ausart hori mundu guztiak behar bezala ezagun zezan eta  
espantuz miretsi.

Izan ere, ez bait da nolana hikoia izan. Halako arrisku tokian  
halaxe egin beharra zegoela erraz konprenituko denez, poliziak  
segur aski «al asalto» hartu behar izan zuen Gorritiko apaize-  
txea. Zein atake zaila eta gogorra izan zen, eta nolakoa sarras-  
kia, argazkietatik pentsa daiteke. Hankaz gora etxe dena: erre-  
dizak hautsita, atek orpotik aterata, aulkiak zilipurdika, libu-  
ruak eta paperak alde guztietara sakabanatuta. *Sacco di Gorriti*.

Eta hondamendiaren zarpail lardaska nahasian, lurrean bo-  
tata, buruz behera, JAKIN aldizkari batzuk ere ikusten ziren  
*Egin*-eko argazkietan.

Poz izpi bat, hainbeste subnormalentzako gezur-informa-  
zio eta miseria artean. Behar den tokian gaudе: behar den gizo-  
nek han gauzkatelako. Biba Borriti!

Gorritiko apaiza, Arrizibita eta Ansorena, makina bat aber-  
tzale gaztek egunotan gogoratua, euskaltzale zaharrek, euskal-  
dun berrik, berrizkok, umek eta larrik, ezagunagoa inoiz hari  
baino beti harek egindako mesedeengatik euskal herrietan:  
orain preso Espainian. «Gorriti, negarra darik begiti».

Hator Nafarroara. ■ *Lazkano Mendizabal*

## Gaixo apaizak eta ex-seminaristak!

Gaur goizean *Tribuna Vasca*-n agertutako artikulu bat bidali dit adiskide batek: «El callejón sin salida de la euskaldunización». Jose María Basalduak idatzia. Fetxarrik gabe, eta gaurko zenbait erreferentzia ahaztuta, ikusi izan banu, *La Voz de España* batek, *La Unidad*-ek, *El Diario Vasco* batek 1937 inguru ilun hartan idatzitakotzat joko nuen. Ba, ez, 1983an idatzita dago, urtarrilaren 30ean.

Baina noan arira.

Apaizak ez dira oso ondo gelditzen artikulu horretan. Be-rauek dute, egileak hainbeste gorrotatzen duen, abertzaletasunaren errua: «delirio clerical fascista que es el nacionalismo vasco». Abertzaletasuna inbentu hutsa da, eta inbentu horrekin «resecos caletres clericales han alienado, enloquecido, cuando no criminalizado como en el caso de ETA, a un amplio sector de su propio pueblo». Eta Euskadi, zer da Euskadi? «Esperpento clerical fascista» da Euskadi. Eta, agi denez, euskararen normalizapena eta euskalduntzea, «patrañas y monsergas de la clerecía euskaldun».

Egoera honen aurka borrokatzera deitzen gaitu J.M. Basalduak. «La necesaria desalienación» delakoa proposatzen digu: «liberar a este buen pueblo vascongado de los mitos y engaños de su clerecía —y de sus acólitos nacionalistas—, en que ha estado secularmente ahejorrado».

Basalduaren artikulua lurrarean nengo, artean, zein alienatua nintzen pentsatzen eta senditzen; desalienatzea: espainoltzea da eta haren ustetan. Horretan nagoela, maiatzaren biko *Hoja de Lunes* hartzen dut eskutan, eta han Federico Krutwig Sagredoren artikulua. Tituluak erakarrita, agian. «Kultur alienazioa» deitzen bait da idazlana. Eta zer da eta, alienaziope batetik irten aurretik beste batean sarturik ikusten dut neure burua. Ez naiz euskal kulturazale jatorra, espainarra naiz euskaraz idatzi arren, ez naiz euskaldun jatorra.

Krutwigek dioenez, kultura espainolak janda dago euskal kultura, alienaturik, menperatzailearen kultura onartu egin bait dugu. «Kanpoko kultura ethnophono baten bidez alienaturik» gaude; «españar kulturaren pithêkoak» gara gizajook. Eta? Hona bigarren partea: zeinek du egoera honen errua? Zeinek izango du ba, ex-seminaristak, edo nahiago bada, «euskal mikro intelektualak». Hona pasarte bat:

«Euskaldunen kontra aspaldidanik Statu españolek eta frantsesek hunelako krimena praktikatu dute, eta gaur eguneko euskaldunik asko' hunelako ethnophoniaren produktu mesprezagarrria baizik ez dira. Eta nola menperatu herriek bethi beren menperatzaileen kultura onhartzen bait dute, eta munduan bakharrik eta soilik dagoen kultura gora dela uste bait dute, halatan ere euskaldunek' españar eskolaren bidez beren kultura osoa hartu dute, eta ez dakite kultura huntatik kanpoan pentsatzen, eta hunela kulturaz kolonizatu dagoen zentral Afrikako herriak bezalakoak dira. Huni buruz' epokha batetan non Euskalherrian ia ezein ere egiazko kultura sartzen ez zen, baserriarrak' kulturgabeko izan zitezken: bainan ez zegoen kanpoko kultura ethnophono baten bidez alienaturik. Gaur egunean, ordea, erdal eskolaren bidez euskal mikro intelektualak, bethi españar kulturaren pithêkoak dira. Eta batez ere, nola Euskalherrian seminarioak bethi Euskalherriaren desnazionalizakuntzaren mintegiak izanik bait dira, kultur-kolonizatuaeren egokera hau' batez ere argi ta garbi agerten da Euskalherriko seminarioetan barna pasatu diren ex-seminaristak gan. Gure seminarista-ohi haukiek euskal kulturaren, españolaren kultur skhemak eta referentzien systêmak sartzen dituzte eta beren ingnorarantzia kapitalean, munduan dagoen kultura gorena, ia ia bakharra erdal kultura dela uste dute. Bainan euskal mikro intelektual hoiek beren kultur-gintzaren bidez Euskalherria beren izkribuez desnazionalizatzen dute, hunen egiteko euskara erabil dezatenarren.

Hona, ba, bi ikuspuntu.

Españiatik begiratuta, Basaldua lekuko, Euskadi, Euskal Herria bera, euskal historia, pertsegizioak, genozidioa... hori dena asmakuntza hutsa da. Eta horren errudun, apaizak eta hauen bereterrak.

Euskal Herriko goimailako kulturaren Olinpoaren gailurretik begiratuta, Krutwig lekuko, euskal kulturarik ez dago, denok alienatuta gaude, mikrointelektuala besterik ez dago bazterretan. Errudun? Apezkumeak.

Bi ikuspuntuok arrazoi ote? Baten ustez, euskalduntzearen errua, apaizak. Bestearen ustez, espainiartzearen errua, apaizak. Negoziaketa modan dagoen honetan, «Bake-mahainaren» inguruan bildu beharko lukete lehenbailehen Basalduak eta Krutwigek. ■ *Joan Larrinaga.*

## El callejón sin salida de la «euskaldunización»

Hona hemen textu bat. Zein textu ederra eta argia ederrik eta argirik bada.

Noizkoa ote? 1937koa? Holakorik frango agertu zen, bai, gerra- eta gerraoste garai hartan lurralde hauetan. Ikusi besterik ez dago *Jakin* 24.ean (5-73 or.) ateratako hainbat textu. Haien antz handia du ondoko honek. Hizkuntza bera, tonu bera, gorroto bera. Baina ez garai bera. 1983koa da hau, urtarilaren 30ekoa hain zuzen.

Nork egina ote? José María Areilza izan daiteke egilea, edo Luis Hurtado Alvarez, edo Luis Antonio Vega, edo Jaime Oliver, edo Sirimiri... Baina bada epigonorik. Jakin ez dakigu zein den, egin esan; José María de Basalduaren izenean agertu da, baina ezizena omen da.

Non argitaratua ote? Garai bateko *La Voz de España*, *La Unidad*, *El Diario Vasco* egunkari frankistaren batetan? Edo gaurko *La Gaceta del Norte* ultraeskuindarrean? Ez, ez. Bilboko *Tribuna Vasca*-n, PSOEn egunkari progresistan publikatu da artikulu distiratsu hau.

Tonu honetako artikulu bat, *gaurregun, gaitzizenez*, non eta *Tribuna Vasca*-n atera izanak badu muntarik. Oso esanahitsu da. Ez, egia esan, argudio berririk dagoelako bertan. Zaharrak berri. Hildakotzat ematen genituen herrak, sendimenduak, eritziak, gorrotoak ezjakinkeriak... hona bapatean bizirik, eta ondo bizirik aurkitzen ditugula. Elai batek ez duela udaberria egiten? Badakigu. Artikulu hau ez da mota honetakoetan bakarra, ordea, paraje horretan, *Tribuna Vasca*-n alegia. Emiliano Sernak, A.M. Ortiz Alfauk, Restituto Zorrillak, G. Diaz-Plajak, Rafael Salcedok, eta beste zenbaitek eman dute beretik. Artikulu hauen argitarazioak ez dakit udaberririk adierazten duenentz, baina sasoi berri bat baietz esango nuke: euskararen aurkako ofentsibarena. Ala ez? Denak atera bait dira 28-0 sonatuaren ondoren. Zer gertatzen da? Geroztik euskararen etsaiek seguruago, indartsuago ikusi dutela beren burua?

Basalduaren artikulua irakurrita, euskararen borrokarik badagoela konturatzen da bat. Borroka, bai. Ez, ordea, euskaldunok hala nahi dugulako. ■ *Joan Larrinaga.*

A Emiliano Serna, que ha tenido la valentía de decir lo que muchos callan.

Ya es desgracia que al nacionalismo vasco, folklórico, excursionista (mendigotzale) y mecapilas de Sabino Arana le haya dado de pronto el ramalazo lingüístico, y nos vuelva con la trasnochada y romántica idylla de que el alma del pueblo vasco radica en el vascuence. Con lo que dejarían de ser vascos desde los hijos de Loyola y Ercilla hasta los Barroja y Unamuno, sin olvidar a nuestro contemporáneo Xabier Zubiri, las mentes más geniales que ha dado el país, que han escrito y pensado en castellano.

Esto de euskaldunizarnos a todos los buenos vascongados, de grado o por fuerza, a la altura de los tiempos que corren, y en el rincón de España y de Europa en que vivimos, sólo se entiende desde ese delirio clerical-fascista que es el nacionalismo vasco. El nacionalismo vasco se ha inventado una «Euskadi», un pueblo, una historia, y hasta unas persecuciones y «genocidios», etc., que nunca han existido.

En la mitificación de lo vasco, ese invento o patraña con que rescoco caletres clericales han alienado, enloquecido, cuando no criminalizado como en el caso de ETA, a un amplio sector de su propio pueblo, es pieza clave esa «mitología e ideología sobre la lengua vasca» (que viene de muy atrás, y hoy se puede seguir fácilmente gracias a la obra del mismo título de Antonio Tovar), según la cual los Poza, Echave, Oihenart, Larramendi o Astarloa nos hicieron vascos en vez de cántabros de puro milagro, además de descendientes del patriarca Tubal, desdeñosos de la horrible confusión de Babel, etc., etc.

Es desgracia, y gorda, la de este bendito pueblo vascongado, al que de repente se le revela o encubierta su mitad más montaráz y levantisca, la

## El callejón sin salida de la «euskaldunización»

JOSE MARIA DE BASALDUA

antigua carlistada, hoy nacionalista y abertzale hasta las cachas, y se lanza a la santa cruzada de la euskaldunización, porque a la independencia de «Euskadi» sólo se puede llegar pasando por la normalización de todos los buenos vascongados en el uso del euskera «batua» (el euskera batua o unificado es en realidad un engendro, una lengua artificial de tipo esperanto o volapuk). Y no está mal pensado. Por la normalización del «batua» se podría llegar fácilmente a la subnormalización o cretinización de todos los vascos, de nación o asimilados, que cantarían a coro así las letanías nacionalistas del «presok kalera» o «amnistia orain» y demás irrinxis o relinchos abertzales, con lo que el «finis Hispaniae», el milenarismo, el final de los tiempos, y la independencia de «Euskadi» podrían estar al caer...

Sólo en el contexto de este esperanto clerical-fascista llamado «Euskadi», se puede dar la pesadilla de la euskaldunización, el obligar al buen vascongado txikitin, al vasquito y la neskitia, a normalizarse o cretinizarse en «batua», esperanto o volapuk, con la necia ortografía que inventó Sabino Arana, o el léxico demencial que ha inventado la caterva de clérigos y aficionados —del tipo «txirindua», por bicicleta y miles de otros obscenos terminachos por el estilo— que han puesto sus pecadores manos en la venerable reliquia lingüística pre-romana y pre-indoeuropea, que probablemente encierra en sí 5 ó 6 lenguas distintas, 5 ó 6 substratos lingüísticos que se extienden y afloran en áreas geográficas muy alejadas entre sí, el Cáucaso, el Nor-

te de África y Canarias, lugares del Mediterráneo, de la Península, de Europa, Escocia...

Pero el interés apasionante que para la fundamentación de una lingüística pre-indoeuropea presenta el vascuence o euskera, no tiene nada que ver, por supuesto, con el empeño político del nacionalismo vasco que pretenden hacer del vascuence la lengua actual y viva de todos los vascos, mediante la cual recuperarían una supuesta «identidad» nacional o como pueblo, que nunca ha existido históricamente. Pero los hechos son otros: lo que llamamos vascuence o euskera —para simplificar— es en realidad una especie de koiné o resultado de 5 ó 6 lenguas distintas, lo cual no puede tener nada que ver con la «identidad» de un supuesto pueblo llamado vasco desde Oihenart, y que para Larramendi era cántabro, y menos todavía con ese delirio imperialista y aldeano llamado «Euzkadi», que Aita Barandiarán, el gran brujo de la vascológica nacionalista, descubre hasta en el Paleolítico.

La verdad pura y simple es que carece de sentido esa pretendida recuperación de identidades culturales y nacionales vascas con la euskaldunización. Tal despropósito, tal aberración sólo se explica por un prejuicio político nacionalista, auténticamente sadomasoquista, empeñado en mantener a cualquier precio —al precio del crimen terrorista y de la coacción mafiosa—, los mitos y patrañas de la vascológica clerical, que el nacionalismo identifica con lo vasco, con grave perjuicio no sólo de la verdad histórica, sino sobre todo de la necesaria desalienación, salud de

espíritu, libertad y dignidad de este buen pueblo vascongado.

La razón de estas patrañas y monsergas de la clerical euskaldun, el mito vasco, se aclarará en otra ocasión. Basta ahora decir que, en la famosa interpretación de la historia de España que hace don Américo Castro está la clave del mito vasco —la pureza de sangre cristiana vieja, la hidalguía, el apellidamiento, los fueros vascos, etc.—, y que lo vasco, en definitiva, estaría así paradójicamente entretreído con la oculta trama de lo hispano en aquella dorada y conflictiva edad que se extiende durante dos o tres siglos a partir de fines del XV, que configuró la personalidad original y aparte del español, y de la cual la vasca es a su vez, por lo exagerado de los rasgos, su quinquagesima y su caricatura.

Este artículo, en el que se apunta una nueva interpretación del mito vasco, y algún enfoque poco conocido sobre el significado y el valor real del vascuence o euskera (y de las razones de su incapacidad para convertirse en la lengua de todos los vascos, una vez metido en el callejón sin salida del nacionalismo), quiere ser un homenaje al valor cívico y a la honestidad intelectual de la persona a la que va dedicado, viejo amigo y luchador por la libertad, que ha dicho lo que muchos pensamos, y no nos hemos atrevido a decir: que carece de todo interés, que es un atentado a la libertad, y una coacción inadmisibles, esa normalización obligado o euskaldunización, que no supone la recuperación de nada, ni ventaja o enriquecimiento cultural alguno... Lo cual es de un buen sentido total, y una verdad sin vuelta de hoja. Su ejemplo espero que nos anime a otros muchos a luchar por la verdad, sola, capaz de liberar a este buen pueblo vascongado de los mitos y engaños de su clerical —y de sus acólitos nacionalistas—, en que ha estado secularmente ahorrado.

## Pesimismoa negoziaketari buruz

Egunotan zenbait mahain-inguru Euskal Herrietan egin da, negoziaketa gai hartuta. Arrazoia, edo aitzakia, *Una historia de incomprensión exige negociar* liburuak eman du: «80 personas de la cultura y la política opinan sobre la negociación entre ETA, Gobierno Vasco y Gobierno Español».

Argitarazlea *Herria 2000 Eliza*-ko taldea izan da. 1979an argitaratua zuen beste bat, *Euskadi, la paz es posible*, administrazioak sekuestratu egin zuena, bakea errazago posible izan zedin, eta arrapaladan saldua halere (hamar mila ale). Berriz ere bakea da kontua, baina, zehazkiago, negoziaketa oraingo honetan.

Liburua baino lehen politikoen negoziaketa-asmoak egon ziren eta asmo haien frakasua, «bestearen kulpaz» dakizunez. Negoziaketarako baldintzak ez dakigu aski helduta egongo ote ziren, politikoak berak zeuden behintzat. Frakasu hark, nik uste, oraingo mahain-inguruok oso kondizionatu ditu.

Politiko gutxi ibili da mahain-inguruotan eta irakasle, idazle, intelektual asko. Ondo ikusi da, ordea, intelektualek ez daukatela zer eginik arlo horretan, formak zaindu eta edukinari ihes egin ez bada. Kotsiderazio antropologiko, psikologiko, filosofiko asko entzun dugu, eskuinetik nahiz ezkerretik patata beroari putz eginez eta asmatu ezinez nondik heldu. Oso ondo hitzegin da, hitzegin beharrik ez zegoenaz.

Garbi dago hori ez dela intelektualentzako asuntua. Garbiago, gaia zuzenean planteatzeko guztion enbarazoa. «Es como si avanzáramos por un campo minado, — idatzi du J. Ibañezek liburuan. De ahí el curso zig-zagueante del discurso».

Nire ustez, gai honetako gogoeta zehar-meharkarazten duena, problema egiaz non dagoen ezin esateraino dispertsatzen duena batez ere, ez da ETARI buruz garbi hitzegiteko enbarazoa bakarrik (eta, garbi eta jakinaren ganean hitzegiteko, lehenengoa datu garbiak edukitzea izango litzateke, itxuraz inork ez daukana). Gehiago da, Euskal Herrian bederen, berriro dagoen inpresioa, egiazko problema ez dela ETA, baina berriz ere Madrildik ez dagoela zer itxaronik eta funtsean dena alferrik dela. Negoziaketaren kontzeptuarekin, ordea, problema guztia ETAn jarri nahi dela, ematen du. Eta hori mahain-inguru guztietan espreski ukatu da.



Horrela, negoziaketari buruzko mintzaldiotan ez da negoziaketaz hitzegiten, negoziaketaren inguruko guztiaz baino. Mahats hori berde dago. Nahi ere, jende dexentek agertu du, inolako lotsarik gabe, ez duela negoziaketarik ezertarako nahi. Ez dio ikusten sentidurik. Harritzenago zukeena, azke finean: ia inork ez du esperantzarik. Pesimismoa dago.

Eta dago, pesimismoa, azkenean pesimismo geroz eta haundiagoa dagoelako, herri honetako problema larriek soluziorik izan dezaketela, Estatuaren bide beti behaztopatu eta bihurri honetatik. Hainbat gutxiago izango da problematiko biolentzia, bake estatutarioa geroz eta problematikoago ageri bada.

■ Joxe Azurmendi

## Unibertsitatea eta euskara

Eusko Jaurlaritzaren 1936ko urriaren 9ko dekretua gogoraztea interesatzen zaigu orain, Unibertsitatea sortzeko Batzordea izendatuz, eta, zehazkiago, dekretu haren 3. artikulua. Batzordearen izendapen dekretu hau, izan ere, ez Estornés Lasaren liburuan, *Los Vascos y la Universidad*, San Sebastián, 1970, Auñamendi, eta ez J.L. Lizundiaren artikuluan, *Euskal Unibertsitatearen aurrehistoriaz*, JAKIN, 1(1977) 27-35, aipatu da. Biok aipatzen duten bakarra Medikuntza Fakultatearen sorrera dekretua da, hots, Jaurlaritzaren bigarrena Unibertsitateari buruz, azaroaren 17koa hain zuzen.

Viar jaunak ere interesatzen zaigun gertaera azaldu du, gertaera, baina dekretua aipatu gabe: «Euskal Gobernuak Medikuntz euskararen katedra bat sortu zuen, ikasleentzat obligaziozkoa» (JAKIN, aip. zenb., 34).

Hona hemen, bada, Batzorde izendapeneko dekretua («1º Se constituye una Comisión encargada de preparar las bases mediante las cuales se procede a establecer la Universidad vasca...», etab.), gure 3. artikulua:

«3º Respondiendo al estado lingüístico de Euzkadi, entre

las enseñanzas de la Facultad de Medicina se incluirá la del idioma vasco en su aplicación especial al ejercicio de la profesión sanitaria, siguiendo los precedentes del bilingüismo al efecto establecidos para la exigencia del conocimiento de las varias lenguas populares en Bélgica y en Suiza» (*Diario Oficial*, 12 de octubre).

Askotan gure pentsatzeko joera zera da: «Unibertsitatea Midikuntza, Kimika, Filosofia... irakasteko dago; gure kasuan gehienez ere Midikuntza, Kimika, etab. *euskaraz* irakasteko, baina ez *euskara* irakasteko». Alde batetik hala da, Unibertsitatea desbirtuatu nahi ez bada. Baina, bestetik, denok dakigu, Euskal Herriak behar duena ez dela Unibertsitatearen purismoa; hau da, inork ez du uste hemengo Unibertsitateak derrigor eredu abstraktu eta orokor bat hitzez hitz kopiatu beharra daukanik, herstu-herstu, beste inondik. Hemen hemen gaude eta ez beste inon. Eta, alde honetatik, euskara irakastea, alfabetatzea, etab., egin beharrezkoak baldin badira herri honetan, Unibertsitateak beste edozein tokik bezain egokia dirudi horiek denak egiteko, ez behintzat desegokiagoa, haren eginkizun propioei oposatzen ez zaien artean eta neurrian bederen.

Ondo egiten asmatzea izango da kontua. Ez bait dago zergatik mutur batetik bestera ibili, beti alternatiba extremoetan. Unibertsitate osoa hizkuntz akademia bihurtu gabe, disziplina propioen kalterik gabe orobat, Unibertsitateak errealismoz joka dezake, «respondiendo al estado lingüístico de Euzkadi», 1936ko urriaren 9ko dekretuak nahi zuen moduan.

Seguruena gauza hauetan oraindik ez dugu aski rodaje, jarrera garbirik hartu ahal izateko. Baina niri arriskutsua iruditzen zait, alde zurretik «hori ez da Unibertsitatearen eginkizuna», etab., jarrerak oso hartuta edukitzea. Ahal den gutzia eginda ere beti gutxi izango da. ■ *Joxe Azurmendi*

## 1983ko Maiatza Parisen: «Mai 68 à l'envers»

Obligazio bat da. Intelektualarentzat, kazetariarentzat, edozein komentariarentzat. Maiatzero Pariseko kultur munduan

obligaziozko erreferentzia da «Mai 68». Ia beti ondorio berera etortzeko: errepikaezina da hura!

Inoiz baino biziagoak eta ugariagoak izan dira aurten 68ko erreferentziak. Haren beldur ziren batzu; hura bezalako zerbait lortu nahi bide zuten beste batzuk. Itxuraz, bi maiatzok bazuten antzik: estudianteak greban eta kale-manifestaziotan; langile-jenderik ere bai: komertzianteak, laborariak, etc. Maiatz beroa. Baina 83ko maiatzak ez du 68arekin zerikusirik. Edo, nahi bada, bai: «Mai 68 à l'envers», 68ko maiatzaren itzulipurditzea izan da oraingoa.

Parisen suertatu nintzen Maiatzean. 68ko giroa ezagutu izan dut. Oraingo graffittietan ez da «debekeztea debekaturik», «izan zaitezte errealista: eska ezina!», «irudimena agintera» eta holakorik ikusten. Punk idazkera da horietan nagusi. Estudiante manifestariak ez dute ile luzerik, bizarririk. Orrazkera, jazkera, oihuak, dena da desberdin. Anarko zenbait, punk de-xente eta eskuindar ugari ikusi nuen nik bazterretan.

1968ko maiatza oroitzapen da gaur, 15 urte geroago. Parisen ere. 68ko ideiak berritzeko eta jasotzeko ez baino zapal-zeko eta lurperatzeko manifestatzen zirela estudiante haiek iruditzen zitzaidan. Ezin nuen burutazio hori nere baitatik urrundu, haiei begira. 1983ko maiatza errebolta izan da, altue-nean ere; baina ez iraultza. 68koa bai, asmotan bederen. ■ *Joan Altzibar.*

## Torturak berriz ere

Errealitateak aldatu ezin direnean, errazena hitzak aldatzea da: bandera espainola «bandera konstituzionala» bihurtu, torturak «tratu txarrak». Hiru mutil Almerian triskatzea «ekibokazio gabe»tan geratzen da, Estatuak egin badu; Euskadiri ZEN deritza.

Orain torturarik ez omen dago, gehienez ere tratu txarrak. Non dago diferentzia? Bere doktoreak ditu Ama Estatuak...

Alferrik dira doktoreak eta Ministrariak eta monagiloak: torturatzen jarraitzen da, eta denok dakigu halaxe dela eta halaxe esaten zaiola.

Ondo tristea da, prentsaren batek hori hauteskunde kanpainetarako bakarrik gordetzea, gero urte osoan ahazteko. Ondo tristea, sasihumanista batzuk torturak, sekuestroak, hilketak, iraultza zergak, dena berdintzen eta nahasten enpeinatuta ikustea. Tristeia dena da gai honetan. Oso tristeak burla horiek: Estatu demokratikoan Armada eta polizia ere demokratikoak direla; torturarik ez dagoela, baina tratu txarren batzuk.

Amorregarria, ez tristea, dena problema semantiko hutsa balitz bezala soluzionatu nahi izatea da. Desgraziatua bai, baina herri hau ez da zeharo tontoa. Tontotzat hartzen duena da hemengo tonto bakarra. Eta hura Ministro. ■ Gabril Noss

## «... Y el globo se pinchó»

Interesik handienaz irakurri dut maiatzaren 29ko *Deia*-n Eugenio Ibarzabalek bere «Crónica política» ezagunean egin-dako azken agurra: ... *Y el globo se pinchó*. Lagun batek gomendatu zidan artikulua. Eta irakurtzeak ez dit damurik ekarri, bertako aitortzak, gogoetak, iruzkinak eta ondorioak ezagutzean.

Identitate-krisian bide dago Eugenio Ibarzabal. Eta aditzera ematen duenez, ez bera bakarrik; kasu berean bait daude «La carta de los 33» delakoaren zinatzaileak eta *Muga* aldizkaria ere. Porrot egin omen du beren saioak: «Desde este país han existido, y existen aún, gentes que han tratado de acercarse a las razones de los demás, que han criticado las suyas públicamente, que han ahondado en temas hasta entonces considerados como delicados». Hurbilketaren ondoren, autokritikaren ondoren, tabuen jorrocketaren ondoren... zer? Hori dena egin eta gero hau!

Hona zer idoro duen orain E. Ibarzabalek: PSOE nazionalista espainola dela; LOAPA ez dela koikuturala, Gobernuaren filosofia baizik; Estatutua bera agian «bluff» bat dela. Hainbeste ahalegin eta esfortzu eginda ere, espainolentzat zer dira, ba, euskaldunak: «fanáticos, locos y se les envía al psiquiatra». Horra. Hori dena eginda gero ere, espainol horiek ez dute euskal herria ulertu nahi: «En lugar de tratar de comprender por qué ocurre esto, se les denigra». Egoera hau aldatzeko, alegia PSOE aldatzeko, hortzak erakutsi beharko omen dituzte abertzaleek.

Ideia hauek, ikuskera hau, ez dira berriak gure artean, ez eta gutxiagorik ere. Berritasuna beste honetan datza: oraingoan E. Ibarzabal dela horren idazlea, eta ez... (ulertzen, ezta?). Oroimenetik oso oker ez banabil, mota honetako eritziek makina bat mexpretxu, ixeka eta deskalifikapen jasan behar izan dituzte orain artean hain zuzen *Muga*-tik eta *Crónica política*-ren orrialdeetatik. Abertzale bero askok ezezik euskaltzale kontsekuente soil askok ere agian ezingo du bere kasua oso desberdin sentitu, E. Ibarzabalek orain bere buruaren kasua honela azaltzen badu: «En definitiva, a los que no sienten como uno, se les llama fanáticos, locos y se les envía al psiquiatra. En lugar de tratar de comprender por qué ocurre esto, se les denigra. Es ésta una actuación democrática?»

Eta nik erantsiko, E. Ibarzabalen beraren hitzez eta estilo: «No les suena a nada todo esto?...». ■ *Joanes Lekerika.*

## Zentsurarik gabeko pantailak

Ekainaren 13tik 19ra ospatu den (arteana, lerro hauek idaztean, ospatzeko den) zinemaldiak badu berezitasunik. Zentsurak zigorturiko filmen erakusketa bat antolatu du Barzelonan «Llibertat d'Expressió»aren aldeko Batzordeak. Bere edukinean edo zabalkundeana, nola edo hala, ideien eta informazioaren zampaketa jasan duten filmak oso osoan ikusi ahal izango dira. Hala nola, Pilar Miró-ren «El Crimen de Cuenca», Fernando Fernán Gómez-en «La querida», Gutiérrez Aragón-en «Sonámbulos», etc. Zer ikusi, hori da gutxiena; zentsuraren zampaketa salatzeak du hemen munta.

Adierazpen-askatasunaren aldeko borrokan gu baino askoz ere antolatuago daudela katalanak iruditzen zait. Ez bait da hau beren lehen emanaldia. Pare bat urte izango da beste erakusketa bat egin zutena, liburu eta aldizkari zentsuratuen erakusketa orduan.

Adierazpen-askatasunaren eza gogoratzeak ez du paseismorik adierazten. Alde batetik, frankismoaren kontrol ideologikoak askok uste baino gehiago antzutu gaituela aitortu behar dugulako, nahiz eta interes handia izan zenbait lekutan holako gauzak «ahazteko». Eta bestetik, gaur bertan demokraziarekin sasi-ekontza egiten duen zenbait aginte-ekintza gertatzen delako. Ez al dugu ba Sanchez Erauskin preso?

Oso ideia polita da zinemaldi honena, eta polita zen kultura idatzian zentsuraren atzaparrak erakustea. Polita, baina mugatua, ez osoa. Esan nahi bait da, nola «erakutsi», sortzera ere iritsi ez zen hainbat filma, hainbat liburu, errepresioaren beldurra eta kontrol ideologikoaren presioa zirela medio? Zentsuraren kalterik handiena ez bait da txadadura edo ebaketa batzuk egin izana, autozentsura baizik, hots, ideiak eta informazioa jaiogurretik hiltzea, arraultzean hiltzea. Eta, jakina, horrek ez du inongo pantailatan agertzerik, ez eta inongo erakusketetan. ■  
Joan Alzibar.

## LA VOZ: Espainiatik Euskadira

Maiatza sasoi aproposa dirudi kazetaritzarako. Iaz *Tribuna Vasca* sortu zen Bilbon, eta aurten *La Voz de Euskadi* jaiog da maiatzaren 25ean Lezon. «Demokraziaren lore berri bat» esango luke besteak. Maiatza ez al da ba, loreen hila?

Eta ni pozik. Zorionak eman eta eman. Iaz TVri eman nizkion. Aurten *La Voz*-i. Harrigarri? Bat baino gehiago harritu (eta ia-ia hasarretu) zen iaz TVri ongi etorria eman niola eta. Neure burua ia-ia zuritu beharrean aurkitu nintzen. Lehengo lepotik dut burua orain ere: egunkari baten jaiotzak poztu egiten nau (txanpon gehiago gastatzera behartzen banau ere), adierazpen-askatasunaren garantizat jotzen dut. Eta hori inportantea da. Are inportanteagoa, egunkari hori «pluralista y progresista, radicalmente independiente de cualquier grupo económico y político» baldin bada. Honela aitortzen du bere burua *La Voz*-ek.

Pluralista, aurrerazale, independente da *La Voz*. Hala izan dadila luzaroan opa diot, lehen orduko aitorten hauek, zoritxarrez, gutxi balio bait dute. Urte baten buruan nork sinets dezake TV «independiente, liberal y progresista» denik? Bai, aitorten hauek «hitz huts» bilakatzen dira, pluralzaletasun, aurrerazaletasun eta independentzia horiek praxiak erakusten ez dituenean. Egunero. Luzaroan.

Egunkarietan, ezaguna denez, lanak ditu independentzia babesteak. Hortxe ikusten dut *La Voz*-en Akilesen orpoa ere.

Esperientzia berri bat da *La Voz*, «Sociedad Anónima Laboral» deitzen dena, langileek berek finantzatua eta kudeatua. Horra hor egunkariaren independentziaren garrantia, zimentat-

rria. Garantia hori 100 miloekoa da. Zer da, baina, 100 miloe tamaina honetako enpresa batentzat? Deus gutxi, gutxiegi irauñ ahal izateko. Independiente irauñ ahal izateko, behintzat, bai.

Txukuna, egokia, atsegina, argia aurkitu dut *La Voz*. Atsegin gertatu zait bere lehen zenbakitan. Irakurterraza egin zait. Ez horrela «Gaiak» saila, euskarazko saila. Lekuz kanpo bezala, egunkarian integratu gabe ikusten dut atal hori. Ez da hori euskal kazetaritzat behar zuen aurrerapidea.

*La Voz de España*-tik dator *La Voz de Euskadi*. Espainia-tik Euskadira. Ongi etorria. ■ *Joan Altzibar*.

## Joseba Intxausti: 25 urte JAKINen

Aurten da 25 urte Joseba Intxausti *Jakin*-en idazten hasi zela, 1958an, gaur arte lankidetzan jarraitzeko. Hasi, egia esateko, lehenago hasi zen, 1957an: baina bere lehenengo urte hartan izenorde batekin zinatuz.

Sortzaileak utziaz inork ez bait du gero aldizkarian jarraitu, gaurko *Jakin* hau egiaz egin dutenak, Joseba Intxausti eta Joan Mari Torrealdaiz izan dira, nahiz lankideak eta laguntzaileak biok izan aldioro.

Barnetik begiratuta, *Jakin*-en 25 urteak hura egiten zihardutenen 25 urteak dira. Hona hemen, *Jakin*-en historian, Joseba Intxaustiren historiartxo aldizkariaren barruan.

1956tik, hau da, sorreratik 1959ra artean sortzaile talde osoa ihardun bazen zuzendari eta erredakzio gisa batera, urte honetan funtzionaketa modu berri bat abiatu zen aldizkarian, Joseba Intxausti eta Kepa Enbeita Zuzendaritzaren kargu eginez. Hauek izan dira *Jakin*-en lehenengo Zuzendari propioak, nominalak. Hiru urte egon zen Joseba Zuzendaritzan, aldizkariari joera berri bat emanez. Beste zortzi urtetan lankide gisa, kanpotik, lagundu ondoren, 1970etik aurrera, gaur arte, berriro Zuzendaritzan edo laguntzaile taldean ibili zaigu, eginkizun desberdinen erantzule. Hau izan da, labur-labur, haren bidea *Jakin*-en.

Aldizkariak Intxaustiri zor dion txitezkoena hitz bakar batez adieraztekotan, beti haren normalizazioan aritu dela, behar izan duela, esango genuke.

Lehenengo unean, 59tik aurrera, bitxia bada ere, Arantzazuko nagusi eta frantziskotarren agintariekiko harremanak normalizatzen. Hau da, aldizkaria etxe barruan bertan onarrazten. Ez bait zen denen oso begikoa jai. «Pixkaka-pixkaka ikastetxearen barnean nagusiekiko errespetagarritasun bat irabazten da. Zuzendariei errazagoa gertatzen zaie orain beren lana, eta samurragoa da kanporako hariak mugitzea» (21, 1981, 77).

Zailagoak izango zituen hurrengo lanak. 1961eko abenduan Administrazioak debekuz eta multaz interbenitzen du Bilbotik. Joseba administrazioarekikoak normalizatzen ahaleginduko da, 1964ean baimen ofiziala eskuratu arte.

1970ean berriro Barzelonatik Zuzendaritzara etorri zenean, gure aldizkaria debekatuta zegoen berriro, *Jakin*-en bigarren debekua. Zazpi urte luzetan ahalegin beharko da oraingoan, Josebak lehenengo, Santamariak lagunduta, 1975etik aurrera Torrealdaik, 1977ko otsailean berriro baimena lortzeko.

Bitartean, aldizkaria egiterik ez bait dago, lehenengo irtenbide bezala saio liburuari ekin zaio *Jakin*-en, 1969an hasita. Baina liburugintza hau soluzio inprobisatua izan da, ez dago programatua.

Beraz, 1970ean Josebak Zuzendaritza bere gain hartu zuenean ez aldizkaririk zeukan, ez erredakzio talderik, ez eta programarik ere, lana nondik eraman. Historia txiki bat eta gogo handia baino apenas ezer gehiago. Ez zuen amore eman. Aspergabe aldizkariarentzat baimen bila saiatzeaz beste, erredakzio lagunak bildu zituen eta azpiegitura ezarri zion ondoko lanari (bulegoa Tolosan, Larreatarren laguntzarekin), liburugintzari hain zuzen, *Jakin*-en zuzendaritza ere rotatiboa bihurtuz.

Aurrera baino lehen aipa dezagun, Intxaustik berak 1972an saio liburu bat argitara eman zuela, *Iraultzaren hildotik*, azterketa historikoa.

Urte hauetan euskal kultura momentu berri batetan ari da sartzen. Hogei urte lehenago aldizkariak bezala (1950: *Euzko Gogo*; 1953/54: *Anaitasuna*, *Zeruko Argia*, *Othoizlari*, *Egan* euskara hutsean; 1956: *Euskera*, *Jakin*...), 70 inguruan bata bestearen atzetik argialetxeak sortzen dira: 1968, *Gordailu*; 1969, *Lur*, 1970, *Irakur Sail*, *Etor*... *Jakin*-en lehenengo «liburuak», aldizkaria debekatu eta gero, aldizkari-liburuak izan dira, saio bildumak, ez liburuak eta ez aldizkariak. Aldizkaritasunari nolabait eutsi nahi bazaio ere, bidea birplanteatu beharra dago, ateratzen den produktua nahitaez aldizkari baino liburuago da eta. Baina, bestetik, liburu produkzioan sortzen ari diren argi-



taldariek in lehia alferrean sartu baino lehen, aztertu beharra dago zein izan litekeen *Jakin-en* tokia eta eginkizuna egoera berrian.

Etorri lehenagotik zetozen proiektu batzuei eta harremanei helduz, Rikardo Arregi zenduaren asmoei bereziki, unibertsitari euskaltzaleekin ikastaroak antolatzen saiatu zen Intxausti 70. lehen urteotan (Donostiako Zuzenbide Fakultatean), Pio Montoiaren eta Donostiako zenbait irakasleren laguntzarekin. Eta batez ere 72an bilera bat egin zen Donapaleun lankide eta unibertsitari euskaltzaleen multzo, ordurako dexente, batekin, liburugintzaren aurreprogramaketa eztabaidatzeko. «Kulturaren oinarrizko idazkiak sortu beharra» aitortu bait zuen bilkura honek, berehalaxe «*Jakin Bide*» sorta abiatu da (*Axular-en Hiztegia*, *Gero*, Holandako *Kristau Bidea*) eta «*Jakin Hiztegien*» proiektua martxan jartzen da (Arantzadiko talde baten *Natur Zientziak*).

Laster ikusi zen, oso laster, proiektu hauek *Jakin-en* ahalmenak zeharo gainezkatzen zituztela eta bi gauzak banatzea erabaki zen: *Jakin-ek* bere tokian geratu behar zuen, bere saio bildumekin jarraituz aldizkaria lortu arte, eta bai oinarrizko kultur textuen lanak eta bai hiztegiak *Jakin-etik* aparte behar zuten desarroilatu, ezer izango baziren eta *Jakin* bera itoko ez bazuten. Josebaren gain geratu zen lan horietarako soluzio tekniko eta juridikoa bilatzea, euskal kultur taldeekin batera. Haindik sortu zen UZEI, *Jakin-etik* aparte eta apartatzeagatixe, nahiz Joseba Intxausti lehenengo Zuzendaria izan (baina probisional, espreski).

Gero istiluren batzuk egon bait dira guzti honen inguruan, istiluok baino lehenago idatzitako pasarte hau argigarria izan daiteke:

Oinarrizko obren asmo handia izan zen gehien atzeratu zena (*bau da*, orain UZEIren inguruan ikusten dena), izan ere ez bait zen erraza ideia haren formulazio juridikoa aurkitu, euskal kultur taldeei eskaini eta asmoa obratzeko bideetan jartzea. Formulazio juridikoak bilabete luzeak eraman zituen, agian aldizkari oraindik debekatuarena eta beste elkargo baten ideia nahasi egiten zirelako (1976). Aldizkariak bere legezko irtenbidea garbitu zuenean (1977), beste bigarren lan haietarako ideia instituzionala eta soziala lantzea errazago gertatu zen: hizkuntzaren normalizazio planketa ahalik jende gehienaren onarpenez egin behar zenez, lantalde guztiei sarbidea irekiko zien erakundea moldatu behar zen, ez gurea bezalako talde txiki bati zegokiona. Horrela, irabazten irten ziren aldizkariaren egitekoa (1976), eta oi-

*narrizko obren beste plangintza (1977, abuztua). Banaketa honek JAKIN aldizkari-taldea murriztu eta mugatu badu ere, erosotasun berria ekarri diete (gure aldizkariari eta denon normalizazioari) lan-berezkuntzak eta erantzukizunen independentziak. (Jakín, 21, 1981, 107).*

*Jakín*-en historian Josebak egin duen gauzarik ondorio-tsuen, halere, 1959ko biraketa iruditzen zaigu. *Jakín*, hasieran, *Euzko Gogo*a-ren ereduari jarraitu nahiez agertu zen, Orixeren eta Zaitegiren liluraz. Joseba Intxaustik eta Kepa Enbeitak itzuli zuten *Egan*-en aldera, polemika luze baten buruan, Euskaltzaindiari atxekiz, Orixeri edo baino gehiago, eta orduan Mitxelenak, Villasantek, Txillardegik seinalatzen zuten bideari lotuz hizkuntza aldetik (ik. aip. zenb., 47-48, 81-85, 88-90, 149-152, 162-166, 234-242). Ez da beraiek aitortu zAharra, zerk animatu omen zituen biraketa honetara: «Kritika hura (Mitxelenarena *Egan*-en) izan zen (Txillardegiren lanekin batera), Olabide, Orixe, Zaitegi eta *Euzko Gogo*a-ren ordurarteko joera nagusiari aurpegi emanez, gure artean zenbaiti begiak ireki zizkiona eta, esan ere, zerbait esateko ausartzia eman ziguna».

Ez dugu uste gauzak beti behar eta nahi bezain ongi egin ditugunik, eta badakigu behin baino gehiagotan oker ere ibili garela. Halere, gure lana hobetzeko eta okerrak zuzentzeko, makina bat lagun izana eta izatea, lehen eta orain, bizkorgarria dugu. *Jakín*-ek zor asko eta zor haundiak ditu. Aipaturiko Mitxelenarekin eta Txillardegirekin, esate baterako, behin eta berri z aitortua daukagunez. Ez da txikiena *Jakín*-ek aspaldian Joseba Intxaustirekin daukana: zor zahar, baina ona, eta zaharra-gotuko eta hobetuko delakoan. ■ *Joxe A. Otaegi*.

## Normalizazio baterako oinarrien azterketa

### EUSKARA ETA ADMINISTRAZIOA

Andres M. Urrutia

#### 1. SARRERA GISA

Eusko Legebiltzarrak onarturiko «Euskararen erabilpena arauzkotzeko oinarrizko legea»k garrantzi handia du, ezbairik gabe, gure herriarentzat. Hala ere, Legebiltzarrak onartutako lege hau, Madrilgo Gobernuak Auzitegi Konstituzionalera bidali du, Konstituzioaren kontrako erabakirik badagoen ala ez zehazteko. Beraz, gaurregun eta jokoan diren faktoreak ikusirik, egokia da lege honen azterketari heltzea.

Azterketa horri ekitean, guk, geure aldetik, Administrazioaren alorrean egingo dugu; beste batzuek, aldiz, Hezkuntzaren sailean edo *mass-media*-en prolematikaren barnean aztertuko dute arazoa.

Arazo baten konplexutasuna aipatzea topikoa da honelakoetan; hala ere, aipatu egin behar hemen ere: politika, zuzenbidea eta soziolinguistika nahasten zaizkigu gure honetan. Izan ere, eguneroko bizitzan bizi dugun egoera diglosi-koa agertzen da, berriz ere.

Goazen, beraz, lege honen edukin administratibo-linguistikoa aztertzerara. Horretarako beharrezkoa iruditzen zaigu lehenik ikuspegi soziolinguistikoa ematea, geroago ikerkizun juridikoaz iharduteko.

## 2. NORMALIZAZIOA ZER DEN

Hain maiz entzun dugun *normalizazioa* hitza, beste batekin elkartuta zabaldu da gure artean: *diglosia*-rekin, alegia. Jakina denez, *diglosia*-ren kontzeptua Fergusson amerikarrak definitu zuen lehenengo. 1959. urtean idatzirik artikulu batean honela mintzatzen zen:

«Particular KIND of standarization where two varieties of a language exist side by side throught the community, which each having a definite role to play»<sup>1</sup>.

Definizio honen arabera, hizkuntza baten bariatateak bakarrik hartzen dira aintzakotzat. Geroago, hala ere, definizio hau bi hizkuntzako egoerari ere aplikatuko zaio, gizarte berean bi hizkuntzaren arteko erlazio-mota bat adierazi nahiz. Bata, *goiko hizkuntza* (G) da, teknikoa, gaurkotua, goimailako jakituriaren eta kulturaren eramailea; bestea, *beheko hizkuntza* (B) herrikoia, beheko gauzak azaltzen dituen eta eguneroko bizitzan herri xeheak erabiltzen duena. Beraz, bi hizkuntzekin batera bi funtzio ere agertzen dira. Haatik, guri interesatzen zaigunaren aldetik, hots, Administrazioaren aldetik, sailkapen horrek zer esan nahi duen adierazi behar dugu.

Guk hemen ukitu nahi dugun alorrean, Administrazioarenean esan nahi dut, kontzeptu-berezketa horrek zuzenean garamatza Administrazio horren eta botere politikoaren arteko harreman-ara-zora. Izan ere, herriak erabiltzen duen hizkuntza (B) eta Administrazioak erabiltzen duena (G) desberdinak direnean, Administrazioa izaten da herriari hizkuntza arrotza ezartzen diona. Horregatik, egoera diglosiko hau definitzeko, Sánchez Carrión-ek formulaturiko azalpena oso egokia dela uste dugu:

«La distorsión social del poder lingüístico destinada a producir la compartimentación lingüística en función del prestigio de los individuos a ella sometidos, en base a una identificación del prestigio (lingüístico) con el poder (político)»<sup>2</sup>.

Horren arabera, botere politikoa (administrazioarekin loturik) eta hizkuntza elkarrekin erlazonaturik agertzen dira.

Kontzeptu-deskribapenaren ondoren, komeni da diglosiaren *ondorio* linguistikoak ere aipatzea. Ezaguna denez, egoera diglosikoak sortzen duen ondorio latza gatazka linguistikoa dugu. Gatazka

linguistiko honen irtenbideak bi izaten dira: Hizkuntzaren normalizazioa (hemen interesatzen zaiguna), edota hizkuntza horren sustutzioa (hizkuntza batek (G) bestearen lekua hartzen duelarik).

Hau honela izanik, eta gure helburua hizkuntzaren normalizazioa aztertzea denez gero, *normalizazio* hau bi eratarata uler daitekeela gehi genezake:

## 2.1. Linguistikaren aldetik

Zentzu honetan, *normalizazioak* esangura konkretua dauka: hizkuntza baten (B) normalizazioa, hizkuntzarekiko arauen ezarpena, beronen kodeketa, standarizazioa eta dialektoen gainetiko batasuna lortzea dira, besteak beste, normalizazio honen helburuak, honela hizkuntzaren barneko egoera normaliza dadin. Gure kasuan, esaterako, euskara batuaren prozesua izango litzateke honen adierazlerik aipagarriena, euskara standard baten bila.

## 2.2. Kulturaren aldetik

Bigarren zentzu honetan, hizkuntza horren statusa beste hizkuntzaren (G) parean jartzea esan nahi du normalizazioak; gisa horretan, kultur tresna bihurtzen da hizkuntza, eta edozein gaitan erabiltzeko beharrezko tresna. Gure kasuan, euskararen erabilpena erdararen erabilpen-mailara jasotzea izango litzateke, horrela euskal kulturaren desoreka gogorra gaingidurik.

Azken zentzu honetan, Ninyoles-ek esaten digunez, bi alde daude:

«Una de naturaleza ideológica... la normalización no es sino una de las implicaciones inevitables de la democratización cultural... y en el valor del pluralismo como base de una filosofía democrática de la vida... otra de carácter lingüístico... de que toda lengua es capaz de convertirse en instrumento cultural a todos los niveles»<sup>3</sup>.

Normalizazioaren tresna bezala agertzen zaigu, honen ondorioz, hizkuntz plangintza. Eta hauxe, hain zuzen ere, honela defini daiteke:

«Botere linguistikoak egindako hizkuntz ekintza, gizarte osora hedatzen dena eta hizkuntzaren statusaren goimailakapena helburutzat duena».

*Tenga por promovido recurso de inconstitucionalidad contra los artículos 5º, 6º, 8º.3, 12º, 13º y 14º de la ley 10/1982 de 24 de noviembre del parlamento vasco, básica de normalización del uso del euskera, y tras los trámites pertinentes dicte en su día sentencia por la que declare la inconstitucionalidad de dichos preceptos<sup>14</sup>.*

##### 4.6.2. Errekurtsoaren arrazioak

Laburki esanda bada ere, errekurtoan zehar Estatuko

Abokatuarentzat errekurtsio honetarako dauden arrazoiak hauetxek izango lirateke:

— *preceptos cuya ambigua significación requiere precisiones interpretativas.*

— *Regulaciones... que invaden ámbitos competenciales ajenos a la Comunidad Autónoma... debiendo adelantarse la insuficiencia de la Disposición Adicional tercera de la ley vasca 10/82 para salvar los vicios de incompetencia...*

— *Incurrir en inconstitucionalidades materiales que resultan precisamente de no haberse respetado las funciones que, como lengua del Estado e idioma común de todos los españoles, desempeña el castellano.*<sup>15</sup>.

Beraz, argi eta garbi dago errekurtsio honen zioa. Eta puntu hauei begiratuz, zera esan dezakegu:

— Anbiguotasunaz dihardugula, esan dezagun lege guztien interpretazioan dela posible hori. Interpretazioa nola egin da benetako arazoa. Eta errekurtsio honena ez da, noski, euskararen aldekoa.

— Komunitate Autonomoari ez dagozkion alorretan sartzen dela lege hau esatean, gure ustez kontraesan gogor batean jausten da. Izan ere, Euskadiko Estatutuan, 6. artikuluan ez bada ez da agertzen (funtzionari judizialei dagokien alorrean izan ezik) euskarari buruzko xedapen zuzenik. Baina Espainiako Konstituzioan ere, Estatuari dagozkion kompetentzia eksklusiboetan ere, ez da agertzen hau. Ez du balio 149.2 artikulua aipatzeak:

*Sin perjuicio de las competencias que podrán asumir las Comunidades Autónomas, el Estado considerará el servicio de la cultura como deber y atribución esencial y facilitará la comunicación cultural entre las Comunidades Autónomas de acuerdo con ellas. Beraz, artikulua hau zehatza da. Eta zehatzagoa hurrengo apartadua: 3. Las materias no atribuidas expresamente al Estado (eta hizkuntzen alorra ez da inon agertzen kompetentzia hauen artean) por esta Constitución podrán corresponder a las Comunidades Autónomas en virtud de los respectivos Estatutos. Beraz erregulazioa, gure ustez, artikulua honen arabera eta Konstituzioaren hiruga-*

— rren artikulua ere Komunitate Autonomoari dagokio: *Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus respectivos Estatutos*. Hona hemen, bada, Euskadiko Estatutura bidaltze argia, are konkretuago Estatutu horren 6. artikulura (lehen aipatua izan dena).

— Azken puntuari dagokionez, hau da, erdararen erabilerara ofiziala errespetatu ez ote denaren salakuntzaz zer esanik ez dago. Elaren artikulua guztietan agertzen da koofizialtasuna, erdaldunen eskubide linguistikoen bermaketa, legearen izaera dispositiboa, etab. Beraz, ez dugu uste hor salakuntzaz ikus daitekeenik. Azkenean ere, lege hau aipatzen bada askoz aipagarriagoa da Kataluniako legea alde honetatik eta hantxe ez da izan hemengo istilurik. Gure ustez, alde horretatik lege hau, Konstituzioaren aldetik behintzat, onargarria da, eta, diferentziak izatekotan, orduan denontzat tratua bera eska diezaiokegu Madrilgo Gobernuari.

#### 4.7. Azken ondorioak

Azterketa honen ostean, eta Administrazioari dagokionez, atera ditzakegun ondorioak hauetxek dira, gure ustez:

a) Lege honek, eta lehen proposatu dugun normalizazioaren eskema kontutan harturik, eskema hori betetzeko lehengo urratsa izan nahi du eta halaxe ageri da. Lege honek ez du ezer inposatzen, baizik eta Euskal Herriko biztanleen eskubide linguistikoak bermatzeko pentsatua da. Alde honetatik doaz Etxenikeren hitzak: «En este contexto se mueve la ley: la ley no es impositiva de ningún comportamiento para los ciudadanos»<sup>16</sup>.

b) «Consenso» politikoaren fruitu zuzena da legea, Kataluniako kasuan bezalaxe. Horrekin eta ondorengo errekurtsioa ikusi eta gero, Euskal Herriko kasuan ez dela «Consensus» famatu honekin ezer ere irabazi argiro dago. Aitzitik, lege hau (eta honetan bat geroz errekurtsioarekin zenbait puntutan, baina sentidu diferentean, noski) mugagabezia gelditu da, gauzak ondo zehaztu gabe eta hutsuneak bete-tzeke, esaterako: dokumentu publikoen alorrean edo eta funtzionaritzaren eremuan.



c) «Martxan» jartzeko, «ibiltzen» hasteko lege bat da, lehen esan dugunez (eta jadanik errekurtsopean dago), eta berorren efikazia, hein handi batean, aplikazioaren orduan jarraituko den kriterioaren menpe egongo da.

Azkenik, esan dezagun, arrazonamendu guztien gainera, lege honen iraupena eta indarra (Tribunal Konstituzionalaren epaiaz aparte) geuk, euskaldunok, Administrazioarekiko izan dezakegun jokabideaz lortuta egongo dira. Bukatzeko, aipa ditzadan orainsu idatzitako hitzak, tresnak bakarrik beharrezkoak ez direla adierazteko, tresnalariak ere beharrezkoak bait ditugu alor honetan.

«Consequently, we can say, in summary, that a shrinking linguistic minority can be saved from extinction only by itself; and on condition that it acquires the will to save itself, and is not prevented from taking appropriate measures but assisted in doing so»<sup>17</sup>.

Izango ahal gara, gu ere, egiteko berak betetzeko lain!

A.M.U.

<sup>1</sup> FERGUSSON, Ch.: «Language and social context». In GIGIOLI, P.P.: *Diglossia*, Penguin Books, 1972, 232. or.

<sup>2</sup> SANCHEZ CARRION, J.M.: «Bilingüismo, Diglosia, Contacto de lenguas». In: *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*. VIII, 1974.

<sup>3</sup> NINYOLÉS, R.L.L.: *Idioma y poder social*. Ed. Tecnos, Madrid, 1972, 85. or.

<sup>4</sup> FISHMAN, J.: *Language and Nationalism*, Newbury, House Boston, 1975, 73. or.

<sup>5</sup> FISHMAN, J.: *Ib.*, 73. or.

<sup>6</sup> NINYOLÉS, R.L.L.: *Bases per a una política lingüística democrática a l'Estat espanyol*. Tres i Quatre, València, 1976, 34. or.

<sup>7</sup> ODRIOZOLA, J.M.: «Euskararen normalizazioaz gogoetak». In *Zeruko Argia*, 959. zenb.

<sup>8</sup> ODRIOZOLA, J.M.: *Ib.*

<sup>9</sup> Euskal Herriko legean, artikuluen aipamenak erdaraz egin dira. Euskararen itzulpena ezinera biliaria topatu dugu, bai hizkeraren aldetik bai barne-edukinaren aldetik. Hemen maila batetan bederen, «traduttore, traditore» esana bete da. Ez dugu uste bide hori zilegi denik euskara administrazio baten eraikuntzan. Kataluniako kasuan, aurreproiektuan aipamenak erdaraz egin ditugu, erdarazko edizioa bakarrik eskuratu ahal izan bait dugu. Lege definitiboaren kasuan, haatik, aipamenak katalanez daude.

<sup>10</sup> FOLCH, X.: «La llei del català: Una eina per a un poble». In *Serra d'Or*, abril 1983.

<sup>11</sup> NINYOLÉS, R.L.L.: *Estructura social y política lingüística*. F. Torres Editor, Valencia, 1975, 176. or.

<sup>12</sup> ETXENIKE, P.M.: «Euskararen erabilpena arauzkotzeko oinarritzko legearen alde emandako hitzaldia».

<sup>13</sup> GIMENO Y GOMEZ LAFUENTE, J.L.: «La ordenación de los Registros e instrumentos públicos en la Constitución española de 1978». In *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*. 552. 1982.

<sup>14</sup> Euskararen legearen kontrako errekurtsioan, 5. or.

<sup>15</sup> *Ib.*, 34. or.

<sup>16</sup> ETXENIKE, P.M.: *Ib.*

<sup>17</sup> DESMOND FENNELL: «Can a shrinking linguistic minority be saved? Lessons from the Irish experience». In *Minority Languages today*, Edinburgh University Press, 1981, 39. or.

## OHAR BAT EUSKARA, L.R.U. eta EUSKAL LEGISLAZIOAZ

Goio Monreal

Nazionalitateetako hizkuntzei buruzko aipamen edo erreferentzien bila LRU projektua irakur dezana, etsita geratuko da. Arrazoi-azalpenak ez du inolako alusiorik egiten, eta isiltasun bera nabari da textu artikulatuan. Badago lotura-puntu bat aurki dakiokkeen paragrafo bat: Unibertsitatearen funtzioak zehazterakoan, Unibertsitateari dagokiola dio 1.2<sup>o</sup>.C. artikulua «Nazioaren eta Komunitate Autonomoen garapen *Kultural*, sozial eta ekonomikoari euskarri zientifiko eta tekniko» eskaintzea. Utz dezagun «nazio (=estatu)/Komunitate Autonomo» kontrajarren kontzeptuala, askori oker kontzeptual hutsa gertatzean ez bazaigu ere. Hizkuntzaren eta kulturaren arteko erlazio ezagunean oinarrituriko aipamen explizitoen bila hasirik, eta aipatua bezalako artikulua hain pobre batek eman dezakeena ahal adina behartuz, nazionalitateetako hizkuntza nahiz hizkuntzak LRUn sarrerazteko ateskatzat hartu nahiko genuke hura.

Lehenengo eta behin, eskandalagarria dirudi Legeko isiltasunak.

Arazoa, jarrera horren explikazioa aurkitzean datza. Lehenik burutzen dena da, ez ote den isiltasun hori bizi dugun garairen adierazgarrietako bat, eta esanahitsua gainera. Autonomi inboluzioaren aldiaren agerpen berri bat, Estatuko hizkuntza ofizialaz besteei buruzkoetan botere ezarriari gero eta inkomodoago gertatzen zaizkion erreferentziak isiltzean datzana. Espainolismo kultural eta politikoaren berpizte-unetan bizi gara: diogun bidenabar zeinen atsegin zaion gaurregungo klase gidariari atzerrian, European eta Amerikan, «gazte nazionalisten» gobernu deitzen zaiola oraingoari entzutea. Lehen explikazio honen arabera, Gobernuak isildu egin nahi du goi-mailako irakaskuntzaren Lege organikoan Estatuaren izaera nazioaskodunaren aitortpena. Sistema kultural anizkor batetan Unibertsitateari dagokion egitekoa ahaztea, berariazkoa litzateke. Gobernuak, hautapen hau egitean, bere usteekin leial jokatzeko du eta,

une berean, eskuineko oposizio batek aurkez diezaizkiokeen eraso eta emendamenduei ihes egiten die, honek, jakina, errezelo are handiagoak bait ditu Estatuaren eta kulturaren kontzeptzio unitario-tik irteten den orori buruz.

Bigarren explikazio-modua teknikoa izango litzateke, tekniko-legala edo dena delakoa gisako zerbait. Printzipio-deklarazio gogai-karriak egiteko gogo-faltaz gainera, Gobernuak aduzi dezake ez dela hertsiki beharrezkoa hizkuntzaren unibertsitateango arazoa arautzea, problema hori argitzeko beste lege-tresnarik badagoenez, LRU ez litzateke hizkuntzaz arduratuko, beste arazo garrantzitsuak ukitzen ez dituen era berean.

Egia da hizkuntzaren gaiaz diharduen beste araurik badagoena, Estatuaren eta Komunitate Autonomoen mailan. Baina, une berean, bete beharreko hutsuneak daudela ere baieztatu daiteke. Ez da nahikoa oraindik praxi hedatu bat falta dela esatea, eta ez dela hastapen-egoera eta lehen urratsak garaitu-ala sortuko diren arazoak aurrikusteko eta aurreratzeko gai den ausnarketarik egin. Hori da legegileari dagokion eginkizuna. Nekez egiazta daiteke, horregatik, isiltasunak eta omisioek zentzu funtzionala dutenik.

Gaur-gaurkoz, eta LRUren isiltasunaren aurrean, beste lege-tresnetara jo beste erremediorik ez dago. 1983ko maiatzaren 19an, Santiago de Compostelako Ekonomi eta Enpresa-Zientzien Fakultatean izan den nazionalitateetako hizkuntzei buruzko mintzaldi batetan, Jose Manuel Castells Artetxe administratibistak (UPV/EHUko irakaslea berau Donostiako Zuzenbide-Fakultatean) txosten bat aurkeztu zuen euskarari buruzko normatibaren egoeraren ikuspegi orokorra eskainiz. Gai honetaz arduratu da E. Cobreros Mendazona ere (UPV/EHUko Zuzenbide-Fakultateko Administrazio-Zuzenbideko irakaslea halaber), «Sobre las normas de la Comunidad Autónoma respecto a la política lingüística» lanean (ik. *Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria / Revista Vasca de Administración Pública*, 5. zb., 1983, Urtarrila-Apirila, 257-262 or.). Azterketa honetan hiru arau deskribatzen —eta inoiz balioztatzen— dira: Eusko Legebiltzarraren 1982ko azaroaren 24ko *Ley básica de normalización del uso del euskara / Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legea* (EHAA, XII-16), Eusko Gobernuaren 1982-I-11ko *Euskararen Aholku Batzordea*-ren sorrera dekretua (EHAA, II-2) eta Lehendakariaren 1983-I-17ko dekretua *Hizkuntza Jaurpidetzarako Idazkaritza* (EHAA, II-2).

Laburtuz, eta aipatu irakaslearen txostenaren arabera, hau litzateke euskararen egoera juridikoa goi-mailako irakaskuntzan: Kelsen-en piramide juridikoaren eskemari jarraituz, gailurrean Konsti-

tuzioaren 3. art. daukagu, gaztelania pribilegiatu ondoren, Komunitateetako Estatutuek bere hizkuntzak ere ofizial deklaratzeko aukera eskaintzen duena. Bigarren mailan, Autonomi Estatutuak egongo lirateke. Gernikako Estatutuak, bere 6. artikuluan, «Euskal Herriko hizkuntza propio» deklaratu du euskara —kontsentsu agian ezinitzurizkoaren terminoa hau, hizkuntza nazional izendapena saihestu zuena.

Euskararen eta gaztelaniaren erabilerak bermatzen ditu Estatuak, eta horien ezaguera segurtatzeko neurri eta helpide beharrezkoak eratuko direla deklaratu. Ez da hemengo kontua arau autonomikoan dauden hizkuntzari buruzko beste erabakiak aipatzea, hala nola Euskaltzaindia hizkuntz gaietan aholku-erakunde ofizializat hartzea, Gorteei Frantziarekiko tratatuak eskatzeko posibilitatea Ipar Euskadirekin kultur erlazioak finkatzeko, etab. Bigarren maila honetan bertan eta Ekialdeko Euskal Herriari, Nafarroari, dagokionez, Foru-Hobekuntzaren/Amejoramiento Foral-aren 9. artikulua dago: euskara, euskalduntzat jo daitezen lurraldeetako hizkuntza ofizial deklaratzean, erabakitzen du hizkuntz erregimen bat Castells-ek zalantzarik ere ez bait du egin «indio-erretserbako erregimen» izendatzeko.

Autonomi Estatututik, hirugarren mailara goaz; hots, hizkuntzaren Unibertsitateango egoera juridikoaz mintzo garenean aurkitzen garen mailara. 82-XII-24ko Eusko Legebiltzarraren aipatu legeaz ari gara: *Euskararen Erabilpena arauzkotzeko Oinarrizko Legeak*, oinarrizko hizkuntz eskubideen artean, «ikasketak bi hizkuntza ofiziale-tan egiteko eskubidea» aitortzen die (5.2º b) Komunitate Autonomoko biztanleei eta II. Tit., II. Kapituluko bost artikulua —15.etik 21.erakoak— «Euskararen irakaskuntzango erabilpena»ri eskaintzen dizkio. Noski, II. Kapitulua alkantzu orokorra du, bereziki 15. artikuluko deklarazio borobilak: «ikasle guztiei, hezkuntza-maila berezitan, irakaskuntza euskaraz eta gaztelaniaz hartzeko eskubidea aitortzen zaie». Hala ere, artikulatuan dagoen ardura funtsezkoa, hizkuntzaren presentzia eta beharrezkotasuna Unibertsitateaz beheko heziketa-mailan (16. art.) legalki segurtatzekoa da, irakaskuntza behartuko ikasketak burutzean (17. art.) euskararen ezaguera praktikoa nahikoa lor dadin. Unibertsitate-erakunde bati —Magisterioko Unibertsitate-ikasketei, zehazki (19. art.)— egiten zaien aipamen zuzen bakarrak hizkuntz emaitzak segurtatu nahi ditu OHOn; baina helburu bereko xedapenik ez dago BBB eta UBiko irakasle lizentziatua hornitzen dituzten Fakultateentzat.

Legeak egindakotzat ematen du, normaltasuna lortzean, lehen

eta bigarren mailako ikasketak Komunitate Autonomoan jarraitu dituen edozein ikaslek bi hizkuntzak ezagutzen dituela dagozkion frogen bitartez adierazteko moduan izan beharko duela eta, ondorioz, unibertsitate-ikasketak euskaraz nahiz gaztelaniaz jarraitzeko gai izango dela. Propioki, euskal Autonomi Estatutuko deklarazioak zehazten dituen legean ere ez dago erregulazio espezifikorik hizkuntz eskubideen baliapenaz Unibertsitatean. Seguru asko, goiztarizat jo zen arazoa; edo, agian, astunegiak ziren problemak lehentasun kronologikoa ematen zaien heziketa-mailen erregulazioa kontsentsuatzeko.

Nabaria da hizkuntzaren arazoa, UPV/EHUko irakaskuntzan, lege-erregulapen baten beharrean dagoen problema dela. Euskararen irakaskuntzak badu leku franko Magisterio-Eskoletan. Bestalde, legearen erabateko aplikazioa lortu arte, ikasle-irakasleek euskarazko eskolen unibertsitate-eskaintza eskatuko dute, trantsizio-egoera luzea bizi beharko dugularik.

Unibertsitateak, beraz, euskararen berreskurapenaren objektibo sozial orokorrarekin loturiko hizkuntz politika unibertsitaria definitu beharra dauka, eta, helpide bezala, arau-marko bat eratu beharra. Konstituzionalistei eta administratibistei —aginte publikoei, azken finean— dagokie erabakitzea Unibertsitateak, bere autonomiaz eta aitortzen zaion autogobernu-ahalmenez baliatuz, bere hizkuntz estatua definitzeko fakultaterik baduen ala Eusko Legebiltzarren lege —transferentziaren ondoko— baten zain egon behar duen.

Euskaratzailea: **Jose Antonio Aduriz**

G.M.

## ELHUYAR anaiak

### Elhuyar Kultur Taldea

Lotsa apur batez bada ere, Euskal Herriak zientziaren eta ezagumendu zientifikoaren garapenari ekarpen baliotsu gutxi egin diola aitortu beharra dugu euskaldunok. Zientziaren ortze zabalean berezko distira izan duten euskal izarrak urriak izan dira eta hauen artean, argitasun nabariaz, *Juan Jose eta Fausto Elhuyar eta Zubize* kokatu behar dira.

Logroñoñen jaiotako bi «euskaldun» hauek duela berrehun urte, 1783.ean alegia, une hartan astiro handitzen ari zen elementu kimi-koen zerrendari izen berri bat erantsi zioten, wolframioa.

Nahiz eta, esan bezala, *Fausto* eta *Juan Jose* Logroñoñen jaio bi arrazoi funtsezko daude haren burua euskalduntzat jotzeko. Alde bate-  
tik, gurasoak euskaldunak zituzten; aita, *Juan* izenekoa Hasparren-  
go *Elizalde* baserrikoa eta ama, *Ursula*, Donibane Lohitzungo Gran-  
txanenekoa. *Juan*, kirurjilaria lanbidez, bere lanbideen jorrazera Lo-  
groñoñora higitu zen *Ursula*-rekin batera 1753. urtean. Bertan *Juan Jose*  
(1754), *Fausto* (1755) eta *Maria Lorenza* (1758) jaio ziren.

Bestalde, eta bigarrenez, beren bizitzaren garai oparoena Euskal Herriarekin, Bergarako Erret Mintegiarekin hain zuzen, lotuta dago. Bertako irakasle izanik, wolframioaren isolaketa egin zuten, alde ba-  
tetik eta bestetik *Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais* delakoaren partaide izan ziren.

Garai hartan ohigabekoa zen kezketak sakon eta zabala izan zen *Elhuyar* anaien ondorengo lanen zutabe eta oinarri. Bere aitak bul-  
tzatu eta sortu zuen, era berean, zientziarako zaletasuna. *Juan Elhu-*

yar ezpairik gabe, ikusmira zabal bezain zuhurreko pertsonaia izan zen, eta ez zuen erreparorik jarri bere semeei egokia ikusten zuen hezketa emateko.

*Elhuyar*-tarrak, Oionen (Araba) egin zituzten lehen ikasketak, dirudienez, hortik Logroño-ko Jesuiten Ikastetxera pasa zirela. Adina izan zutenean, aitak, esfortzu ekonomiko ikaragarria eginez, Pariserara igorri zituen beren ikasketa zientifikoak zabal zituzten. Ikasketak hauen kostu ekonomiko handia dela eta, kirurjilari baten poltsikorako bederen, beka moduko laguntzaren bat izan zutela anaiok pensatzen da, *Real Sociedad*-ek emandakoa agian..

Parisko klaseak (1773-1777) ederki eta egokiro aprobetxatu zituzten *Elhuyar*-tarrek irakasle ospetsuengana joanez. Bertan, alde batekin, orduko zientzilari famatuenetarikoekin, *D'Arcet eta Rouelle* eta bestekin, *Antonio de Munibe*, *Peñafloridako Kontea*-ren semea eta *Francisco Xabier de Egia*, *Narroseko Markes*-aren semearekin jarri ziren harremanetan. Bi azkeneko hauen bidez, *Juan Jose* eta *Fausto*, *Real Sociedad Vascongada de Amigos del Pais*-ko partaide izendatu zituzten, Irakasle Bazkide gisa 1778.etik aurrera.

Parisetik, eta elkartearen beka batekin *Freiber*-era joan ziren bertako *Mea-Eskola*-n ikasketak zabaltzera. 1781. urterarte *Abraham Werker*, *Carpentier*, *Rechster*, *Ubern*, *Klotseh* eta *Gelter* irakasle ospetsuen klasetara joan ziren.

1781. urtearen erdialdera bi anaiak aldendu egin ziren, *Fausto* Bergarara itzuli zen bertako *Erret Mintegiko Mea-Eskola*-ko katedra hartzera eta *Juan Jose* ikasketak sakondu asmoz *Uppsala*-ko (Suezia) unibertsitatera abiatu zen. *Juan Jose*ek, *Uppsalan Bergman* irakasle famatuaren ahotik azido tungstikoaren berri izan zuen eta bertan bururatu zitzaion, dudarik gabe, hauen osagai metalikoaren isolatzearen ideia eta asmoa.

1782.eko Urrian, *Juan Jose* Bergarara itzuli zen eta bere anai *Fausto*-rekin batera, honek egokiro prestatuta zeukan laborategian, azido tungstikoaren osagai metalikoaren isolaketara lotu zitzaion, eta lortu ere! Isolaketaren berri 1783.eko *Extractos de las juntas generales abreviadas por la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del Pais en la ciudad de Vitoria por setiembre de 1783* delakoan ematen da argira.

Zientziari ekarpen handi hau egin ondoren bi anaion bizia alden-  
du egin zen. Honela, 1784. urtean *Juan Jose*, *Cadiz*-en, untziratu zen

Nueva Granada-tako bidea hartuz. Amerikan Meategi-inspektore ibili ondoren 1790.ean Bogota-n hil egin zen.

*Fausto*, denbora luzeagoz jarraitu bazuen Bergaran laister, 1785ean, Europan zehar ikasketa-bidaia bat egin ondoren Ameriketara egiten da. Nueva España, Meategiko Zuzendari Orokorra izan ondoren 1821. urtean Madrilera joan zen bertan Injineru-Eskolako zuzendari izateko eta 1823.ean hiltzeko.

Hau da era laburrez esukaldun ospetsu hauen bizia. Wolframioaren aurkikuntzaz ezagunak badira ere askoren ustetan wolframioaren isolaketa baino askoz garrantzitsuagoa da hura burututako metodo zientifikoaren egiten duten erabilpena. *Elhuyar*-tarrek garatu zuten wolframiorako bidea metodo zientifikoaren adibide oparoa omen da.

Izan bitez biok, bada, euskal zientzilari eta ikerlarien helburu eta ispilu.

E.K.E.



## Uztapideren oroitzapenez

# BERTSOLARI HAUNDI DEKLARATUA

Jose Mari Aranalde

Uztapide aspaldi honetan ez zebilen bertsotan. Duela hamabi bat urte izan zuen perlesi atake batek mututu arazi zuen bertsotarako. Hala ere nekez aurki zitekeen, bertsozalerik gaxteenetan ere, haren entzuterik ez zuenik. Ez genuen ikusten, baina bagenekien hor zegoela, gure artean. Orain utzi gaitu, eta herriak dardar egin du, beraren zerbait galdu balu bezala. Zein da joan den hori?

Notizia ez da gaur goizekoa. Gerraurrekoa da. Donostian 1936ean ospatu zen bertsolari egun hartan Txirrita zenari eman zioten txapela; baina jakin omen zenez, benetako irabaztuna Uztapide izan omen zen. Horrelaxe jaiotzen da euskal kulturaren munduan Manuel Olaizola, bertsolari haundi baten sonaz eta zurrumurru artean.

Ez da bertsozalerik izango Billabonakoa ez dakienik. Han Uztapide izendatu zuten txapeldun. Basarrik bigarren egin omen zuen. Izan ere zer galdetuko eta «zein da biziorikan txarrena gure herrian»? Basarri hastan da eta ematen du bere erantzuna, erantzun egokia, eman zitekeen egokiena akaso gure soziologiaren arabera; baina erantzun haundi, biribil eta erabateko bezala historiara pasa dena, Uztapideren hau izan da: «Biziorikan txarrena dago / seigarren mandamentuan». Zenbat aldiz kontatu eta kantatu ote da ateraldi hori bertsoaren bueltan gabiltzan jende erdi-primitibo eta erdi-analfabeton artean! Hori zen arrazoia eta bertsoa eta kolpea eta dena.

Horrela, gure Uztapide bertsolari haundiaren sonaz zebilen herrian ahoz aho. Eta 1962ko abenduaren 30ean iritsi zitzaion guzizko kontsagrazioa. Euskal Herriko Txapelketan txapeldun atera zen. Beti

bere lagun edo kontrario, noiz nola, izan zuen Basarriren burutik jantzi zuen. Geroz beste bitan ere jokatu eta irabazi zuen eta berekin eraman du. Ez dio inork kendu, ez bait zuen azken bi txapelketetan parterik hartu. Horra gure Uztapide Euskal Herri osoak, «goitik» eta «behetik», bertsolari haundi deklaratu. Beraz ez zen misterio herriak dardar eta negar egitea joan denean.

Bazuen Uztapidek meriturik eman zaion eta hartu duen izena izateko. Nekez bil daitezke pertsona batengan hark zituen hainbat doai gure bertsolari mundu erdi-marjinatu horretan kategoriz ibiltzeko. Bazuen zentzua, bazuen humorea, bazituen ateraldiak —Uztapideren ateraldiak!—, bazituen pikardiak, jendearekikoa zen, bertsolari ugaria zen, bazekien kunplitzen lanez eta jendetasunez, bazuen begia non zer esan eta zer ez ikusteko, hitz batean «dena bertutez beterik» eman zuela Jainkoak Xalbador zenak aitortzen dion bezala. Hargatik ederki eman arazi zion bertsolaritzari pesta-zokoetatik herriaren bistarako pausoa. Horrela ezagutu da Manuel Olaizola eta horrela aitortua izango dela uste dut geroan ere «gure denboran ezagutu dan bertsolaririk osona» beraren lagun urepeldarrak dioen bezala.

Eta bukatu baino lehen nola ez aipa beraren bertso idatziak eta prosa-lanak? Hor gelditzen dira hiru liburu mardul, bi prosazkoak eta bat bertsozkoa.

Ez dut uste izenik jasotzen diotenik, baina hor gelditzen dira beraren eta bere garaiaren lekuko. Lekuko esan dut eta hala da. Gure herriaren hizkuntza, guziz ez bada ere, bere jatortasunean ezagutu nahi duenarentzat lan baliosak direla uste dut. Eskolak markatu ez duen buru baten estiloa eta egokitasunak bilatuko ditu irakurleak. Eta estilo eta egokitasun horiek Uztapide bezalako hitzaren artista batek landuak.

Baina badaogoela uste dut oraindik zerbait egitekorik Uztapideren emaitzak biltzen, inork egin nahiko balu. Gure zestuarra, Amezketarra bezalatsu, pertsonaia erdi-mitiko bat izan dela uste dut eta izango dela. Hargatik, herriaren burutan bakarrik dauden zenbait pitxi bildu beharra dagoela esango nuke Manuel Olaizolaren altxorra osatzeko. Ea norbaitek egiten duen. Merezi du Uztapidek eta mesede luke gure kulturak.

*J.M.A.*

## A. Lertxundiren «Hamaseigarrenean aidanez»: iragarritako sari baten kronika

Jon Kortazar

Urgentziazko kronika honetan, oraindik liburua inprimategitik atera berria denean, irakurketa posible batzuk iragarri nahi nituzke, sari eta lan literario on baten aurreko txundidura garaitu orduko. Textuaren irakurketa posibleez jarduteko izango da astirik; oraingotan, irakurketa horien arteko batzuk aipatu bakarrik egingo nuke. Sujerentziaz osaturiko nobela bada ere, baliorik nagusienak sinbolo-mailan aurki ditzakegula uste dut.

### 1. Sinboloak: herri baten hipokresia

Norbaitek argi utzia du, hiritik baserrira itzultzeko ahalegin bat egiten duela nobelak. Hiriko errealismotik baserriko errealismora. Eta arrazoi du puntu baten behintzat: espazioaren aldetik argi dago arazoa.

Baina zerbait sendoagorik aurki dezakegu, baserriaren ikuspegi osoa ematen saiatu den A. Lertxundiren nobelan; edo, beste era batez esateko, «baserria» sinbolotara jasotzen saiatu den nobelan.

Argiegi dagoenez, baserri/hiri banaketarena ez da espazialtasunaren arazoa, kokatzearen arazoa soil-soilik. Hego Ameriketako nobelistek ere (Borges-en kosmopolitismoa ahazten badugu behintzat) ruralitatean hasi eta munduaren sinboloetan bukatzen dute. Gakoa, orduan, beti bezala, gauzak nola egiten diren ikus-tean datza. Espazioa nola sinbolo bihur, tokia nola itzul filosofia baten ispilu: hortxe dago ardatza. Eta honela, nobelak badu sinbolo-maila bi edo behintzat irakurketa-maila bi:

1) Saria irabazi ostean argitaraturiko elkarrizketetan, emakumearen egoera bakardadezko eta mingarria azpimarratu nahi zuela, esaten zigan idazleak. Kontzienteki, behintzat, horretxek dirudi nobelaren gaia: heriotzaren aurrean, bakartasun nagusiaren aurrean, bakarti bizitako eta bakarrik utzitako emakumearen ikuspegiaren diskurtsoa. Emakume horren saminaren adierazle izan nahi du nobelak: ez bakarrik gizarte matxista edo matriarkal batek sorturiko minaren adierazle; hori ere bai, baina baita zerbait gehiago ere: bakartasunaren krudelkeriarena, agian.

2) Maila kontziente horren ondoan, egiaren eta gezurraren artean mugitzen den gizarte hipokrita baten —honen?— argazkia utzi digu idazleak. Eta, nire ustez, egiaren eta gezurraren, izanaren eta itxuraren arteko borroka izango litzateke nobelaren benetako irakurketa. Gizartearen jokabide gezurrezkoa. Izan ez eta itxurak egite hauxe da pertsonaien eginbeharra. Eta borrokan beti sortzen dira biktimak, bi orain: hilotz datzana, eta injenuitatean bizi izan dena, emakumea. Arazo etikoa dugu, bada, gaitzat.

Honela, nobelaren arazorik bereziena ez dago espazioaren tratamenduan, tragedia baten planteamenduan baino. Nobelaren haria tragedia rural bat da, ezbeharrez gertatutako heriotza, urteetan isiltzen den apustulari baten heriotza basatia. Maila argumentalax irakurlearen interesa lortzeko balio du; emakumearen ikuspegiak tonu-aldaketak sortuko ditu barnean; eta tragedia erreflexio sakon bat eskainiko du, egia zer den, adiskidetasuna zer den. Baina nobelak jorien lortzen duena zera da: nobela poliziakoetatik hurbil dagoen argumentu edo kontaketa baten bidez eskaintzen dizkiola bideak irakurleari, hau sinbolora irits dadin.

Ez da teknika hutsekin jokatu: nolabaiteko oreka bat bilatu da teknika, tonu narratibo eta kontaketa artean. Idazleak sinestu egin du kontaketa: argumentu interesgarri edo, behintzat, zirikari batez hornitu du nobela, eta azken orrialdeetaraino ez da biluztuko trama. Kontaketa indarrera itzuli da idazlea.

Badakigu norbait hilko dena eta, hori gertatzean, itaun gehiago sortuko ditu kontalariak: zergatik, zer, zelan. Irakurlearen interesak bizirik dirau ekintza zehatz eta zorrotzekin.

Ezin dugu hau aldaketa nagusitzat hartu; baina bere interesa daukana ere ezin uka, batez ere A. Lertxundiren narratibagintza zehazteko unean. Badirudi euskal nobelaren aro bat bukatu dela: teknika hutsean oinarriturikoaren ostean, narrazioaren eta teknikaren arteko oreka bilatzen duenaren aroa hasten zaigula, alegia.

## 2. Hego (Ameriketako) haizea

A. Lertxundiren nobela honen iturririk argienetariko bat G. García Márquez-en *Crónica de una muerte anunciada* dugu. Idazleak onartu egin du. Planteamendu aldetik, badakigu zer bait gertatuko dena, eta hori gertatzen da.

Argumenduaren aldetiko antzekotasunetik at, badago berdintasunik jokabidearen aldetik ere. Ekintza bati buruzko eritzi desberdinak, lekuko desberdinek kontatuak. Plano eta kontalari-aldaketak nahikoa suposatzen du.

Baina *Crónica*-k argia eta eredia suposatzen duen arren, espazioaren aldetik ez du oraindaino Macondoren antzekorik egin Anduk. Agian, izenik gabeko bere unibertsoaren irudia egiten badu ere, askoz ere errealistago, kostunbristago agertzen zaigu. Dirudienez eta berak aitortzen duenaz, bidetan dago, Orio herriaren espazio fiktizioa eskaini bait dio nobela honi ere. Baina sintesiak osatu gabea dirudi.

García Márquez-en maisutasuna autoreak berak onartzen duen arren, aipagarritzat daukat J. Rulfo, A. Lertxundiz mintzatzerakoan: mexikoarraren hizkera aldetiko estutasuna nabaria da inoiz zarauztar-oriotarrarengan, idaztanceran.

Kontzeptismoa, ia arkano diren esaera eta esaldiekiko interesa, liburuen izenburuen arrarotasun eta zailtasunean ageri da argien: eta orain ere ezin zuen huts egin. Inoiz, berak azaldu behar izan du izenburua.

Rulfo-k hizkeraren aldetik eta tankeraren aldetik Márquez-ek, ederto zuzendu dute inkesta baten bidea.

## 3. Nobela poliziakoaren bidetik

*Crónica*... nobelan, bere gaztaroan gertaturiko heriotza argitu nahirik itzultzen da herrira kontalaria. Hemen ere, idazlearen ispi-lua dator trajediaren lekukoekin mintzatzerara. Paralelismoa argiegia izan arren, badago Lertxundirengan euskal nobela poliziakoa sortzeko ahalegina.

Nobela poliziakoa, tresna baino gehiago, sinboloen bilaketa bait da: Graal-en bila egindako bidaien kronikak ziren zaldun-nobelak; Egiaren bila ibilitakoenak gaurko detektibe-kontaktak.

Baina haiek ez zekitena dakite hauek: ez dagoela Graal-ik, ez dagoela. Horregatik bihurtu dira detektibeak eszeptiko eta aintiheroe.

Bidaiaeren kronika honetan, herri bakoitzak berari dagozkion ezaugarriekin janzten du nobela poliziakoa. Gaurko Euskal Herrian, ez dute balio USAko detektibeek, hemen egon ere ez daudelako eta, gainera, oso zaila delako hemen polizianako sentibera azaltzea. Horregatik, detektibea egon ala ez, ez dio ardura nobela poliziako batetan: arazoa ikertzaile bat aukeratzean datza. Eta herri bakoitzean, literatura bakoitzean, ikertzailearen izakia bere erara osatu beharko du idazleak. Espainiako nobela poliziakoan kazetariak aukeratu dituzte ikertzailetarako.

Eta guk? Oraindik ez dugu horrelako arketiporik: bistan dagoenez, detektibea generoari egindako jarraipen itsu bat baino ez da—eta. Geure ikertzaileak behar ditugu, gure gizartean benetan ikerketan jardun direnak. Problema teorikoa planteaturik dago. A. Lertxundik nobelaren topikotik irteten den soluzioa eskaini du: arrazoi pertsonalengatik egin ikerketa, arazo afektiboengatik. Formula kopiatzetik irten eta jokabide orijinala, honako baliagarria, ematen saiatu da behintzat.

A. Lertxundik, baserri-giroa eta tragedia ruralaren bideak aukeratuz, irtenbidea susmatu du. Ez dakit nobelako ikertzaileak benetan arketipo bat osatu duen ala ez; ezezkoa izan arren ere erantzuna (uste dudanez, nahiko ingenuo ageri da noizean behin ikertzaile), pertsonaia hau tratatzerakoan errealismoaren bidetatik abiatuz, generoaren aldeko oinarrizko urratsak ematen jakin du. Nobela poliziakoaren azken helburua, azken sinboloa, gizartearen, errealitatearen zirikatzeta litzateke, gizartearen aurpegi iluna azaleratzea.

Eta gure gizartearen alderdi ilunez ari zaigu Anduren nobela, gure gezur/egien joko ezinbesteko—trajiko horretan.

#### 4. Narrazioaren erritmoa

Narrazioaren erritmoagatik irabazten du nobelak arreta. Balio literarioetatik at, interesa lortzen jakin du: *climax*—eraino eraman gaitu irakurleok. Gustora eta jesarraldi batean irakurtzeko nobela dugu hau.

Inoiz —eta hau akatsen artean kokatu behar dugu— ekintzaren

hainbat eszena hari nagusitik urrun baleude bezala agertzen zaizkigu. Halanola inguruko herriaren erreketa.

Honelako ekintzak era bitan salbatu ditu:

1) Nobelaren hasieran, ikuspegi-planuen aldaketaren bitartez. Herriaren zurrumurru-giroak (ekaitzaren aurretik izaten den urduritasunaren ispilu) urduritasun bera sortu du irakurleagan.

2) Pertsonaien tratamenduaren bitartez. Euskal nobelagintzan gutxi dira pertsonaia bakoitzari bere hizkera propioa, bere expresabide berezia ematen diotenak, pertsonaia bere hizkerarekin identifikatzen dakitenak. Gutxi horietako bat dugu A. Lertxundi.

Pertsonaien hizkeran, hizkeraren tonuan, bere prosa-lanaren fintasuna erakusten du. Pertsonaien hizkera eta kontalariarena desberdinak dira: pertsonaiak, kontalariagandik urrunduriko bere boza du. Eta pertsonaien ahots desberdinek, erritmo berezia, aldakorra, sortzen dute nobelaren aldaketetan. Nobelak ez du monotoni inpresiorik sortzen; tonu eta hizkera aldaketetan aurki dezakegu, agian, honen arrazoa.

## 5. Bakardadearen mugetara bultzaturik

Trajedia guztietan dago biktimaren bat. Baita hemen ere. Emakumea dugu nobela honetako biktima. Bera dugu lehenengoz herriak eta heriotzak gero bakartasunaren mugetara, patetismora, bultzatua.

Mugetan diren emakumeenganako interesa aspaldi nabaritu zaio A. Lertxundiri. Honen emakumeen artean, interesgarrienetarikoa dateke nobela honetakoa. Atharratzeko baladako emakumearen antzera, urrutira ezkondua eta, arrotz den neurrian, deserrira behartua. Aldaketa batekin, hala ere: Ozazeko alabaren kasuan, deserrira fisikoa da, barnekoa hemengoan. Eta emakume honi barne bakar-bakarrizketa geratzen zaio irtenbide bakartzat.

Eta hortxe agertzen dira A. Lertxundiren estiloaren matizazio-posibilitate guztiak: tonu lirikoaren fintasuna, erdarazko eserekin zipriztinduriko euskararen gogortasuna,...

Hortxe agertzen dira prosa narratibo pertsonal baten distirak.

*J. K.*

## Jaso ditugu

ZALDUA, Imanol: **Urgull Mendiko zuloa**, Gero argitaldaria, Esku-liburuak saila, Bilbo, 1983, 104 or. 18 × 11 zm.

WEISER, Franz/MUXIKA, P.: **Mendiko Argia**, Gero argitaldaria, Kimu saila, Bilbo, 1983, 106 or. 19,5 × 13,5 zm.

SVENSSON/MUXIKA, P.: **Noni eta Mani**, Gero argitaldaria, Kimu saila, Bilbo, 1983, 88 or. 19,5 × 13,5 zm.

BITAÑO: **Ipuinak (III)**, Gero argitaldaria, Kimu saila, Bilbo, 1982, 80 or. 19,5 × 13,5 zm.

GEREÑO, Xabier: **8 Teatro lan. Euskara: Bigarren maila**, Egile-Editore, Bilbo, 1982, 128 or. 16,5 × 11,5 zm.

GEREÑO, Xabier: **Jurgi kapitaina Hong Kong-en**, Pipa Saila. Nobela polizikoak, Egile-Editore, Bilbo, 1982, 128 or. 16,5 × 11,5 zm.

ELKAR-LANEAN: **Historia eta Gizarte-zientzien urtekaria**, I urtea, 1 alea, 1981, U.E.U., Iruñea, 1981.

ELKAR-LANEAN: **Jose Miguel Barandiaran-eri omenaldia. Oñati 4-11-1979**, Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos, 1979, 32 or. 20,5 × 13,5 zm.

ELKAR-LANEAN: **Musica 1**, Cuadernos de sección, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1983, 203 or. 24 × 17 zm.

### ELKAR-LANEAN bidalikato "separata"k:

ETXEZARRAGA, Jesus A.: **Zeanuriko Euskeraren Zehaztasun Batzuk**, Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1982, 18 or. 24 × 17 zm.

MUJKA, Luis Mari: **Exozentrikoen aztarnak euskal hiztegiari**, Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1982, 14 or. 24 × 17 zm.



- «MIKEL ZARATE» IKER MINTEGIA. LABAYRU IKASTEGIA: **Santa Ageda Koplak Sopolana-Urduliz inguruan**, Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1982, 12 or. 24 × 17 zm.
- LEKUONA, Manuel de: **Escola-liburuak direla-ta. Prioridad de los textos para las ikastolas**, Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1982, 10 or. 24 × 17 zm.
- LEKUONA, Manuel de: **Detxepare'ren bertsifikamena (Aita Altuna'ren liburu bat)**, Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1982, 14 or. 24 × 17 zm.
- LEKUONA, Manuel: **Erdi-aroko arte ederrak Ego-Euskalerrian**, Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1982, 28 or. 24 × 17 zm.
- APALATEGI, Joxe Martin: **Historia gabeko historia, entsaio etnologiko historikoa**, Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1982, 50 or. 24 × 17 zm.
- FERNANDEZ DE LARRINOA, Pedro M.: **Arrantzale gizarteko osagaiei buruzko ikerketan zenbait ohar**, Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos, Donostia, 1982, 4 or. 24 × 17 zm.
- EUSKO JAURLARITZA. ESTATISTIKA-ZUZENDARITZA/U.Z.E.I.: **Kodeen normalizazioa. Normalización de Códigos**, Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco, Gasteiz, 1982, 86 or. 23,5 × 16,5 zm.
- EUSKO JAURLARITZA. ESTATISTIKA-ZUZENDARITZA/U.Z.E.I.: **Euskal urtekari Estatistikoa. Anuario Estadístico Vasco. 1982**, Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco, Gasteiz, 376 or. 26 × 21,5 zm.
- «LES NOSTRES LIMITACIONES». Titulu honekin datorren lan bat hartu berri dugu. Euskarak eta garai batetako euskaldunek Kataluniako lurretan utzi zituzten aztarnak dira lanaren ikerkizuna. Hizkuntza katalanaren erro historikoak bilatuz, hizkuntzaren latinaurreko lehengaiak erakusteko izan ohi da liburu etako lehenengo kapitulua (ik., adibidez, J.M. Nadal eta M. Prats-en obran: «El substrat pre-romà» (I, 17-49. or.). Ildo beretik ekin nahi dio lanari Bingen Zudayre-k ere. Arazoaz kezkatutik, harremanak nahi dituenarentzat hona helbidea: C. Roselló, 59, Barcelona-29. Tel. 93-2307512.

## Liburu-zerrenda osatzen

Azken JAKINen, 26/27 zenbaki bikoitzean alegia, 1982an euskaraz argia ikusi zuten liburuen zerrenda eman zuen argitara Joan Mari Torrealdai. Han fitxatutakoei honoko hauek eransten dizkie orain:

**Erlazio matematikoak**, (b) ELHUYAR Matematika Taldea. ELHUYAR. Donostia, 30 × 20,5. 232 or.

**Egitura algebraikoak: zenbaki multzoak**, ELHUYAR Matematika Taldea. ELHUYAR, Donostia, 30 × 20,5. 298 or.

**Fisika BBB-2**, (b) ELHUYAR Fisika Taldea. ELHUYAR. Donostia. 30 × 20,5. 196 or.

**Fisika BBB-3**, (b) ELHUYAR Fisika Taldea. ELHUYAR. Donostia, 30 × 20,5. 300 or.

**Kimika BBB-2**, (b) ELHUYAR Kimika Taldea. ELHUYAR. Donostia. 30 × 20,5. 231 or.

**Kimika BBB-3**, (b) ELHUYAR Kimika Taldea. ELHUYAR. Donostia, 30 × 20,5. 253 or.

**Lantegi Mekanikorako Egitaraua L.H. 1-1**, ELHUYAR Taldea. ELHUYAR. Donostia, 30 × 20,5. 170 or.

**Logika Multzo Teoria**, (b) ELHUYAR Matematika Taldea. ELHUYAR. Donostia. 30 × 20,5. 220 or.

**Matematika BBB-1**,(b). ELHUYAR Matematika Taldea. ELHUYAR Donostia. 30 × 20,5. 436 or.

**Matematika BBB-2**,(b) ELHUYAR Matematika Taldea. ELHUYAR. Donostia, 30 × 20,5. 303 or.

**Matematika BBB-3**, (b). ELHUYAR Matematika Taldea. ELHUYAR. Donostia. 20 × 20,5. 397 or.

- Matematika L.H.1 (I. tomoa)**, ELHUYAR Matematika Taldea. ELHUYAR. Donostia. 39 × 20,5. 308 or.
- Matematika L.H.1 (II. tomoa)**, ELHUYAR Matematika Taldea. ELHUYAR, Donostia. 30 × 20,5. 231 or.
- Matematika L.H. 1-2**, ELHUYAR Matematika Taldea. ELHUYAR. Donostia. 30 × 20,5. 409 or.
- Miszelania Kimikoa**, Elkar lanean. U.E.U. Iruñea. 30 × 20,5. 114 or.
- Natur Zientzietako Horma-Irudiak**, JOVER/UZEI-NAZABAL, G. G.I.E. Donostia, liburuskak 20 × 10. 346 or. 90 Horma-irudi. 63 × 85.
- Natur Zientzietako Irudi-Eranskorrak**, JOVER/UZEI-NAZABAL, G. G.I.E. Donostia, liburuskak 22 × 17. 332 or. Irudi eranskorrak. 23 karpeta 50 × 30
- Oinarrizko Kontabilitatea L.H. 1.1**, ELHUYAR Ekonomi Taldea. ELHUYAR. Donostia. 30 × 20,5. 163 or.
- Zenbakizko kontrola**, ZALBIDE, Kepa. ELHUYAR. Donostia, 30 × 20,5. 333 or.
- Saioka 7. Gizarte arloa**, Askoren artean. G.I.E. Donostia. 30 × 21. 305 or.

# JAKIN

## IKASTOLAtik ESKOLA PUBLIKOra

**Historia**  
**Instituzionaltzearen arazoa**  
**EIKE eta Euskal Eskola Publikoa**

Uztaila  
Iraila

**28**

1983

**JAKIN**

**Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk. - Donostia-13**

**Tel. (943) 271713**